

# LEMOATX 1937

---

*Eusko Gudarostearen azken garaipena*  
*La última victoria del Ejército Vasco*



*Lemoako Udalak sustatu ditu diziplina anitzeko ikerketa hau eta liburu honen argitalpena, Lemoatxeko guduari buruz orain arte dauden ezagutzak eguneratu asmoz. Lehenengo aldiz argitaratu dira ikerketa arkeologikoetako eta antropologikoetako datuak; Euskal Herriaren memoria historikoko tokirik garrantzitsuenetakoa izan behar lukeenaren paisaia asaldatu honen lekukoak.*



*El Ayuntamiento de Lemoa ha impulsado esta investigación multidisciplinar y la publicación de este libro con el objetivo de actualizar los conocimientos existentes hasta la fecha sobre la batalla de Lemoatx-Peña Lemoa. Se muestran por primera vez datos inéditos de las investigaciones arqueológicas y antropológicas, testimonios de un paisaje atormentado que debería convertirse en uno de los principales lugares para la memoria histórica del pueblo vasco.*





*Mendi eze, ikurrin eder,  
aske nahi zaitut axian.  
Amar gazteren lerdena  
makila luzez bidian*

*Mendi-bitxidor berdiok,  
arin or duaz kantari:  
“Dana emon biyar yako  
maite den askatasunari”.*

*Gaztedi honen didarra  
bai dala didar zolija!  
Aberri baten samiñez  
urduri dabil erija.*

*Askatasun-goxalderuntz  
sugarra dira basuak.  
Sugarra basuak eta  
zidar argija itxasuak.*

*Or duan ozte-aldrea  
aberri-miñez kantari!:  
“Dana emon biar yako  
maite den azkatasunari”.*

*Gazte horreik goruntz duaz  
abesti ta ikurriñez.  
Lañuan baña tiro hotsak:  
bedartza dager odolez.*

*Ikaraz duaz usuak,  
mendija dago ixillean.  
Hamar gazteren lerdena  
bixitza barik lurrean!*

*Eta illuntzeko bakian  
norbaitek darrai kantari:  
“Dana emon biar yako  
maite dan azkatasunari”!*

**Estepan Urkiaga Basaraz “Lauaxeta”  
1937**

Sustatzailea  
Promotor



## LEMOAKO UDALA

Laguntzailea  
Colabora

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

**LEHENDAKARITZA**

Bakegintza eta Bizikidetzarako  
Idazkaritza Nagusia  
*Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza*

**PRESIDENCIA**

Secretaría General para la Paz  
y la Convivencia  
*Dirección de Víctimas y Derechos Humanos*

# LEMOATX 1937

Eusko Gudarostearen azken garaipena  
La última victoria del Ejército Vasco

Lemoa 2018



**aranzadi**

zientzia elkarte

## **PROIEKTUAREN KOORDINATZAILEA / COORDINADOR DEL PROYECTO**

Juantxo Agirre-Mauleon

## **EGILEAK /AUTORES**

Juantxo Agirre-Mauleon, Julien Blanco, Haizea Bravo, Mikel Diego, Francisco Etxeberria, Lourdes Herrasti, Alba Peña Muñoz, Alberto J. Sampedro, Euken Alonso, Jimi Jimenez, Fermin Leizaola, Iñaki Rodríguez Rebolledo, Alberto Sardón Arriolabengoa, Eduardo Sardón Arriolabengoa.

## **IKERLARI LAGUNTZAILEAK / INVESTIGADORES COLABORADORES**

Tito Agirre, Asier Izagirre, Javi Buces, Rebeca Martinez, Cristina Martin, Juanmari Martinez Txoperena, Karlos Almorza, Mattin Aiestaran, Iñaki Mezquita.

## **ESKERRAK / AGRADECIMIENTOS**

Eusko Jaurlaritza, Euskal Prospekzio Taldea, Sabino Arana Fundazioa, Euskal Memoria, Bizkaiko Elizaren Histori Artxiboa, Euskadiko Artxibo Historikoa, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoa, Bizkaiko Probintziako Agiritegi Historikoa. Gazte auzolandegietan parte hartu duten gazte eta monitore guztiei. Lemoako Oroimen Historikoa berreskuratzeko egin diren ekimenetan parte hartu duten pertsona guztiei. / Gobierno Vasco, Euskal Prospekzio Taldea, Fundación Sabino Arana, Euskal Memoria, Archivo Histórico Eclesiástico de Bizkaia, Archivo Histórico de Euskadi, Universidad del País Vasco, Archivo Histórico Foral de Bizkaia, Archivo Histórico Provincial de Bizkaia. A los monitores y jóvenes que han participado en los Campos de trabajo. A todas las personas que han colaborado y participado en las iniciativas para la recuperación de la memoria histórica en Lemoa.

## **DIGITALIZAZIOA / DIGITALIZACIÓN**

Anais Rodriguez, Mari José Hernandez. Aranzadiko Artxibo Orokorra.

## **AZALEKO ARGAZKIA / IMAGEN DE PORTADA**

AGG-GAO OA 1631 © CC BY –SA: Ojanguren, Indalecio.

## **OHARRA / NOTA**

Argitalpen honek toponimia ofiziala eta termino generikoak erabiltzen ditu, Euskaltzaindia eta Lemoako Udalaren irizpideei jarraituz. Honela, "Lemoatx" toponimoa erabiltzen da "Peña Lemona" beharrez, nahiz eta azken hau izan 1937an erabiltzen zena. Era berean, bai argitalpen honetan eta bai beste batzuetan ere, euskaraz "Eusko Gudarostea" terminoa araupetu da, "Eusko Gudaroztea", "Euzko Gudarostea" edo "Euzkadiko Gudarostea" beharrez, nahiz eta 1936ko urritik aurrera Eusko Jaurlaritza osatu ondoren, Gipuzkoan zeuden miliziak ofizialki "Euzkadiko Gudarostea" deitzera pasa ziren. Halaber, "Eusko Jaurlaritza" erabiltzen da "Euzko Jaurlaritza" beharrez. Banakako izenak eta deiturak, pertsonalak izanda, jatorrizko grafian errespetatu dira. / La presente publicación utiliza la toponimia oficial y los términos genéricos atendiendo a las directrices de Euskaltzaindia y del Ayuntamiento de Lemoa. De este modo se utiliza el topónimo "Lemoatx" en vez de "Peña Lemona", que era el utilizado en el año 1937. Así mismo en esta y otras publicaciones se ha estandarizado en euskara el término "Eusko Gudarostea" en vez de "Eusko Gudaroztea", "Euzko Gudarostea" o "Euzkadiko Gudarostea", aunque a partir de octubre de 1936 tras la formación del Gobierno Vasco las milicias que operaban hasta el momento en Gipuzkoa pasaron a denominarse oficialmente "Euzkadiko Gudarostea" (Ejército de Euzkadi). Del mismo modo se utiliza "Eusko Jaurlaritza" en vez de "Euzko Jaurlaritza". Los nombres y denominaciones individuales, siendo del ámbito de lo personal, han sido respetados en su grafía original.

**ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA.** Zorroagaina 11. Donostia-San Sebastián 20014. Tfnoa.: 943466142. [www. aranzadi.eus](http://www.aranzadi.eus)

Itzulpena / Traducción

Euskalgintza

Maketazioa / Maquetación

TamTam S.L.

Inprimatzen du / Imprime

Leitzaran grafikak S.L.

ISBN 978-84-947343-1-1

L.G. / D.L. SS 400-2018



# Aurkibide orokorra

## índice general

<b>AURKEZPENA / PRESENTACIÓN</b> .....	09
<b>1. LEMOATX, GUDU BATEN HISTORIA / LEMOATX, HISTORIA DE UNA BATALLA</b> (MIKEL DIEGO).....	11
<b>2. ARKEOLOGIA LUBAKIETAN / ARQUEOLOGÍA EN LAS TRINCHERAS</b> (ALBA PEÑA MUÑOZ - JULIEN BLANCO - EUKEN ALONSO - JIMI JIMENEZ - JUANTXO AGIRRE-MAULEON).....	89
<b>3. HONDAKIN MATERIALAK LEMOATXEKO LUBAKIETAN / RESTOS MATERIALES EN LAS TRINCHERAS DE LEMOATX</b> (ALBA PEÑA MUÑOZ - JULIEN BLANCO - HAIZEA BRAVO - FERMIN LEIZAOLA - ALBERTO J. SAMPEDRO - JUANTXO AGIRRE-MAULEON).....	145
<b>4. GERRAKO MATERIALAK LEMOATXEKO GUDU-ZELAIAN / MATERIAL BÉLICO EN EL CAMPO DE BATALLA DE PEÑA LEMONA</b> (ALBERTO J. SAMPEDRO - ALBERTO SARDÓN ARRIOLABENGOA - EDUARDO SARDÓN ARRIOLABENGOA - IÑAKI RODRÍGUEZ REBOLLEDO).....	183
<b>5. LEMOATXEN HOBITIK ATERATAKOAK / FOSAS EXHUMADAS EN LEMOATX</b> (LOURDES HERRASTI - FRANCISCO ETXEBERRIA).....	195
<b>6. ITURRIAK ETA BIBLIOGRAFIAK / FUENTES Y BIBLIOGRAFÍA</b> .....	225





XXI. mende honen hasieratik erakundeak politika publikoak sustatzen hasi gara gure herrialdean faxismoaren aurkako gerran eta ondoren, eta erregimen frankistan gertatu zenaren egia aurkitu nahian. Udalek ere egin dugu prozesu hori, eta Lemoan ezin ginen ezer egin gabe geratu, are gehiago Lemoatxeko gudua izanik 1936ko estatu-kolpearen aurka Euskal Herriak izandako erresistentziaren zedarrietako bat. Horren guztiaren kontakizun ofizial bat egon zen berrogei urtez indarrean, eta Lemoatxeko gailurra zedari monumentalala zen, diktadura frankistaren ideologia antidemokratikoa eta indarkeriakoa goraiatzekoa.

Balio errepublikanoak eta demokratikoak defendatzen ditugun erakundeok, Eusko Jaurlaritzak defendatzeko armekin borrokatu ziren gudari eta milizianoekin, eta erakunde errepublikanoekin identifikatzen garenek, zerbait egin beharra dugu. Hori dela eta, 2011n Lemoako Udalak, udalerrien zegoen hutsunea kontuan izanda, memoria historikoa berreskuratzeko prozesua jarri zuen abian lehenengo aldiz, ikuspegi global eta integratzailearekin. Hasteko, herritarren parte-hartze prozesua egon zen: gizarte-, kultura- eta politika-arloko eragileak gonbidatu ziren. Ondoren bilerak, hitzaldiak, proiektzioak, kontzertuak egin dira, eta materialak editatu, hala nola disko bat eta orain esku artean duzun lan monografiko hau.

Era berean, Aranzadi Zientzia Elkartearen ekarpen zientifikoa eta aditua ere eskatu dugu, alor honetako ikerketaren buru izan zedin. Beren lan itzelean lagun egin diegu, gorpuk hobitik atera direnean bertan izan gara, eta Lemoatx mendian berreskuratu diren gorpuzkinei duintasuna eman diegu. Zeregin honetan beste erakunde batzuek ere hartu dute parte, hala nola Eusko Jaurlaritzako Bake eta Bizikidetzak Zuzendaritzak eta Europako erakundeak.

Bereziki landu dugun alderdia izan da ondorengo belaunaldiak ere honen berri ematea eta gure gazteak heztea gure historia identifikatzen. Halaber, gure askatasunak defendatu zituztenen baloreak irakatsi dizkiegu, eta giza eskubideen errespetua sustatu dugu. Zortzi urte eman ditugu Eusko Jaurlaritzako Gazteria Zuzendaritzarekin bate-

Desde comienzos de este siglo XXI las instituciones hemos comenzado a impulsar políticas públicas en la búsqueda de la verdad de lo acontecido en nuestro país durante la guerra contra el fascismo y sus consecuencias, y el régimen franquista. Los ayuntamientos también hemos protagonizado este proceso y en Lemoa no podíamos quedarnos pasivos, más si cabe cuando la batalla de “Peña Lemona” fue uno de los hitos de la resistencia del pueblo vasco contra el golpe de estado de 1936. De todo ello había quedado un relato oficial de cuarenta años, que además en la cima de Lemoatx se materializaba en un hito monumental exaltando la ideología antidemocrática y violenta de la dictadura franquista.

Las instituciones que defendemos los valores republicanos y democráticos, que nos identificamos con los gudaris y milicianos que lucharon con las armas en defensa del Gobierno Vasco y las instituciones republicanas, tenemos que actuar. Por ello desde el año 2011 el Ayuntamiento de Lemoa ante el vacío existente en el municipio, puso en marcha por primera vez un proceso de recuperación de la memoria histórica con una visión global e integradora. Primeramente mediante un proceso de participación ciudadana, invitando a los agentes sociales, culturales y políticos. Posteriormente se han organizado reuniones, conferencias, proyecciones, conciertos, y se han editado materiales tales como un disco y este trabajo monográfico que ahora tienes entre manos.

Así mismo, hemos solicitado la aportación científica, experta de la Sociedad de Ciencias Aranzadi para que liderara las investigaciones en este ámbito. Hemos acompañado su ingente labor, asistiendo a las exhumaciones que se han practicado, y dignificando la recuperación de los restos humanos que se han realizado en el monte Lemoatx. En ese trabajo también han colaborado otras instituciones, tales como la Dirección de Paz y Convivencia del Gobierno Vasco o Instituciones Europeas.

Un aspecto que hemos trabajado especialmente ha sido el de la transmisión generacional y la educación de nuestros jóvenes en la identificación con nuestra historia, inculcándo-

or.

ra gazteentzako lan-eremuak eginaz, Lemoatxeko lubakiak eta bertan lurperatutako hondar materialak berreskuratze-ko eta Euskal Herri osoaren memoriarako gune bihurtzeko. Gure iraganaz hausnartzera gonbidatuko gaituen tokia izan dadila eta duintasuna inoiz galdu ez zuten gazten haien sufrimendua eta sakrifizioa gogoratzeko tokia ere izan dadila.

Lemoatxi buruzko lehenengo argitalpen monografikoa da hau, eta bertan inoiz argitaratu gabeko datuak daude, 80 urteren ondoren argia ikusi duten objektuak, behin eta berriro zirrara eragiten digutenak, pertsoez ari baitira, gaur egun ditugun sentimendu eta askatasun, justizia eta demokrazia sentimendu berberak zituzten pertsoez, hain zuzen ere. Helburu hauek lortzeko irmo egotea izango da gure ordainik onena.

les los valores de quienes defendieron nuestras libertades, y fomentando el respeto a los derechos humanos. Llevamos ocho años organizando, junto con la Dirección de Juventud del Gobierno Vasco, campos de trabajo para jóvenes con el objetivo de recuperar las trincheras y restos materiales sepultados en Lemoatx, y convertirlo en un espacio para la memoria de todo el pueblo vasco. En un lugar que nos invite a reflexionar sobre nuestro pasado, y donde recordar el sufrimiento y sacrificio de aquellos jóvenes que nunca perdieron su dignidad.

Esta es la primera publicación monográfica que se hace sobre Lemoatx y en ella se recogen datos inéditos, objetos que salen a la luz después de 80 años y que no hacen sino estremecernos ya que nos hablan de personas, con sentimientos y con los mismos principios de libertad, justicia y democracia que compartimos en la actualidad. Mantenernos firmes en la consecución de estos objetivos será nuestro mejor acto de reparación.

**SAIOA ELEJABARRIETA AMORRORTU**  
Lemoako Alkatea



Lemoatx, gudu baten historia  
Lemoatx, historia de una batalla

1.



# Lemoatx, gudu baten historia

## Lemoatx, historia de una batalla

Mikel Diego<sup>(1)</sup>

<b>1.1. MARKO HISTORIKOA: ESTATU-KOLPEA EUSKAL HERRIAN / MARCO HISTÓRICO: EL GOLPE DE ESTADO EN EUSKAL HERRIA</b> .....	14
1.1.1. MATXINOEN AURRERAPENA ETA GIPUZKOAREN OKUPAZIOA / EL AVANCE SUBLEVADO Y LA OCUPACIÓN DE GIPUZKOA.....	17
1.1.2. MOLAREN ERASOA BIZKAIAN / LA OFENSIVA DE MOLA SOBRE BIZKAIA.....	20
<b>1.2. MARKO GEOGRAFIKOA / MARCO GEOGRÁFICO</b> .....	22
<b>1.3. LEMOAKO DEFENTSA-SISTEMA / SISTEMA DEFENSIVO DE LEMOA</b> .....	24
<b>1.4. BORROKAK / BATALLAS</b> .....	28
1.4.1. AURREZ AURRE ZEUDEN ARMADAK / LOS EJÉRCITOS ENFRENTADOS.....	28
1.4.1.1. <i>Eusko Gudarostea / Ejército Vasco</i> .....	28
1.4.1.1.1. - 4. BRIGADA / LA 4ª BRIGADA.....	29
1.4.1.1.2. - 6. BRIGADA / LA 6ª BRIGADA.....	32
1.4.1.1.3. - 15. BRIGADA / LA 15ª BRIGADA.....	36
1.4.1.1.4. - <i>EUSKAL BRIGADEKIN LANKIDETZAN ARITU ZIREN BESTE EUSKAL UNITATE BATZUK / OTRAS UNIDADES VASCAS QUE COLABORARIAN CON LAS BRIGADAS VASCAS</i> ... 39	
1.4.1.2. Armada matxinatua / Ejército sublevado.....	45
1.4.1.2.1. - <i>ARAPILES MENDIKO BATAILOIA, 7. ZK / BATALLÓN DE MONTAÑA ARAPILES Nº 7</i> .....	45
1.4.2. LEMOATXEKO GUDUA 1937-05-29TIK 1937-06-12RA / LA BATALLA DE LEMOATX. 29-5-37 AL 12-6-37.....	50
1.4.2.1. Lemoatxeko guduaren aurreko egunak / Días previos a la batalla de Lemoatx.....	51
1.4.2.2. Maiatzaren 29a: gudu hasi / Día 29 de Mayo: comienza la batalla.....	53
1.4.2.3. Maiatzak 30a / Día 30 de Mayo.....	56
1.4.2.4. Maiatzak 31 / Día 31 de Mayo.....	58
1.4.2.5. Ekainaren 1a / Día 1 de Junio.....	59
1.4.2.6. Ekainaren 2a / Día 2 de Junio.....	61
1.4.2.7. Ekainaren 3a / Día 3 de Junio.....	66
1.4.2.8. Ekainaren 4a / Día 4 de Junio.....	70
1.4.2.9. Ekainaren 5a / Día 5 de Junio.....	71
1.4.2.10. Ondorengo egunak / Días posteriores.....	73
I. ZERRENDA: <i>EUSKO GUDAROSTEKO HILDAKOAK ETA DESAGERTUAK / LISTADO 1: MUERTOS Y DESAPARECIDOS DEL EJÉRCITO VASCO</i> .....	76
II. ZERRENDA: <i>ARMADA MATXINATUKO HILDAKOAK ETA DESAGERTUAK / LISTADO 2: MUERTOS Y DESAPARECIDOS DEL EJÉRCITO SUBLEVADO</i> .....	80
<b>1.5. MULTZO MONUMENTAL FRANKISTA / EL CONJUNTO MONUMENTAL FRANQUISTA</b> .....	81
1.5.1. MULTZO MONUMENTALAREN ERAIKUNTZA / CONSTRUCCIÓN DEL CONJUNTO MONUMENTAL.....	84
1.5.2. INAUGURAZIOA / INAUGURACIÓN.....	86
1.5.3. MULTZO MONUMENTALA DIKTADURAREN AMAIERATIK / EL CONJUNTO MONUMENTAL DESDE EL FINAL DE LA DICTADURA.....	87

<sup>(1)</sup> Aranzadi Zientzia Elkarte / Sociedad de Ciencias Aranzadi.

## 1.1. MARKO HISTORIKOA: ESTATU-KOLPEA EUSKAL HERRIAN

1936ko uztailaren 17an eta 18an II. Errepublika aldarrikatu ondoren ezarritako sistemarekin amaitzeko saioa abiatu zen. Estatu-kolpea ez zen inondik eta inora ere bat-batekoa izan: Errepublika aldarrikatu ondoren hasitako konspirazio antidemokratiko luze baten azkenengo gertakaria izan zen. Legezketasun demokratikoaren aurkako atentatu hark, konspirazioak bezala, izaera militar nabarmena izan zuen, bai eta inspirazio faxista ere, sare zibil garrantzitsuaren babesba izateaz gain nahiz Euskal Herrian nahiz estatuaren gainerako lurraldeetan.

Estatu-kolpeak porrot egin zuenez, gerra zibila hasi zen eta urteetan zigortu zen herria; amaitu zenean, diktadura hasi zen eta berrogei urte iraun zuen. Aldi hartan ehunka milaka lagunek pairatu zituzten gerraren eta diktaduraren ondorioak, hau da, barne-desplazamenduak egon ziren, erbestea, derrigortuta errekrutatu ziren asko eta asko, bombardaketak egin ziren, kartzela, konfiskatzeak, lan esklaboa, torturak, laidoak, exekuzioak, desagertuak eta jazarpenak... edozein aitzakiaren ondorioz.

Baina, militarrek gizarte zibilaren zatirik erreakzioarioarekin babesarekin emandako estatu-kolpearen jatorriaren berri izateko, beharrezkoa da 1936 hasierara jotzea, UME

## 1.1. MARCO HISTÓRICO: EL GOLPE DE ESTADO EN EUSKAL HERRIA

En los días 17 y 18 del mes de julio del año 1936 tuvo lugar la consumación del intento para poner fin al sistema establecido tras la proclamación de la II República. El Golpe de Estado, en absoluto espontáneo, suponía el último episodio de una larga conspiración antidemocrática iniciada tras la proclamación de la República. Este atentado contra la legalidad democrática, al igual que la conspiración, tenía un marcado carácter militar y una clara inspiración fascista además de gozar del apoyo de un importante entramado civil, tanto en el País Vasco como en el resto del estado.

El fracaso del golpe de estado provocaría una guerra civil que castigaría a la población durante años y que al finalizar daría paso a una dictadura que se extendería durante cuatro décadas. A lo largo de todo ese periodo, cientos de miles de personas sufrieron las consecuencias de la guerra y la dictadura, en forma de desplazamiento interno, exilio, reclutamiento forzado, bombardeos, prisión, incautaciones, trabajo esclavo, torturas, vejaciones, ejecuciones, desapariciones y persecuciones bajo cualquier pretexto.

Sin embargo, para conocer el origen del golpe de estado perpetrado por los militares con el apoyo de la parte más reaccionaria de la sociedad civil es necesario retrotraerse a los



Carmona. Comissió Oficial D'Ajut a Euzkadi. 1937 (Graf. Ultra S.A. Barna).



(Unión Militar Española) taldearen lehenengo bileretara. Gobernu errepublikanoak gai militar eta sozialetan ezartzen zituen politikekin ados ez zeuden militarren taldea zen, izaera antidemokratiko nabarmena zuen eta ezkertiarren aurkakoa ere bai. Talde hark zerikusi garbia izan zuen Sanjurjoren estatu-kolpearen saiakera zapuztuan, otsail hasieran hasi ziren bilera egiten eta fronte popularra koalizioak hauteskundeak irabazi eta egun gutxira errepikatu ziren<sup>1</sup>.

Denbora igaro eta negoziazio luzeak egin ondoren, konspiratzaile militar eta zibilek euren ahaleginak elkartzea erabaki zuten helburu bat eta berarekin: Errepublikaren erregimen demokratikoa amaierazi, euren interesen aurka baitzegoen argi eta garbi. Militarrek ez zuten galdu nahi bizitza politikoa izandako funtsezko zeregina, eta Estatuaren zerbitzura zegoen segurtasun indar bihurtzerik ere ez zuten nahi<sup>2</sup>.

Sare zibilean zeuden tradizionalismoa, falangismoa eta Elizaren zati garrantzitsu bat. Lehenengo helburua erabat antiliberalista zen, hau da, foruak berreskuratzea eta euren erregegaia tronura eramatea; falangistak, aldiz, espainiar faxismoaren ordezkari nagusiak ziren eta Estatu-tako aparatua menderatu nahi zuten, euren programa nazional-sindikala ezartzeko. Azkenik, Elizaren ustez, erakunde errepublikanoek sustatzen zuten laiktasunak erasia zen Elizaren beraren gizarte-zereginari eta pribilegioei<sup>3</sup>.



**Nafar erreketearen ariketa miliarrak, 1935eko irailean. Aurreko lerroan, Jaime del Burgo erreketeko aurreratua (Pablo Larraz agiritegia. *Requetes de las trincheras al Olvido* de Pablo Larraz Andía liburutik aterea, Victor Sierra-Sesúmagá) / Ejercicios militares del Requeté navarro en septiembre de 1935. En Primer término, el adelantado del Requeté Jaime del Burgo (Archivo Pablo Larraz. Extraída del libro *Requetes de las trincheras al Olvido* de Pablo Larraz Andía, Victor Sierra-Sesúmagá).**

Sektore hauek guztiek bat egin zuten legezkotasun errepublikano demokratikoari aurka egiteko eta hori izan zen euren ahaleginak koordinatzeko lotura; izan ere, xe-

inicios de 1936 y las primeras reuniones de la UME, *Unión Militar Española*, un grupo de militares contrarios a las políticas desarrolladas desde el gobierno republicano en cuestiones militares y sociales con un marcado carácter antidemocrático y anti izquierdista. Este grupo, con claras implicaciones en el intento frustrado de golpe de estado de Sanjurjo, comenzaría a tener reuniones a principios de febrero, y se volverían a repetir a los pocos días de la victoria electoral de la coalición frente populista<sup>1</sup>.

Con el paso del tiempo y tras una serie de largas negociaciones, los conspiradores militares y civiles decidirían aunar esfuerzos con un mismo objetivo: acabar con el régimen democrático que encarnaba la República y que atentaba directamente contra sus intereses. Los militares no querían perder el papel determinante que habían ejercido en la vida política y convertirse en una fuerza de seguridad al servicio del Estado<sup>2</sup>.

En el entramado civil encontramos el tradicionalismo, el falangismo y una parte importante de la iglesia. El objetivo de los primeros, marcadamente antiliberales, era la recuperación de los fueros y la entronización de su pretendiente; por otra parte los falangistas, máximos representantes del fascismo español, pretendían la dominación del aparato estatal para la instauración de su programa nacional-sindical. Por último, la iglesia veía en el laicismo propugnado desde las instituciones republicanas un ataque directo a su papel social y a sus privilegios<sup>3</sup>.

Todos estos sectores encontraron en su oposición a la legalidad democrática republicana el nexo de unión para coordinar esfuerzos, y es que, aun teniendo distintos objetivos, todos pasaban por acabar con la legalidad surgida de las elecciones. Es por ello que, hasta que deciden unir sus fuerzas, se pueden apreciar diferentes planes para poner fin al gobierno democrático. Así, los tradicionalistas tenían el suyo al igual que ocurría con los falangistas y los militares, e hicieron falta una serie de negociaciones para la coordinación de todas las tramas en una, algo que no se produciría hasta poco antes de la sublevación de julio de 1936.

En Hegoalde, la sublevación tuvo un desarrollo desigual en función de la provincia, diferenciándose claramente dos bloques en función del triunfo o fracaso de la misma. Dentro del primer bloque, en el que triunfó la sublevación, encontramos los territorios de Nafarroa y Araba, provincias caracterizadas por la fuerza que tenía el tradicionalismo entre sus habitantes. Mientras que en el segundo bloque, allí donde no triunfó la sublevación, se encontraban los territorios de Bizkaia y Gipuzkoa, provincias donde el nacionalismo vasco y las fuerzas de izquierda eran las opciones políticas con más fuerza.

No obstante, dentro de cada bloque se aprecian diferencias en el desarrollo o fracaso del golpe de estado. Allí donde no llega a triunfar la sublevación se observan dos escenarios, el vizcaíno, donde ni tan siquiera se llegó a producir debido al papel desempeñado por las autoridades, destacando el gobernador civil José Echevarria Novoa. En cambio en suelo

<sup>1</sup> URGOITIA, J.A.: *Crónica de la guerra civil, de 1936-1937, en la Euzkadi peninsular*, (2001)

<sup>2</sup> TAMAMES, R.: *Breve historia de la Guerra Civil española*, (2011)

<sup>3</sup> *Ibid.*

deak desberdinak ziren arren, hauteskudeen ondoriozko legezkotasuna amaitzea nahiaezkoa zuten denek. Hori dela eta, indarrak elkartzea erabaki zutenera arte hainbat plan sortu zituzten gobernu demokratikoari amaiera emateko. Tradizionalistek euren plana zuten, baina falangistek eta militarrek ere bai, eta zenbait negoziazio egin behar izan zituzten plan denak koordinatu eta bateratzeko; 1936ko uztaileko altxamendua baino apur bat lehenago gertatu zen hori.

Hegoaldean altxamenduak ez zuen bilakabide berdina izan probintzia guztietan; bi bloke bereizi ziren, altxamenduaren garaipenaren edo porrotaren arabera. Altxamendua garaile izan zen blokean zeuden Nafarroa eta Araba: tradizionalismoak bertako biztanleengan zuen indarra zen probintzia horietako ezaugarria. Bigarren blokean, altxamenduak porrot egin zuenean, Bizkaia eta Gipuzkoa zeuden: bi probintzia horietan euskal abertzaletasuna eta ezkerreko indarrak ziren aukera politikorik indartsuenak.

Dena dela, bloke bakoitzaren barruan aldeak zeuden estatu-kolpearen aurrerabidean edo porrotean. Altxamenduak porrot egin zuen lurraldeetan bi egoera bereiz daitezke: Bizkaian ez zen altxamendurik ere egin, agintarien zereginaren ondorioz (batez ere Jose Echevarria Novoa gobernadore zibilararen zereginaren ondorioz). Gipuzkoan, aldiz, zalantzan egon ondoren konspiratzaile militarrek altxamendua egin zuten, baina boluntarioen eta agintarien ekintzari esker, erreboltaiei eutsi egin zitzaizen eta estatu-kolpea egiteko saiakera bertan behera geratu zen.

gipuzcoano, después de las dudas, los conspiradores militares se sublevan pero la acción de los voluntarios y las autoridades consiguen reducir a los rebeldes y poner fin al intento de golpe de estado.



Agirre Atotxako frontoian (Marin Funtsa, Gipuzkoako Agiritegi Orokorra) / Aguirre en el frontón de Atotxa (Fondo Marin, Archivo General de Gipuzkoa).



Larramendi kalea galdatza-harrien barrikadekin / Calle Larramendi con barricadas de adoquines (Urgoitia).

Altxamenduak porrot egin zuen lurraldeetan gertatu legez, garaile izan zen lurraldeetan ere egon ziren aldeak. Araban militarrek eta tradizionalistek probintziaren kontrola berehala eskuratu zuten arren, kolpeari erantzuteko geraldia eta greba-deialdiak egin ziren, baina jarraipen partzialaren eta matxinoek erakundeak hartzearen ondorioz, altxamenduekin amaitzea eragotzi zen. Aldiz, Nafarroan altxamendua garaile izan zen ia inolako erresistentziarik gabe, nahiz eta gune jakin batzuetan (Erribera, esaterako) erresistentzia egin zen (halere, berehala hartu zituzten mendean). Askok izan ziren probintzia utzi eta fronte batean edo bestean borrokatu zirenak estatu-kolpeak porrot egin eta gerra zibila hasi zenean; aipagarria da, halaber, errepresioa zenbaterainokoa izan zen lurralde hartan, gerrako frontierik izan ez arren, 3.000 hildako baino gehiago egon baitziren.

Altxamenduaren jarraipen desorekatu horrek estatu-kolpearen porrota ekarri zuen, eta gerra zibila hasi zen Euskal Herrian; ondorioz, pertsonak lurralde batetik bestera mugitu ziren dela altxamendua ezartzeko, dela altxamenduari aurre egiteko. Era berean, barnean lekualdatzeak gertatu ziren: biztanleriaren zati handi bat lekualdatu zen toki seguruago baten bila, balizko gatazka armatuetatik edo jazarpen politikoetatik ihes egin nahian. Horrela hasi zen gatazka armatua, hamaika hilabetez herrialdea eta bertako biztanleria suntsitu zituena. Gerra amaitu zenean diktadura luzea hasi zen, demokrazia eta askatasuna amaituz.

### 1.1.1. ALTXATUEN AURRERAPENA ETA GIPUZKOAREN OKUPAZIOA

Emilio Mola jeneralak uztailaren 19an Iruñean gerra-egoera ezarri ondoren, gipuzkoar kuarteletako konspiratzaileek altxamenduekin bat egiteko txanda zen. Aurreko egunean agindu zitzairen militarrei Gobernu Zibiletik kuarteletan egon zitezela eta gau hartan bertan ezkerreko erakundeetako kideek zenbait armategitan lapurretak egin zituzten euren militanteak armatzeko. Biharamunean legezketasunaren ondoan kokatu ziren segurtasun-indarrak, bakarrik utziz probintzian altxamendua nagusi izateko kolpea eman behar zuten militarrek. Hau izan zen, agintarien batzorde bat sortzearekin batera, Gipuzkoako lurraldean altxamenduak izan zuen lehenengo porrota<sup>4</sup>.

Kolpistek izan zuten porrota ikusita, gipuzkoar agintariak uztailaren 20an zutabe bat eratzea erabaki zuten boluntarioekin eta ordena-indarrekin, Arabako altxamendua amaitzeko. Hilaren 21ean altxamenduaren aldeko militarrek aukera aprobetxatu zuten berriro ere altxamendua abian jartzeko. Vallespin teniente koronelak Donostia bombardatuko zuela mehatxatu zuen, Gobernu Zibilak probintziaren kontrola ematen ez bazion; ondorioz, agintariak hiriburua utzi zuten eta Eibarrera joan ziren, indar leialek hiria defendatzen zuten bitartean. Aldi berean, Gasteizera zihoan zutabeak bazekien hiriburuan zer gertatu zen eta buelta hartzea erabaki zuen, altxatutako militarrei aurre egiten ari ziren indarrei laguntzeko; bada, hainbat egunez militar matxinoak kuarteletan setiatuta edukitzea lortu zuten. Horiek, erabat lur-jota, euren buruak entregatzea erabaki zuten uztailaren

Al igual que se aprecian diferencias en los territorios donde la sublevación fracasa, se pueden apreciar también donde esta triunfa. En Araba, aunque rápidamente los militares y tradicionalistas se hacen con el control de la provincia, el golpe es contestado con el llamamiento a los paros y a la huelga, pero el seguimiento parcial y la toma de las instituciones por los sublevados impide que se acabe con la sublevación. Por el contrario, en Navarra la conspiración triunfa sin encontrar apenas resistencia, salvo en algunas zonas determinadas (rápidamente reprimidas), como en la ribera navarra. Este hecho quedó plasmado en la cantidad de personas que abandonarían la provincia para combatir en los distintos frentes que se fueron estableciendo una vez fracasado el golpe de estado y comenzada la guerra civil, así como en el grado de intensidad que alcanzaría la represión en un territorio que, sin ser frente de guerra, sumó más de 3.000 muertos.

Este desigual seguimiento de la sublevación vino a suponer, en consecuencia, el fracaso del golpe de estado y el inicio de la guerra civil en el País Vasco, provocando la movilización de personas de un territorio a otro, ya fuera para imponer la sublevación o para combatirla. De igual forma, provocaría el desplazamiento interno de una parte muy importante de la población en busca de un espacio seguro que les protegiera de posibles enfrentamientos armados o de persecuciones de tipo político. Y es así como da comienzo un conflicto armado que asolaría tanto el país como a sus habitantes durante once meses, y que concluida la contienda daría paso a una larga dictadura que pondría fin a la democracia y a la libertad.

### 1.1.1. EL AVANCE SUBLEVADO Y LA OCUPACIÓN DE GIPUZKOA

Después de que el general Emilio Mola declarara el estado de guerra en Pamplona el día 19 de julio, llegaba el turno para que los conspiradores de los cuarteles guipuzcoanos se sumaran a la sublevación. El día anterior, se había dado desde el Gobierno Civil la orden a los militares de permanecer acuartelados, y esa misma noche integrantes de distintas organizaciones de izquierda asaltarían varias armerías para armar a sus militantes. Al día siguiente las fuerzas de seguridad se posicionaban junto a la legalidad, dejando en solitario a los militares que tenían la misión de llevar a cabo el golpe que hiciera triunfar la sublevación en la provincia. Esto, unido a la creación de una junta de autoridades, supondría el primer fracaso de la sublevación en suelo guipuzcoano<sup>4</sup>.

En vista del fracaso sufrido por los golpistas, las autoridades guipuzcoanas decidían formar el día 20, una columna compuesta por voluntarios y fuerzas del orden para acabar con la sublevación en la provincia de Araba. El día 21, los militares partidarios de la sublevación aprovechaban la oportunidad para poner en marcha de nuevo la sublevación. El teniente coronel Vallespin amenazaría con bombardear Donostia, si desde el gobierno civil no se le hacía entrega del control de la provincia, lo que provocaría que las autoridades abandonaran la capital para dirigirse a Eibar, mientras las fuerzas leales defendían la ciudad. A su vez, la columna que se dirigía a Gasteiz conocía lo sucedido en la capital y

<sup>4</sup> BARRUSO, P.: *El comienzo de la Guerra Civil en Euskadi a través de los documentos diplomáticos franceses*, (2003).



Plasencia brontzeko 210 kanoia milizianoak gainean dituela (Urgoitia, I. alea, 212. or.) / Cañón 210 de bronce Plasencia con los milicianos encima (Urgoitia, tomo I, pág. 212).

28an, eta behin betiko egin zuen porrot probintziako altxamenduak<sup>5</sup>.

Gipuzkoan konjuratuek probintzian altxamendua aurrera egiterik lortu ez zutenez, Molak egoerara egokitu behar izan zuen, eta Gipuzkoaren inbasio militarra prestatu. Konspirazioaren *Zuzendariak* militar ugari behar zuen, bere hasierako planetan Madril erasotzeko erabili behar zituen arren.

Matxinatuak Gipuzkoa aldera zihoazela, legezketasunaren aldekoek erakundeak antolatu zituzten matxinoei modu eraginkorrean aurre egiteko. Berehala agertu ziren defentsako batzordeak Donostian, Eibarren eta Azpeitian<sup>6</sup> gerrako ahalegina koordinatzeko. Era berean, erakunde politikoak eta sindikatuak boluntarioen lehenengo batailoiak eratzen hasi ziren eta defentsarako elementuak eraikitzen hasi ziren geografia osoan, altxatutako tropei aurre egiteko probintzian aurrera egiten zuten heinean.

Gipuzkoaren inbasiorako, matxinatuak lau zutabe antolatu zituzten altxatutako militarrekin, boluntario erreketeeekin eta falangistekin. Horiek izan ziren etorkizuneko *Nafarroako Brigaden* ernamuina, funtsezkoak altxatutako armadarentzat euskal lurralde osoa konkistatu eta mendean hartzeko. Uztailaren 22an abiatu ziren Gipuzkoarekin muga egiten zuten hainbat nafar gunetatik, lurralde hura mendean hartzeko.

decidían dar la vuelta para socorrer a las fuerzas que se enfrentaban a los militares sublevados, consiguiendo sitiar a los militares rebeldes en los cuarteles durante varios días. Estos finalmente, y totalmente desmoralizados, decidían entregarse el 28 de julio, fracasando definitivamente la sublevación en la provincia<sup>5</sup>.

Como consecuencia de la incapacidad de los conjurados guipuzcoanos de lograr el triunfo de la sublevación en la provincia, Mola se veía en la obligación de adaptarse a las circunstancias y preparar la invasión militar de Gipuzkoa. Para ello, el *Director* de la conspiración tendría que destinar un gran número de militares que en sus planes iniciales debían utilizarse en un rápido asalto sobre Madrid.

Mientras los sublevados avanzaban sobre Gipuzkoa, los defensores de la legalidad fueron organizando distintos organismos para combatir de manera efectiva a los sublevados. En seguida aparecieron juntas de defensa en Donostia, Eibar y Azpeitia<sup>6</sup> para coordinar el esfuerzo bélico. De igual modo, las organizaciones políticas y sindicales comenzaban a dar forma a los primeros batallones de voluntarios, y se iniciaba la construcción de elementos defensivos a lo largo y ancho de la geografía para combatir a las tropas sublevadas en su avance por la provincia.

<sup>5</sup> BARRUSO, P.: *El comienzo de la Guerra Civil en Euskadi a través de los documentos diplomáticos franceses*, (2003).

<sup>6</sup> BUCES CABELLO, J. *Eusko Gudarostea, Eusko abertzaleak, armak eskuan, Espainiako militarren altxamenduaren aurka*, (2017).



Milicianoak borrokan hasteko prest Polloeko hilerrian (Urgoitia, I. alea, 213. or.) / Milicianos en posición de combate en el cementerio de Polloe (Urgoitia, tomo I, pág. 213).

Hasieran hiriburura iristea zen beren xedea, altxatu ziren militarrei laguntzeko; baina, kuartelak errenditu egin zirenez, argi zegoen okupazioa ez zela izango hasiera batean uste zuten bezain erraza. Horren adierazgarri da probintziaren beste muturrera, Bizkaiarekin muga egiten zuen aldera, ez zirela iritsi urrira arte. Hara iritsi aurretik boluntarioen erresistentzia irmoa eta sendoa izan zuten, eta borroka handiak izan ziren Irunen, *Aiako Harrian*, *Andatzan*, *Belkoaien*, *Zaraten*, *Txaldatxurren*, *Kalamuan*, *Arraten*... Azkenik, milizianoen eta gudarien erresistentziari esker matxinoen aurrerakada geratu zen Intxorta mendietan edo Ziardamendin.

Para la invasión de Gipuzkoa los sublevados organizaron cuatro columnas que integraban a militares sublevados y voluntarios requetés y falangistas. Estas constituirían el embrión de las futuras *Brigadas de Navarra* que serían fundamentales para el ejército sublevado en la conquista y dominación de todo el territorio vasco. El día 22 de julio partieron desde distintos enclaves navarros limítrofes con Gipuzkoa con la intención de dominar este territorio. En un principio, su objetivo era la llegada a la capital para ayudar a los militares que se habían sublevado, pero ante la rendición de los cuarteles se hace patente que la ocupación no sería tarea fácil, como pudieron suponer en un primer momento. Muestra de ello es que no llegaron al extremo opuesto del territorio en su límite con Bizkaia hasta el mes de octubre, no sin antes haber tenido que enfrentarse con la decidida y fuerte resistencia de los voluntarios que defendían la provincia en sonados combates como los de Irun, *Aiako Harria*, *Andatza*, *Belkoain*, *Zarate*, *Txaldatxur*, *Kalamua*, *Arrate*,... Finalmente, la resistencia de milicianos y gudaris conseguía detener el avance sublevado en zonas como los montes Intxortas o Ziardamendi.



Intxortako gaina 36ko gerra garaian (Urgoitia, II. alea, 113. or.) / Cumbre de Intxorta durante la Guerra del 36 (Urgoitia, tomo II, pág. 113).

### 1.1.2. MOLAREN ERASOA BIZKAIAN

Legezotasun demokratikoaren alde kokatu ziren erakundeek mobilizatutako boluntarioei esker, matxinatuek Gipuzkoako mugetan egiten zuten aurrerapena mantsotzea eta geratzea lortu zen, eta Bizkaian eratu zen urriaren hasieran lehenengo Eusko Jaurlaritza. Gobernu hark defentsako batzordeak ordezkatu zituen eta lurraldearen defentsaren eta atzeguardiako bizitzaren kargu egin zen.

### 1.1.2. LA OFENSIVA DE MOLA SOBRE BIZKAIA

Gracias a los voluntarios movilizados por las distintas organizaciones que se posicionaron junto a la legalidad democrática, se conseguía ralentizar y detener el avance sublevado en los límites de Gipuzkoa, y se constituía en Bizkaia a principios de octubre, el primer Gobierno Vasco. Este gobierno tomó el relevo de la juntas de defensa haciéndose cargo de la defensa del territorio y la vida en la retaguardia.




Eusko Jaurlaritzako sailburuen bilera, Agirre lehendakaria buru dela (Urgoitia, III. alea, 27. or.) / Reunion de consejeros del Gobierno Vasco presidido por el lehendakari Aguirre (Urgoitia, tomo III, pág. 27).

Atzeguardiako bizitza normaltasunaren barruan egiten zen bitartean, frontean kokapenak egonkortu egin ziren eta 1937ko martxoaren amaierara arte tiro bakan batzuk baino ez ziren entzun, 1936 amaieran eta 1937 hasieran Legutio izandako erasoak alde batera utziz gero; eraso haren xedea Gasteiz aldera aurrera egitea zen, bai eta beste fronte batzuk lasaitzea ere. Operazio militarrek ez ziren berriro hasi 1937ko martxoaren 31ra arte, eta egun hartan bertan hasi ziren biztanleria zibila bonbardatzen, hala nola, Durangon.

Altxatutako armadak lurraldea okupatzeko hasi zituen operazio militarren eta Lemoatxeko borrokaren artean, Bizkaian borroka ugari izan zen, balio estrategiko handiko zonaldeak kontrolatu ahal izateko. Horren ondorioz, toki hauetako askoren izena euskal memoria kolektiboan geratu da betiko: Sabigain, Bizkargi, Jata edo Sollube izenek gure oroitzapenean jarraituko dute erresistentziaren ikur gisa. Nolanahi ere den, Bizkaian gerraren memorian nabarmentzen den toki bat baldin badago, hori Gernika da; izan ere, apirilaren 26an italiar eta alemaniar bonbez eraso zuten, udalerría suntsitu egin zen, eta hainbat eta hainbat hil ziren.

Mientras que la vida en la retaguardia transcurría dentro de la normalidad que la guerra permitía, en la línea de frente, las posiciones se estabilizaban limitándose a intercambios aislados de disparos hasta finales de marzo de 1937, con la excepción de la ofensiva llevada a cabo a finales de 1936 y principios de 1937 sobre Legutio, y que tenía por objetivo el avance sobre Gasteiz, así como la descongestión de otros frentes. Las operaciones militares no se reanudarían hasta el 31 de marzo de 1937, y este mismo día comenzaron los bombardeos sobre población civil como el sufrido por los habitantes de Durango.

En el tiempo que transcurre desde la reanudación de las operaciones militares de los sublevados para la ocupación del territorio vasco y la batalla de Lemoatx, Bizkaia sería testigo de enfrentamientos y combates por el control de las zonas de mayor valor estratégico. A consecuencia de ello, muchos de estos lugares dejarían su nombre escrito para siempre en la memoria colectiva vasca. Nombres como Sabigain, Bizkargi, Jata o Sollube, que permanecerán en el recuerdo como símbolos de la resistencia. Aunque si hay algún nombre que destaca en la memoria de la guerra en Bizkaia ese es sin



Bilboko "defentsarako gerrikoaren" erliebearen planoa (Urgoitia, III. alea, 456. or.) / Plano de relieve del "Cinturón de Defensa" de Bilbao. (Urgoitia, tomo III, pág. 456).



Bonbardatutako Durangoren ikuspegia italiar hegazkin batetik (Guerra Civil en Durango 1936-1937, Jon Irazabal Aguirre) / Vista de Durango bombardeado desde un avión italiano (Guerra Civil en Durango 1936-1937, Jo Irazabal Aguirre).

Handik aste batzuetara, matxinatutako armada Bilbo aldera aurrera zihoala, suak Amorebieta-Etxano kiskali zuen eta, Gernikan gertatu bezala, kolpistek gudariei eta *Eusko Gudarosteko* milizianoei egotzi nahi izan zien erreketa. Maiatzaren erdi aldera gertatu zen hori eta handik gutxira gerraren alderdirik odoltsuena Lemoara iritsi zen. Handik egun batzuetara erori ziren lehenengo bonbak udalerrira: etortzeaz zenaz ohartarazten ari ziren.

duda el de Gernika, que el día 26 de abril era atacada por las bombas italianas y alemanas que provocaron la destrucción de la localidad y la muerte de un gran número de personas.

Semanas más tarde, en el avance del ejército sublevado sobre Bilbao, la localidad de Amorebieta-Etxano era consumida por las llamas y al igual que ocurrió con Gernika, los golpistas intentaron culpar de la quema de la ciudad a los guardias y milicianos del *Ejército Vasco*. Esto ocurría a mediados del mes de mayo y no sería necesario esperar demasiado para que la cara más sangrienta de la guerra alcanzara Lemoa. Varios días después, las primeras bombas caían sobre la localidad a modo de aviso de lo que estaba por llegar.



Lemoako ibarra, 1948 / El valle de Lemoa, 1948.

## 1.2. MARKO GEOGRAFIKOA

Lemoatxeko gudua Bizkaiaren erdigunean izan zen, Amorebieta-Etxano, Lemoa eta Bedia udalerrien artean. Mendebaldetik ekialdera doan mendigunea da, kareharrizko zenbait gailur ditu eta Ganzabal, Irabide eta Lemoatx nabarmentzen dira. Gailur nagusiez gain, badira bigarren mailako beste batzuk ere, eta horietan ere borroka izan ziren; esaterako, Ixerango edo Santa Ana gainean.

Lemoatxeko gailurrik garaiena Ganzabal da eta 368 metro ditu. Forma biribila du gailurrak eta Zornotzako auzotik joaten da bertara malda leun batean gora, Ixerango dago tartean<sup>7</sup>, eta Ganzabal eta inguruko zona izan zen *Eusko Gudarosteak* Lemoatx berreskuratzeko zailena.

Hurrengo garaiera gailurra bera da, gainerako mendilerroari izena ematen diona: Lemoatx. 365 metro ditu eta Ganzabalek bereizita dago 300 metro inguruko lepo baten bidez; gainerako inguruko mendietatik bere gailur malkartsuagatik bereizten da. Lemoan San Antolin ere esaten zaio gailur horri, santu horri eskainitako basiliza bat dagoelako. Gailur honetan izan ziren borrokaldirik gogorrenak, eta eskuz gehien aldatu zen kokapena ere izan zen; jendeak esaten du eguneko matxinatuek erasotzen zutela eta gauez gudariak berreskuratzen zutela.

Hirugarren gailurra Irabide da, 306 metrokoa. Ganzabalek 350 metro ingurura dago. Garaiera honetatik Lemoatx aldera dago San Antolinetxe eta, San Antolin basilizarekin batera, hori izan zen lehenengo lerroa.

Bigarren garaiena Ixerango muturra da, 223 metrokoa. Ganzabal eta Zornotza auzoaren artean dago, erdibidean, eta hortik abiatu ziren matxinatutako armadaren eraso guztiak Lemoatx okupatzeko.

## 1.2. MARCO GEOGRÁFICO

El escenario en el que tuvo lugar la batalla de Lemoatx se encuentra en el centro de Bizkaia entre los municipios de Amorebieta-Etxano, Lemoa y Bedia. Se trata de un macizo montañoso que discurre de oeste a este formado por una serie de crestas de origen calizo entre las que destacan Ganzabal, Irabide y Lemoatx. Además de las cotas principales, otras cotas secundarias serán escenario de los enfrentamientos contra los sublevados como la de Ixerango, o el alto de Santa Ana.

La cima más alta de Lemoatx es la de Ganzabal con 368 metros. La cumbre presenta una forma redondeada a la que se tiene acceso desde el barrio de Zornotza a través de una suave pendiente que solo se interrumpe por la aparición de Ixerango<sup>7</sup>. Ganzabal y la zona que lo rodea será la zona que más dificultad presente al *Ejército Vasco* en sus intentos por recuperar Lemoatx.

La siguiente en altura es la propia cima, que da nombre al resto del macizo montañoso, Lemoatx, que con 365 metros y separada de Ganzabal por un collado de unos 300 metros, destaca sobre las demás estribaciones por el carácter abrupto de su cumbre. Esta elevación también es conocida en Lemoa como San Antolin por albergar la ermita dedicada a este santo. Esta cima será el escenario de los combates más encarnizados de toda la batalla, y será la posición que más veces cambie de mano, dando origen al recuerdo de que los sublevados la atacaban durante el día y los gudaris la recuperaban durante la noche.

La tercera en altura es Irabide de 306 metros de altura. La separan unos 350 metros de la Ganzabal. Desde esta altura en dirección a Lemoatx encontramos San Antolinetxe, que junto con la ermita de San Antolin constituiría una primera línea de fuego.

<sup>7</sup> BELDARRAIN, P.: *Historia crítica de la guerra en Euskadi (1936-37)*, (2012).





Lemoatxeko parrokia, 1961 / Parroquia de Lemoatx, 1961.

Lemoatx zenbait faktore estrategikoren ondorioz zen garrantzitsua, baina hauek nabarmentzen dira: bi ibai-arro garrantzitsuk bat egiten dute, inguruko errepideak zaintzeko aukera ematen zuen, trenbidea eta tranbia kontrolatzeko aukera eta, azkenik, Burdin Hesiaren ondoan zegoen. Lehen mailako behatokia zen, beraz.

Lemoatxen oinetan, Lemoako herrigunearen ondoan, Ibaizabal ibaiak eta bere adarretako batek, Arratiak, bat egiten dute; beraz, mendigunearen gailurretatik Arratia bailara eta Ibaizabal bailararen zati handi bat ikusten dira.

Lemoatxen goiko aldetik Bizkaiko hiriburua Gipuzkoarekin eta Arabarekin lotzen duten errepiderik nagusiak ikusten dira. Bilbotik Donostiarako errepidea Lemoatx inguratuz doa, mendigunearen eta Amorebieta-Etxanoren artean. Bilbotik Gasteizerakoak ere mendigune hori bera inguratzen du, baina beste aldetik, Arratia bailararaino, eta gero Gasteizeraino jarraitzen du. Komunikabide honek garrantzi estrategikoa ere bazuen, Bilbora zuzeneko pasabidea bermatzeaz gain bide laburragoa ere bermatzen baitzuen errefuxiatuentzat eta Arratiako herrietatik ebakuatuentzat.

Lemoatxetik Bilbo eta Donostia arteko trenbidea ere mendearen hartzen zen, bai eta Arratiako tranbia ere; hau da, bailara horretako herriak eta Lemoa lotzen zituen.

Gainerako faktore estrategikoetatik nabarmentzen zen bat ere bazegoen, ordea: Bilbo defendatzeko gerrikitik gertu zegoen, Lemoatx *El Gallo* kokapenetik 5 kilometro eskasera baitago.

El espolón de Ixerango, es el siguiente en altura con 223 metros. Se encuentra a media pendiente entre Ganzabal y el barrio de Zornotza y será el lugar desde el que partan los ataques del ejército sublevado para ocupar Lemoatx.

La importancia de Lemoatx residía en distintos factores estratégicos entre los que destacan: la confluencia de dos importantes cuencas fluviales, la posibilidad de vigilar el tránsito de las carreteras que la bordean, el control de las líneas del ferrocarril y del tranvía, y por último, su situación junto al cinturón de hierro, que lo convierten en un observatorio de primer orden.

A los pies de Lemoatx, junto al núcleo urbano de Lemoa, confluyen el río Ibaizabal y su afluente el río Arratia, por lo que desde las distintas crestas del macizo montañoso se dominan los valles de Arratia y gran parte del valle del Ibaizabal.

Desde las alturas de Lemoatx se dominan las principales carreteras que conectan la capital vizcaína con los territorios de Gipuzkoa y Araba. La carretera de Bilbao a Donostia pasa bordeando Lemoatx en la zona comprendida entre el macizo y la localidad de Amorebieta-Etxano. Mientras que la carretera entre Bilbao y Gasteiz bordea la montaña por el lado opuesto hasta alcanzar el valle de Arratia, por donde continúa hasta la capital de Araba. Esta vía de comunicación tenía además una importancia estratégica, ya que garantizaba un paso directo y más corto hacia Bilbao para los refugiados y evacuados de las poblaciones arratianas.

El otro tipo de vías de comunicación que quedaba dominado desde Lemoatx eran las del ferrocarril vascongado entre Bilbao y Donostia y la del llamado tranvía de Arratia que conectaba las localidades del valle homónimo con Lemoa.

Junto al resto de factores estratégicos uno de ellos sobresalía sobre el resto. Concretamente la proximidad de la posición al cinturón defensivo de Bilbao, ya que Lemoatx estaba a 5 kilómetros escasos de la posición de *El Gallo*.



San Antolin baseliza, Lemoatx, 1958 / Ermita de San Antolin en Lemoatx, 1958.

### 1.3. LEMOAKO DEFENTSA-SISTEMA

Azken urteetan Lemoako Udalak abian jarri duen ekimenetako bat izan da gerra zibileko lubakiak ikertzea, berreskuratzea eta balioan jartzea, guduak izan baitziren lubaki horietan eta matxinatutako armadaren aurrerapeña oztopatu baitzen Bilbo okupatzera zihoanean. Horiek gogoan, denboraren iraganak eta naturak pixkanaka ezkutatu duen defentsarako sistema hori nolakoa ote zen galdetzen hasi ginen; izan ere, adituen begietara erresistentziaren orbanak esan diezaiekegun aztarna txiki batzuk baino ez zeuden. *Eusko Gudarosteak* Lemoatxen eraikitako defentsarako sistema nolakoa izan zen jakiteko, ezinbestekoa da *Azkatasuna* memorieta jotzea eta gerra ondoren Indalecio Ojanguren<sup>9</sup> egindako argazkietara jotzea.

Altxatutako armadaren eta *Eusko Gudarostearen* arteko borrokak izan ziren euskal geografiako gainerako tokietan bezala, Lemoatxen ere ez zegoen defentsarako sistemarik gudariek eta milizianoek altxatutako armadaren erasoer aurre egiteko. Molak Bizkaiaren aurka egin zuen erasoaren hasieran, kanpoko defentsarako lerro bat zegoen 1936ko uda amaieran frontea egonkortu zen tokietan eta Bilbo babesteko amaitzen ari ziren defentsarako gerrikoan. Borroka armatuak egon ziren gainerako toki guztietan eginez joan ziren gotorleku moduko batzuk, frontearen lerroa gerturatzen ari zen heinean. Hori gertatu zen Lemoatxen ere, ez baitzuen defentsarako sistemarik izan lehenengo borrokak izan baino astebete lehenago arte.

### 1.3. SISTEMA DEFENSIVO DE LEMOA

Una de las iniciativas puestas en marcha desde el ayuntamiento de Lemoa en los últimos años ha sido la investigación, recuperación y puesta en valor de las trincheras de la guerra civil en las que se combatió y se detuvo el avance del ejército sublevado en su campaña para la ocupación de Bilbao. Ante ello, se plantea la cuestión de cómo era el sistema defensivo que el paso del tiempo y la acción de la naturaleza ha ido ocultando, dejando tan solamente a la vista del ojo experto el pequeño rastro de lo que podríamos llamar las cicatrices de la resistencia. Para saber cómo fue el sistema defensivo construido por el *Ejército Vasco* en Lemoatx, es necesario recurrir a las memorias inéditas del que llegara a ser comandante del batallón *Azkatasuna* Santiago Zubiaga<sup>8</sup> y a las fotografías tomadas en la posguerra por Indalecio Ojanguren<sup>9</sup>.

Al igual que ocurría con el resto de lugares de la geografía vasca, donde tuvieron lugar combates entre las fuerzas sublevadas y el *Ejército Vasco*, Lemoatx carecía de un sistema defensivo que posibilitara la resistencia de gudarís y milicianos frente a los ataques del ejército sublevado. Al inicio de la ofensiva de Mola contra Bizkaia, se contaba con una línea defensiva exterior en aquellos lugares donde se estabilizó el frente a finales del verano de 1936 y con el cinturón defensivo que protegía Bilbao que estaba por acabar. Todos los demás lugares donde hubo enfrentamientos armados fueron fortificados sobre la marcha, a medida que la línea del frente se acercaba. Esto mismo ocurrió en Lemoatx que no contaría con su sistema defensivo hasta una semana antes de que se produjeran allí los primeros combates.



**Lemoatxeko lubakiak /  
Trincheras en Lemoatx**  
(AGG-GAO OA 1632 © CC BY-SA:  
Ojanguren, Indalecio).

<sup>8</sup> ADDI: Ruiz de Aguirre artxiboa, Sabino Zubiagaren memoria batzuen kopia "Azkatasuna" batailoari buruz, ingeniarien 8.a, Burgosko presondegian idatziak 1941ean / ADDI: Archivo Ruiz de Aguirre, Copia de unas Memorias de Sabino Zubiaga sobre el batallón "Azkatasuna", 8º de ingenieros, escritas en la Penitenciaría de Burgos en 1941.

<sup>9</sup> *Gure Gipuzkoaren* argazki artxiboa / Archivo fotográfico de *Gure Gipuzkoa*.

Lemoatxeko gotorlekua 1937ko maiatzaren egun zen, zehatz esateko, maiatzaren 17tik 22ra, eta *Euskadiko Gudarestoaren* Ingeniarren 8. batailoia egin zuen, *Azkatasuna* batailoia esaten zitzaion hark. 1937an sortu zuen batailoia hori Eusko Abertzale Ekintzak (EAE) ingeniariaren batailoia bat izateko eta antzeko gainerako batailoiekin batera euren brigada eratzeko; izan ere, garai hartan Eusko Jaurlaritzak zituen indarrak brigadatan eta dibisiotan antolatzea erabaki zuen, ordura arte erabili zen sektoreen arabera eredu alde batera utziz<sup>10</sup>.

*Azkatasuna* batailoia Lemoatxen bere defentsarako sistema egin zuenean, Galdakaoko udal-eskoletan zuen kuartela eta bost konpainia zituen: horietako lau aritu ziren Lemoan gotorlekua egiten, hau da, 842 gudari guztira<sup>11</sup>. Batailoia hartan Lemoa bertako 17 lagun zeuden. Uste da lagun haiek, bertakoak zirenez eta ingurua ezagutzen zutenez, oso lagungarriak izan zirela batailoia arlo teknikoarentzat, defentsak diseinatzeko eta eraikitzeko. Handik egun gutxira Lemoatx kontrolatzeko borrokaren lekuko izango ziren.

Marko geografikoan esan den bezala, Lemoatxek balio estrategiko handia zuen, Ibaizabal eta Arratia ibaiak bat egiten zuten gunea baitzen eta, era berean, Bilbotik Gasteizera eta Donostiara zihoazen errepideak ere mendean hartzen baitzituen. Gune honetatik trenbidea eta Arratiako tranbia ere kontrolatzen ziren. Horiei guztiei funtsezko beste bi faktore gehitu behar zaizkie; batetik, Bilboko *defentsarako gerrikotik* gertu zegoen, Galdakaoko *El Gallon* baitzegoen

La fortificación de Lemoatx se realizó en pleno mes de mayo de 1937, más concretamente, entre los días 17 y 22 y fue realizada por el 8º batallón de Ingenieros del *Ejército de Euzkadi*, conocido informalmente como el batallón *Azkatasuna*. Este fue creado en abril de 1937 por Acción Nacionalista Vasca (ANV) para poder contar con un batallón de Ingenieros, y de esta manera poder constituir con el resto de sus batallones su propia brigada, ya que por aquellas fechas, el Gobierno Vasco había decidido organizar las fuerzas de las que disponía en brigadas y divisiones, dejando de lado el modelo de sectores que se había empleado hasta la fecha<sup>10</sup>.

Cuando el batallón *Azkatasuna* realizó el sistema defensivo en Lemoatx, tenía su cuartel en las escuelas Municipales de Galdakao y estaba compuesto por cinco compañías, cuatro de las cuales participarían de las labores de fortificación en Lemoa, sumando en total 842 gudarías<sup>11</sup>. Dentro de las personas encuadradas en este batallón había 17 vecinos de Lemoa. Es de suponer que estas personas, como vecinos de la localidad y conocedores del terreno, fueron una gran ayuda para los cuadros técnicos del batallón a la hora de diseñar y construir las defensas que pocos días después serían el escenario de la batalla por el control de Lemoatx.

Como se ha señalado en el marco geográfico Lemoatx tenía un alto valor estratégico, dominaba la confluencia de los ríos Ibaizabal y Arratia, al igual que dominaba las carreteras que van desde Bilbao a Gasteiz y la que conecta Bilbao con Donostia. Desde este punto también se controlaban las

## BIZILAGUN LEMOARRAK AZKATASUNA BATAILOIAN VECINOS DE LEMOA EN EL BATALLÓN AZKATASUNA

IZENA / NOMBRE	1GO ABIZENA / 1 APELLIDO	2. ABIZENA / 2 APELLIDO
GABRIEL	ABASOLO	IBARRONDO
TOMAS	ÁLVAREZ	FERNÁNDEZ
CLAUDIO	ARECHAGA	ARTEAGA
ANICETO	ARRAIBI	ORTUONDO
FERNANDO	ARTECHE	ELESPE
EVARISTO	ASTIGARRAGA	ZABALA
ROBERTO	BARRENECHEA	IZA
EUSEBIO	BELAUSTEGUI	ITURRIOZ
PEDRO	CAMARA	LINAZA
JUSTO	ECHEVARRIA	GALLANO
NICASIO	ECHEVARRIA	ITURRIOZ
FELIX	ECHEVARRIA	URQUIZA
PEDRO	ELORDUY	ITURRIOZ
EMILIANO	LAZPITA	BILBAO
GUILLERMO	URETA	AYESTA
SERAFÍN	URETA	AYESTA
EUSEBIO	URRUCHUA	AGUIRRE

<sup>10</sup> VARGAS, F. M.: "Los Batallones de los Nacionalismo Minoritarios en Euzkadi: ANV, EMB, STV (1936-1937)" en *Vasconia* nº 32, (2002).

<sup>11</sup> *Ibid.*

or.

gerrikoa; bestalde, Lemoatx mendean hartuz gero, Arratia bailarako jendea Bilbo aldera ebakutzeko zuzeneko bidea bermatzen zen. Horren guztiaren ondorioz, argi dago zergatik zen hain garrantzitsua *Eusko Gudarostearentzat* Lemoatx kontrolatzea eta zergatik zen hain garrantzitsua altxatutako tropek aurrera egin ez zezaten defentsarako sistema bat ezartzea.

Zubiaga komandantearen kontakizunaren arabera, Lemoatxen *Azkatasuna* batailoiko gudariek eta milizianoek eraikitako gotorlekuak ferra formako lubaki bat zuten, 375 eta

líneas del ferrocarril y la del tranvía de Arratia. A todo ello se le deben sumar dos factores fundamentales, el primero es su proximidad al *Cinturón defensivo de Bilbao* situado frente a la zona de El Gallo en Galdakao; el segundo factor, de carácter humanitario, es que el dominio de Lemoatx garantizaba una ruta directa para la evacuación de las poblaciones del valle de Arratia hacia la capital vizcaina. Por todo ello resultaba obvio la importancia que tendría su control para el *Ejército de Euzkadi* y en consecuencia la necesidad de dotarlo de un sistema defensivo para evitar el avance de las tropas sublevadas.



Lemoatxeko lubakiak /  
Trincheras en Lemoatx  
(AGG-GAO OA 1633 © CC BY-SA:  
Ojanguren, Indalecio).


400 metro lineal inguru zen, batez ere bere ipar eta ekialdeko isurialdetan zegoen, eremu hartan aurreikusten baitzen altxatuen eraso. Lubakian bertan metrilladoreentzat 6 habia egin ziren, eta infanteriarentzat 6 aterpe, biek pinuzko estalia zuten eta lur-geruza batekin estaltzen ziren. Defentsarako ia inolako erabilgarritasunik ez zuten bonbez eraso eginez gero, baina alor psikologikoan balio handia zuten, borrokan segurtasun aizuna eskaintzen baitzien defendatzaileei. Defentsarako elementu horiek indartzeko, "T" itxurako 8 aurreko talde zeuden, lubakitik bertatik irteten zirenak, eta hiru eskailera-mailako alanbre-hesien sistema bat ere bai<sup>12</sup>.

Hori zen, beraz, Lemoatxeko defentsa-sistemak 1937ko maiatzaren 22an zuen itxura. Egun gutxira hasi ziren altxatuen operazioak kokapen hori eskuratzeko eta berehala hasi ziren artilleriaren eta hegazkinen bonbardaketak, eta lehengo erasoek hasieratik izan zuten eragina gotorlekuetan. Borroka hasi zenean, bi gudarosteek bonbardatu zituzten lubakiak. Hasieran altxatuek bonbardatu zituzten, Lemoatx okupatzeko; gero *Eusko Gudarostearen* bonbardaketak eto-

Según el relato del comandante Zubiaga la fortificación construida en Lemoatx por los gudarís y milicianos del batallón *Azkatasuna*, estaba compuesta de una trinchera corrida en forma de herradura que media entre los 375 y los 400 metros lineales, situada principalmente en sus vertientes norte y este por ser la zona por la que presumiblemente se produciría el ataque sublevado. En la propia línea de trinchera se habían situado de forma alterna 6 nidos de ametralladora y 6 refugios para la infantería, ambos dotados de una cubierta realizada con pinos y que era tapada por una capa de tierra. La utilidad defensiva de estos dispositivos era prácticamente nula ante el ataque de las bombas, residiendo su valor en el plano psicológico, ya que en el fragor de la batalla ofrecían a los defensores una sensación de seguridad que era falsa. Estos elementos defensivos de la fortificación estaban reforzados con 8 avanzadillas en forma de "T" que salían desde la propia trinchera, y un sistema de alambradas compuesto de tres escalones<sup>12</sup>.

Este era, por tanto, el aspecto que presentaba el sistema defensivo de Lemoatx el 22 de mayo de 1937. Pero a los po-

<sup>12</sup> ADDI: Ruiz de Aguirre artxiboa, Sabino Zubiagaren memoria batzuen kopia "Azkatasuna" batailoari buruz, ingeniarien 8.a, Burgosko Penitentiarian idatziak 1941ean. / ADDI: Archivo Ruiz de Aguirre, Copia de unas Memorias de Sabino Zubiaga sobre el batallón "Azkatasuna", 8º de ingenieros, escritas en la Penitenciaría de Burgos en 1941.



Lemoatxeko defentsen eskema, Zubiagaren memorietatik aterata (Ruiz de Aguirre Funtsa) /  
Esquema de las defensas de Lemoatx extraído de las memorias de Zubiaga (Fondo Ruiz de Aguirre).

ri ziren, gudariak eta milizianoak babesteko, kokapen hori berreskuratzeke kontraeraso ugarietan. Berrito berreskuratu zutenean, altxatutako indarrek berrito eraso zituzten defentsarako lerroak airez eta lurrez, behin betiko okupatzea lortu zuten arte; dena dela, Lemoatxeko bonbardaketak ez ziren orduan amaitu, *Eusko Gudarostearen* kontraerasoek jarraitu egin baitzuten. Horrek esan nahi du bi armadetak batek gailurra kontrolatzen zuen bakoitzean erasoan egindako kalteak konpondu beharra zeukala, deuseztatutako lubakiak konpondu, lurrez betetako eremuak.

Euskal Herrian gerra zibila amaitu zenean, defentsarako sistemak ez zuen izateko arrazoirik eta Lemoatxeko borrokaren lekuko historiko mutu bihurtu zen. Denbora joan ahala, zortzi hamarkada igaro dira gertakari haietatik, naturak bete egin du saila eta gizakiak ere bere jarduerak egin ditu; ondorioz, paisaia aldatu egin da, baina oraindik ere hondar eta egitura garrantzitsuak daude inguruan.

cos días comenzaron las operaciones preparatorias de los sublevados para hacerse con el control de la posición, y enseguida empezaron los bombardeos de artillería y aviación que ya antes de los primeros ataques hicieron mella sobre las fortificaciones. Una vez iniciada la batalla, ambos ejércitos bombardearon las trincheras. En un primer momento fueron los sublevados para su ocupación, después llegarían los bombardeos del *Ejército de Euzkadi* como apoyo a los gudaris y milicianos en sus múltiples contrataques para la recuperación de la posición. Una vez recuperada de nuevo, las fuerzas sublevadas volverían a castigar las líneas defensivas desde tierra y aire hasta lograr la ocupación definitiva, que no supuso el fin de los bombardeos sobre Lemoatx ya que los contrataques del *Ejército Vasco* continuaron. Todo ello hace suponer, así mismo, que cada vez que

uno de los dos ejércitos lograba hacerse con el control de la cumbre, se veía obligado a reparar y rectificar los daños causados durante los ataques, zonas colmatadas de tierra, líneas de trinchera borradas, etc.

Una vez acabada la guerra civil en el País Vasco, el sistema defensivo perdió su razón de ser, viéndose relegado a ser un simple testigo mudo de la histórica batalla de Lemoatx. El paso del tiempo, ocho décadas han transcurrido desde que acontecieron los hechos, la colmatación natural del terreno y la acción humana que ha modificado el paisaje, no han impedido que todavía se conserven importantes restos y estructuras.



Lubakiak Lemoatxen / Trincheras en Lemoatx. (AGG-GAO OA 1634 © CC BY-SA: Ojanguren, Indalecio).

or.

## 1.4. BORROKAK

### 1.4.1. AURREZ AURRE ZEUDEN ARMADAK

#### 1.4.1.1. *Eusko Gudarostea*

Lemoatxeko borroka gertatu zenetan, herrialdeak hamar hilabete baino gehiago zeramatzan porrot egindako estatu-kolpearekin hasi zen gerran buru-belarri sartuta. Uztailean lehenengo boluntarioek kolpistei aurre egin zietenetik egoera aldatuz joan zen alor guztietan, eta gerraren egoerara egokitu zen. Aldaketetako bat autonomia lortzea izan zen eta horrela sortu zen lehenengo Eusko Jaurlaritza. Lehenengo gobernu hartan zeuden legezketasunaren aldean egon ziren indar politiko eta sindikatu nagusiak. CNT kanpoan geratu zen EAJren betoaren ondorioz. Defentsarako batzordeek eta indar politiko-sindikalek hasitako lanarekin jarraitu zuen gobernuak. Eusko Jaurlaritza sortzea garrantzitsua izan zen *Eusko Gudarostea* egoteko. Hasteko, milizianoen eta gudarien konpainiak eta batailoiak militarizatu ziren, gerra hasi zenetik Gipuzkoan borrokan ari zirenak. Jarraian deialdietara jo zen, industriak militarizatu ziren, armak aurkitu ziren eta, azkenik, dibisioetan eta brigadetan antolatu ziren; egitura horrekin zebiltzan Lemoatxeko borroka gertatu zenean.

#### *Euskal Brigadak*

*Eusko Gudarostearen* brigada guztietatik hiru izan ziren Lemoatxeko borrokan parte hartu zutenak, denak bigarren dibisioaren barrukoak, Vidal koronelaren kargu zeudenak. Dibisio hark estaltzen zuen Bizkargi eta Arratia ibarraren arteko fronte osoa, eta 4., 6. eta 15. *Brigadek* eratzen zuten dibisioa. Brigada horietan zeuden askatasunaren alde eta altxatuen aurka borrokatu ziren sentsibilitate politiko guztiak: anarkistak, komunistak, nazionalistak, errepublikanoak eta sozialistak.

## 1.4. BATALLAS

### 1.4.1. LOS EJERCITOS ENFRENTADOS

#### 1.4.1.1. *Ejército Vasco*

Cuando se produjo la batalla de Lemoatx el país llevaba más de diez meses sumido en la guerra que se originó con el fracaso del Golpe de Estado. Desde que en julio los primeros voluntarios se enfrentaron a los golpistas, la situación fue cambiando en todos los ámbitos para adaptarse a la coyuntura de la guerra. Uno de esos cambios fue la obtención de la autonomía que posibilitó la creación del primer Gobierno Vasco. Este primer gobierno fue por reiterativo de concentración en el que estaban representadas las principales fuerzas políticas y sindicales que habían permanecido del lado de la legalidad. Quedó fuera la CNT por el veto del PNV. Desde el gobierno se continuó con la labor desarrollada por las juntas de defensa y por las fuerzas político-sindicales. Uno de los aspectos que más favoreció la aparición del *Ejército Vasco* fue el de la creación del Gobierno Vasco. Primeramente se militarizaron las compañías y batallones de milicianos y gudaris que venían luchando en Gipuzkoa desde el inicio de la guerra. Seguidamente se llamó a los reemplazos, se militarizaron industrias, se buscaron armas y finalmente se adoptó una organización en divisiones y brigadas, estructura organizativa con la que se operaba en el momento que tuvo lugar la batalla de Lemoatx.

#### *Brigadas vascas*

De las distintas brigadas que componían el *Ejército de Euzkadi* fueron tres las que tomarían parte en la batalla de Lemoatx, todas ellas encuadradas dentro de la segunda división, que estaba al cargo del Coronel Vidal. Esta división cubría todo el frente comprendido entre el Bizkargi y el valle de Arratia, y estaba compuesta por las *Brigadas 4ª, 6ª y 15ª*. Dentro de dichas brigadas estaban representadas todas las sensibilidades políticas que lucharon por la libertad en contra de la sublevación: anarquistas, comunistas, nacionalistas, republicanos y socialistas.



Patxo Gorritxoren argazkia, *Eusko Gudarosteko 4. Brigadako* komandantea / Retrato de Patxo Gorricho comandante de la 4ª *Brigada del Ejército Vasco* (Intxorta Kultur Elkarte).

#### 1.4.1.1.1. - 4. BRIGADA

Patxo Gorritxoren aginduetara zegoen 4. *Brigada* eta joera politiko desberdinetako batailoiak zeuden: bi batailoio jeltzale, Martiartu eta *Simon Bolivar*; Gazteria Sozialista Bateratuen UHP batailoia eta Langileen Konfederazio Nazionalaren Malatesta batailoia.

#### 1.4.1.1.1. - LA 4ª BRIGADA

La 4ª *Brigada* estaba al mando de Patxo Gorritxo, y la componían batallones de distintas adscripciones políticas: dos batallones jeltzales, el Martiartu y el Simón Bolívar; el batallón UHP de las Juventudes Socialistas Unificadas y el batallón Malatesta de la Confederación Nacional de Trabajadores.



UHPen 3. konpainia / 3ª compañía del UHP (Intxorta Kultur Elkartea).

#### U.H.P. batailoia (Meabeko 4.a)<sup>13</sup>

*Eusko Gudarostearen* 5. batailoia Gazteria Sozialista Bateratuena zen. Gipuzkoar boluntarioekin eratu zen 1936ko abuztuan, Donostiako Lore Toki kuartelean. Unitatearen zati batek San Martzial mendian (Irun) izan zuen lehenengo borroka. Irailaren amaieran batailoia Aretxabaleta inguruan aritu zen borrokan matxinatuen aurka, handik egun gutxira Intxortetan izandako parte hartzeagatik nabarmendu zen beste tropa batzuekin batera, eta tropa kolpisten aurrerapeña oztopatzea lortu zuten. Abenduaren hasieran unitateak Arabako muga gainditu zuen, hainbat operaziotan hartu zuen parte, eta ehun eta berrogeita hamar baja baino gehiago izan zituen. Matxinatuek Bizkaian egindako erasoaren hasieran Gorbeia inguruan ziren, eta kokapen hori utzi beharra izan zuten Otxandio galdu zutenean. Batailoia Intxortetara itzuli zen berriz, bere erresistentzia nabarmena izan zen eta, ondoren, hilabetea amaitu aurretik, bizkaitar lurretara itzuli zen eta Bizkargi inguruko borroketan hartu zuen parte.

#### El Batallón U.H.P. (4º de Meabe)<sup>13</sup>

Batallón número 5 del *Ejército de Euzkadi*, perteneciente a las Juventudes Socialistas Unificadas. Se formó con voluntarios guipuzcoanos el mes de agosto de 1936 en el cuartel donostiarra Lore Toki. Parte de la unidad se fogueará por primera vez en los combates por el monte San Marcial (Irun). A finales de septiembre el batallón lucha contra las fuerzas sublevadas en las inmediaciones de Aretxabaleta, destacando a los pocos días por su participación en los Intxortas donde, en colaboración con otras fuerzas, logran frenar el avance de las tropas golpistas. Desde principios de diciembre la unidad pasa los límites con Araba donde participará en diferentes operaciones que le suponen más de un centenar y medio de bajas. Al comienzo de la ofensiva sublevada sobre Bizkaia se encontraban en la zona del Gorbea, posición que se vieron obligados a abandonar tras la pérdida de Otxandio. Así, el batallón volvería de nuevo a combatir en los Intxortas destacando por su resistencia, y después, antes de que acabara el mes, vuelve a tierras vizcaínas donde participará en los combates en la zona de Bizkargi.

<sup>13</sup> VARGAS, F.M.: *Los batallones socialistas de Euzkadi en la Guerra Civil*, (2007).



Malatesta batailoiko milizianoak / Milicianos del batallón Malatesta (Sabino Arana Fundazioa).

#### Malatesta batailoia (CNTren 2.a) <sup>14</sup>

Eusko Gudarosteako 36. batailoia, Bilboko Ingeniariaren Eskolan kuartela zuena. CNTko gipuzkoar eta bizkaitarren taldeak zeuden eta Arabatik ihes egindako sindikalista batzuk ere bai, altxamenduaren hasieratik Gipuzkoako gudetan parte hartu zutenak. Gainerako batailoiko konfederalak bezala, honak ere irailean zehar hartu zuen batailoiko forma. Malatestak batailoiko legez egin zuen lehenengo ekintza Asturiasen egindako parte hartzea izan zen; asturiar eta euskal indarrekin batera aritu zen borrokan hilabete baino luzeago. Irailaren erdi aldera unitatea berriro ere Bilbon zen eta handik aste batzuetara Karmeloko kartzelaren erasoan hartu zuen parte. Hilabete hartan bertan, *Malatesta* Udala aldera destinatu zuten eta han egon ziren apirilaren amaierara arte, Eibar aldeetik erretiratu ziren Gernika hegoaldera iritsi arte eta hilaren 29ko ekintzagatik nabarmendu ziren. Maiatzean *Malatesta* batailoiko tropak Amorebieta eta Muxika arteko eremuan egon ziren, Bizkargiren inguruko mendietan. Lemoatxeko guduan aurreko taldea izan zen, ez zuen defentsarako sistemarik eta apirilaren 29ko erasoan armada matxinatuaren eraso bizia jasan zuen.

#### El Batallón Malatesta (2º de la C.N.T) <sup>14</sup>

Batallón número 36 del *Ejército de Euzkadi*, acuartelado en la Escuela de Ingenieros de Bilbao. Se compone a partir de grupos de cenetistas guipuzcoanos y vizcaínos, entre los que había algunos sindicalistas huidos de Araba y que habían tomado parte en los enfrentamientos que se habían producido en Gipuzkoa desde el inicio de la sublevación. Al igual que el resto de los batallones confederales adquiere la forma de batallón a lo largo del mes de septiembre. La primera acción del Malatesta como batallón será su participación en tierras Asturianas donde combatirán junto con fuerzas asturianas y vascas durante más de un mes. Mediado el mes de diciembre la unidad se encuentra de nuevo en Bilbao participando semanas después en el asalto a la cárcel del Carmelo. Ese mismo mes el *Malatesta* es destinado a la zona de Udala donde permanecería hasta finales del mes de abril retirándose por la zona de Eibar hasta llegar al sur de Gernika, donde destacaron por su acción del día 29. El mes de mayo las tropas del batallón *Malatesta* estuvieron destinadas en la zona entre Amorebieta y Muxika en las estribaciones del Bizkargi. En la batalla de Lemoatx ocuparía una posición de avanzadilla carente de sistema defensivo por lo que sufriría un gran hostigamiento por parte del ejército sublevado en el ataque del día 29 de abril.

<sup>14</sup> VARGAS, F.M.: "Anarquismo y Milicias de la CNT en Euzkadi" Vasconia, 24. zk. (1996).





Martiartuko gudariak (Urgoitia, III. alea, 129. or.) / Gudarís del Martiartu (Urgoitia, tomo III, pág. 129).

#### *Martiartu batailoia*<sup>15</sup>

*Eusko Gudarosteako* 56. batailoia, abertzalea, Erandioko Jado Eskoletan kuartela zuena. Unitate honen izena, Erandioko Erdi Aroko gotorleku ospetsutik zetorren, udalerrir horretan baitzuen kuartela batailoiak. Txorierri inguruko jendea zegoen batez ere, eta 1937 hasieran eratzen ari zen Araban bere suzko bataioa izan zuenean. Handik bi hilabetera gipuzkoar lurretara igaro zen batailoia, Elgetako frontera, eta fronte hartan bi hilabete baino gehiago egin zituen inolako erreleborik gabe. Intxortetako defentsako guduetan nabarmendu zen batailoiko gudarien heroismoagatik eta Pablo Beldarrain buruzagiaren trebezia militarragatik. Lemoatxeko guduan parte hartu aurretik batailoiko gudariei agindu zitzaizen hurrengo misioa Muxika defendatzea izan zen. Lemoatxeko guduan lehenengo egunetan ehun gizon baino gehiago galdu zituen; beraz, ez zuen berriro borroka nagusietan parte hartu.

#### *Simon Bolivarreko gudariak*<sup>16</sup>

*Eusko Gudarosteako* 70. batailoia, Eusko Alderdi Jeltzalearena, Eusko Jaurlaritzako deialdietako mutilek eratua, Bizkaian erasoak hasi ondoren antolatua, apirilaren amaierara arte ez zen ekintzan sartu. Maiatzaren amaieran, *Simon Bolívar* batailoiak Lemoatxeko guduan hartu zuen parte, bi kokapen nagusietako defentsaz arduratu zen eta Lemoatx berreskuratzeko kontraeraso zenbaitetan hartu zuen parte; ondorioz, 180 kide galdu zituen, batzuk zauritu egin ziren, beste batzuk hil eta besteak desagertu.

#### *El Batallón Martiartu*<sup>15</sup>

Batallón número 56 del *Ejército de Euzkadi* de filiación nacionalista, con cuartel en las Escuelas de Jado en Erandio. Esta unidad recibía su nombre de la famosa fortaleza medieval del municipio donde estaba su cuartel. Compuesto principalmente por personas de la zona del Txorierri, el batallón estaba aún en formación a principios del año 1937, cuando tuvo su bautismo de fuego en el enclave de Araba. Dos meses después el batallón pasaría a tierras guipuzcoanas, al frente de Elgeta, permaneciendo en este frente durante más de dos meses sin relevo, y donde destacaría en los combates en defensa de los Intxortas por el heroísmo de sus gudaris y la habilidad militar de su jefe Pablo Beldarrain. La siguiente misión que se encomendó a los gudaris del batallón antes de su participación en la batalla de Lemoatx fue la defensa de Muxika. En la batalla de Lemoatx sufrió en los primeros días más de un centenar de bajas por lo que no volvería a tomar parte en los principales combates.

#### *Gudarís del Simón Bolívar*<sup>16</sup>

Batallón número 70 del *Ejército de Euzkadi* del Partido Nacionalista Vasco, formado con mozos de los reemplazos llamados a filas por el Gobierno Vasco, organizado con la ofensiva sobre Bizkaia ya comenzada y no entraría en acción hasta finales de abril. A finales de mayo el *Simón Bolívar* participó en la batalla de Lemoatx como encargado de la defensa de una de las dos posiciones principales y protagonizó varios de los contrataques para su recuperación, lo que le supondría la pérdida de 180 de sus integrantes entre heridos, muertos y desaparecidos.

<sup>15</sup> VARGAS, F.M.: "El Partido Nacionalista Vasco en Guerra: Euzko Gudarostea (1936-1937)" Vasconia, 3. zk. (2001).

<sup>16</sup> *Ibid.*



**Simon Bolivarreko gudariak** (Urgoitia, IV. alea, 225. or.) / **Gudaris del Simón Bolívar** (Urgoitia, tomo IV, pág. 225).

#### 1.4.1.1.2. - 6. BRIGADA

6. *Brigadaren* agintea Kristobal Errandoneak zuen eta batailoi ezkeriarrak zeuden batez ere: bakarra zen jeltzalea. Lehenengoen artean batailoi komunista bat zegoen, *Rosa Luxemburgo*, bestea errepublikanoa/UGT ingurukoa, *Baracaldo/Martinez de Aragon*, eta hirugarrena Gazteria Sozialista Bateratuena, *Amuategi*. Eusko Alderdi Jeltzalearen batailoia *Rebelión de la Sal* zen.

#### 1.4.1.1.2. - LA 6ª BRIGADA

El mando de la 6ª *Brigada* recaía sobre Cristóbal Errandonea y estaba compuesta principalmente por batallones de filiación izquierdista, siendo tan solo uno de filiación jeltzale. Entre los primeros encontramos uno de adscripción comunista, el *Rosa Luxemburgo*, otro de filiación republicana/uguetista, el *Baracaldo/Martinez de Aragon*, y el tercero de las Juventudes Socialistas Unificadas, el *Amuategui*. El batallón del partido nacionalista vasco era el *Rebelión de la Sal*.



**Cristobal Errandonea, Lemoatx defendatu zuen 6. brigadako burua,** (Urgoitia, I. alea, 205. or.).

**Cristobal Errandonea, jefe de la 6ª brigada que defendió Lemoatx** (Urgoitia, tomo I, pág. 205).

### *Rosa Luxemburgo batailoia*

*Eusko Gudaroste*ko 4. batailoia, Euzkadiko Alderdi Komunistarena. Bilboko Uribarriko eskoletan zuen kuartela. Gipuzkoar boluntarioak zeuden eta Ezkerraldeko eta Meatzealdeko bizkaitarrak gehitu zitzaizkien, lehenengo egunetatik egin baitzioten aurre estatu-kolpeari. Batailoia-  
ren ernamuinean zeuden taldeetako batzuk Donostiaren defentsan hartu zuten parte, bai eta altxamenduaren lehenengo egunetan Nafarroarekiko mugan egindako sarretan ere. Gero Irun defendatu zuen, Legutioko guduan hartu zuen parte, Gernikako frontean eta, Lemoara iritsi aurretik, Etxano aldeko ekintzetan hartu zuten parte, bai eta Aramotzeko mendizerrakoetan ere. Lemoatxeko guduan *Eusko Gudarosteari* tropen posizioaren kontrola itzuli zion ekintzan hartu zuen parte.

### *Batallón Rosa Luxemburgo*

Batallón número 4 del *Ejército de Euzkadi*, formado por el Partido Comunista de Euzkadi. Estuvo acuartelado en las escuelas de Uribarri de Bilbao. Se compuso de voluntarios guipuzcoanos a los que se añadieron vizcaínos de la margen izquierda y la zona minera que desde los primeros días hicieron frente al golpe de estado. Varios de los grupos que serían el germen del batallón participaron en la defensa de Donostia en incursiones realizadas sobre la zona limítrofe con Navarra en los primeros días del levantamiento. Más tarde participarían en la defensa de Irun, en la batalla de Legutio, en el frente de Gernika y, antes de llegar a Lemoa, tomarían parte en las acciones que tuvieron lugar en las posiciones de Etxano y de la sierra de Aramotz. En la batalla de Lemoatx intervienen en la operación que devuelve el control de la posición a las tropas del *Ejército Vasco*.



*Rosa Luxemburgo batailoia / Batallón Rosa Luxemburgo* (Intxorta Kultur Elkarte).

### *Baracaldo-Martínez de Aragón batailoia (13.a UGTrena)*<sup>17</sup>

*Eusko Gudaroste*aren 28. batailoia, hasieran Ezker Errepublikanoari atxikia eta gero UGTren milizietan sartua. Nerbioi ibaiaren Ezkerraldeko milizianoak ziren eta 1936ko abuztua eta iraila artean Barakaldon izan zuen kuartela batailoiak. Lehenengo aldiz borrokan Markinako frontean sartu ziren, eta irailaren 23an eta 26an izandako ekintzetan parte-hartze aktiboa izan zuen. Sektore horretan altxatuek izandako aurrerakada geratu zuen batailoietako bat izan zen eta berrogeita hamar kide baino gehiago galdu zituen; ondo-

### *Batallón Baracaldo-Martínez de Aragón (13º de la U.G.T)*<sup>17</sup>

Batallón número 28 del *Ejército de Euzkadi*, en un principio adscrito a Izquierda Republicana, e integrado después en las milicias de la U.G.T. Se compuso por milicianos de la margen izquierda del Nervión, entre agosto y septiembre de 1936 estuvo acuartelado en Baracaldo. Entran por primera vez en combate en el frente de Markina tomando parte activa en las operaciones que tuvieron lugar entre los días 23 y 26 de septiembre. Fue uno de los batallones responsables de la detención del avance sublevado por dicho sector y perdió más de medio centenar de

<sup>17</sup> VARGAS, F.M.: *Los batallones socialistas de Euzkadi en la Guerra Civil*, (2007).



**Baracaldo-Martínez de Aragóneko milizianoak atsedean batean** (Urgoitia, IV. alea, 334. or.) / **Milicianos del Baracaldo-Martínez de Aragón en un descanso** (Urgoitia, tomo IV, pág. 334).

rioz, frontea utzi egin behar izan zuen baja horiek osatzeko. Urrian Kalamuako guduetan hartu zuen parte unitateak, Eibarko frontera bidali zuten arte; hor egon zen urtarrilaren erdira arte eta berrantolatu egin zen berriro ere Eibarre-ira itzultzeko. Apirilaren amaierara arte egon zen han eta Amorebieta-Etxano inguruan aritu zen. Ondoren Lemoatxeko guduan hartu zuen parte, ekainaren 3an mendigunea berreskuratu zuen ekintzan.

#### **Amuategi batailoia (Meabeko 3.a) <sup>18</sup>**

*Eusko Gudarosteako* 35. batailoia, Eibar inguruko Gazteria Sozialista Bateratuetako militanteekin eratua. Altxamenduaren hasieratik aritu ziren Donostiako kaleetan borrokan, eta altxamendua menderatzea lortu zutenean, probintziako hainbat udalerritako ekintzetan hartu zuten parte. Beasain, Tolosa eta Irungoak nabarmentzen dira hauen parte hartzeagatik. Donostia galdu ondoren, *Amuategiko* boluntarioak Eibarrera itzuli ziren eta frontea geratzea lortu zuten Arrate inguruan. *Amuategiren* muinean zeuden unitateak batailoi moduan ari ziren ordurako, eta euren egunkaria ere bazuten. Unitatea Eibar inguruan mantendu zen apirilaren amaierara aldera arte, baina matxinatuek aurrera egin ahala Gernika aldera jo behar izan zuen atzeraka. Egun gutxira Amorebieta-Etxano inguruan zen batailoia altxatuekin borrokan, eta maiatzaren erdi aldera arte arerioaren aurrerakadari eustea lortu zuen. *Amuategi* batailoiak Lemoatxeko guduan hartu zuen parte, eta ekainaren 3an kokapena berreskuratzeko egindako ekintzetan hartu zuen parte.

efectivos, viéndose obligado a abandonar el frente para reponer las bajas. En octubre la unidad tomaría parte en los combates por el Kalamua, hasta que fue destinado al frente de Eibar donde quedaría hasta mediados de enero, cuando se produjo su reorganización para volver de nuevo a la villa armera. Allí permanecería hasta finales de abril, pasando a actuar en la zona de Amorebieta-Etxano. Después tomaría parte en la batalla de Lemoatx en la operación que el día 3 de junio logró la recuperación del macizo montañoso.

#### **El Batallón Amuategi (3º de Meabe) <sup>18</sup>**

Batallón número 35 del *Ejército de Euzkadí*, constituido a partir de militantes de la zona de Eibar de las Juventudes Socialistas Unificadas. Desde el inicio de la sublevación lucharon por las calles de la capital guipuzcoana, y una vez logrado sofocar la sublevación tomaron parte en las acciones que se produjeron en distintas localidades de la provincia, destacando por su participación en Beasain, Tolosa e Irun. Tras la pérdida de Donostia, los voluntarios del *Amuategui* volverían a Eibar donde lograrán detener el frente en la zona de Arrate. En estos momentos las distintas unidades que fueron el germen del *Amuategui* ya actuaban en calidad de batallón, como así lo evidencia la existencia de su propio periódico. La unidad permanecería en las inmediaciones de Eibar hasta finales de abril que ante el avance sublevado se ve obligado a replegarse por la zona de Gernika. A los pocos días el batallón combatía a los sublevados en la zona de Amorebieta-Etxano, donde logró contener el avance enemigo hasta mediados de mayo. El batallón *Amuategui* participó en la batalla de Lemoatx tomando parte en las operaciones que sirvieron para recuperar la posición el día 3 de junio.

<sup>18</sup> VARGAS, F.M.: *Los batallones socialistas de Euzkadí en la Guerra Civil*, (2007).



Amuategi batailoia / Batallón Amuategui (Intxorta Kultur Elkarte).

### *Rebelión de la Sal Batailoia*<sup>19</sup>

*Eusko Gudaroste*ko 59. batailoia, abertzalea, Bilboko Cervantes Eskolan kuartela zuena. Eusko Jaurlaritzako deialdietako mutilez eraturako batailoia zen. Gerrako lehenengo ekintzak Ubide sektorean bizi izan zituzten, 4 hilabete egin baitzituzten han. Apirilean 10 egun egin zituzten Gorbeia inguruan. Hilabete hartan bertan Gernikara bidali zuten batailoia eta gudari haietako asko izan ziren hiribilduak jasandako bonbardaketa beldurgarriaren lekuko. Horren ondoren, batailoiak Amorebieta-Etxano inguruetan izandako borroketan hartu zuen parte, Lemoara iritsi aurretik. *Rebelión de la Sal* batailoiak Lemoatxeko guduan parte hartu zuen, gailurrak berreskuratzeko ekintzetan, hain zuzen ere. Lemoatik igaro ondoren, ehun gudari berri baino gehiago behar izan zituzten batailoiak.

### *El Batallón Rebelión de la Sal*<sup>19</sup>

Batallón número 59 del *Ejército de Euzkadi*, de filiación nacionalista tenía su cuartel en las Escuelas de Cervantes en Bilbao. El batallón estaba constituido por los mozos de los reemplazos llamados a filas por el Gobierno Vasco. Sus primeras acciones de guerra las viviría en el sector de Ubide donde permanecería durante 4 meses. En el mes de abril pasaría 10 días por la zona del Gorbea. Este mismo mes el batallón sería destinado a Gernika, siendo muchos de sus gudaris testigos del atroz bombardeo sufrido por la villa foral. Tras este suceso, el batallón antes de llegar a Lemoa tomaría parte en los combates que tuvieron lugar en las inmediaciones de Amorebieta-Etxano. *El Rebelión de la Sal* participó en la batalla de Lemoatx en la operación que culminó con la recuperación de las cimas. Tras su paso por Lemoa el batallón tuvo que ser reforzado con más de un centenar de gudaris



“Saravia” konpainiako gudariak, *Rebelión de la Sal* batailoia (Urgoitia, IV. alea, 172. or.).  
Gudaris de la compañía “Saravia” del batallón *Rebelión de la Sal* (Urgoitia, tomo IV, pág. 172).

<sup>19</sup> VARGAS, F.M.: “El Partido Nacionalista Vasco en Guerra: Euzko Gudarostea (1936-1937)”, Vasconia, 3. zk. (2001).

**1.4.1.1.3. - 15. BRIGADA**

15. Brigadaren zuzendaria Angel López Bonaetxea izan zen eta 6. Brigadarekin gertatu bezala, bertako batailoi gehienak ezkerreko alderdienak ziren; aldiz, laugarrenean *Eusko Gudarostearen* zati bat zegoen. Batailoi hauek ziren: *Fulgencio Mateos* eta Pablo Iglesias, UGTrenak; *Rusia*, Gazteria Sozialista Bateratuena; eta *Sukarrieta*, Eusko Alderdi Jeltzalearena.

**1.4.1.1.3. - LA 15ª BRIGADA**

La dirección de la 15ª Brigada la ejerció Ángel López Bonaetxea, y como ocurría con la 6ª Brigada, la mayoría de sus batallones, estaban adscritos a organizaciones de izquierdas, mientras que el cuarto formaba parte del Euzko Gudarostea. Estos batallones fueron, el *Fulgencio Mateos* y el Pablo Iglesias de la U.G.T., el *Rusia* de las Juventudes Socialistas Unificadas y el *Sukarrieta* del Partido Nacionalista Vasco.



Batailoi sozialista formazioan (Largo Caballero Fundazioa. Urgoitia, V. alea, 19. or.) / Batallón socialista en formación (Fundación Largo Caballero. Urgoitia, tomo V, pág. 19).

***Fulgencio Mateos* batailoia (UGTren 1.a)**<sup>20</sup>

*Eusko Gudarosteako* 9. batailoia, abertzalea, Deustuko Unibertsitatean kuartela zuena. Muinean, "Otxandioko zutabea" deitutakoan, lehenengo unean irtendako boluntarioak zeuden. Milizianoen zutabe honetan zegoen Mateos taldea ere, nahiz eta irailera arte ez zen batailoia antolatu. Hilabete horretan bertan, jada batailoia eratu eta Eibarko fronteko borroketan hartu zuen parte eta, hilabete geroago, Akarregi mendiko guduan. Hurrengo guda-parte hartzea Legutio egindako eraso izan zen, eta oso zigortu zuten. Frontea egonkortu zenean, batailoia erreserbara igaro zen martxoaren 31n berriro ekintzak hasi arte; lehenengo lerroa itzuli ziren Aramaion eta Otxandion, galdu arte. Handik hilabetera Elorriko sektorean ari zen borrokan, eta baja ugari izan zuen. 2. dibisioan sartu ondoren, Amorebieta-Euba eremura igaro zen. Handik Lemoatxera igaro zen eta ekainaren 1eko kontraerasoetan parte hartu zuen.

***Batallón Fulgencio Mateos* (1º de la U.G.T.)**<sup>20</sup>

Batallón número 9 del *Ejército de Euzkadi*, de filiación socialista, tenía su cuartel en la Universidad de Deusto. El germen de su formación está en un grupo de voluntarios salidos en los primeros momentos en la denominada *Columna de Ochandiano*. Dentro de esta columna de milicianos encontramos el denominado Grupo Mateos, aunque habrá que esperar hasta septiembre para la organización del batallón. En ese mismo mes toma parte, ya como batallón, en los enfrentamientos del frente de Eibar, y un mes después participa en la lucha del monte Akarregi. El siguiente episodio bélico del que tomó parte fue la ofensiva sobre Legutio, en la que fue duramente castigado. Con la estabilización del frente el batallón pasa a la reserva hasta la reanudación de las operaciones el 31 de marzo, volviendo a primera línea en las localidades de Aramaio y Otxandio hasta su pérdida. Un mes después combatía en el sector de Elorrio donde sufrió gran número de bajas. Tras su encuadre en la 2ª división pasó a la zona de Amorebieta Euba. De allí pasaría a Lemoatx donde tomaría parte en los contraataques del día 1 de junio.

<sup>20</sup> VARGAS, F.M.: *Los batallones socialistas de Euzkadi en la Guerra Civil*, (2007).



Pablo Iglesias batailoiko milizianoak (Largo Caballero Fundazioa. Urgoitia, IV. alea, 333. or.) / Milicianos del batallón Pablo Iglesias (Fundación Largo Caballero. Urgoitia, tomo IV, pág. 333).

### *Pablo Iglesias batailoia (UGTren 6.a)*<sup>21</sup>

*Eusko Gudaroste*eko 42. batailoia, sozialista, Bilboko Tomas Camacho Eskolan kuartela zuena. Batailoia muinean altxaldiaren hasieratik Urduña inguruan borrokan zebiltzan milizianoak zeuden. Urriaren hasieran eratu zen batailoia legez, eta une hartatik bertatik ekintza armatueta parte hartzen hasi zen Eibarko frontean; apirilaren amaierara arte egon zen han. Urriaren bere konpainietako bat Asturiasera joan zen borrokara euskal espedizioaren indarrekin. Eibartik irten eta *Pablo Iglesias* batailoia Etxano inguruan zen borrokan maiatzaren erdi aldera. Ondoren, Lemoatxeko guduan hartu zuen parte, ekainaren 1eko kontraerasoetan.

### *Rusia batailoia (Meabeko 6.a)*<sup>22</sup>

*Eusko Gudaroste*aren 8. batailoia, Gazteria Sozialista Bateratuko kideek eratua. Euskal Gudarostearen lehenengo batailoia jatorrian Tolosaldeko boluntario talde bat zegoen, Donostiako borroketan parte hartu zuena. Batailoiko konpainiak zenbait frontetan aritu ziren; beraz, erraz aurkitzen dira batailoia honi buruzko erreferentziak euskal geografiako zenbait tokitan, hala nola Tolosa, Irunen, Donostian, Elgetan, Markinan... *Rusia* batailoiko lau konpainiak Asturiasera egindako espedizioan borrokatu ziren lehenengoz, eta ehun baja inguru izan zituzten. Euskal lurretara itzuli eta Elosu eta Nafarrate inguruko guduetan hartu zuen parte, eta 300 baja inguru izan zituen hamabost egunean. Otsailean batailoia Asturiasen zen berriro borrokan, eta han ere baja ugari izan zuen berriro. Itzuli zenean Otxandioko frontetik igaro zen eta Elorriokotik ere bai, eta maiatzean Bernagoitia aldera igaro zen. Lemoatxeko guduan ekainaren 1eko kontraerasoan hartu zuen parte eta baja ugari izan zuen.

### *El Batallón Pablo Iglesias (6º de la U.G.T)*<sup>21</sup>

Batallón número 42 del *Ejército de Euzkadi*, de filiación socialista, tenía su cuartel en las Escuelas de Tomas Camacho en Bilbao. El embrión del batallón fueron los milicianos que combatían desde el inicio de la sublevación en la zona de Orduña. Constituido como batallón a principios de octubre, desde este mismo momento tomaba parte en acciones armadas en el frente Eibar, donde permanecería hasta finales de abril. También en este mes de octubre una de sus compañías marchó con las fuerzas expedicionarias vascas a combatir en Asturias. Tras su salida de la villa armera el *Pablo Iglesias* pasó a mediados de mayo a combatir en la zona de Etxano. Después en la batalla de Lemoatx participando en los contrataques que tuvieron lugar el día 1 de Junio.

### *Batallón Rusia (6º de Meabe)*<sup>22</sup>

Batallón número 8 del *Ejército de Euzkadi*, compuesto por miembros de las Juventudes Socialistas Unificadas. El origen del que sería el primer batallón del Ejército Vasco fue el grupo de voluntarios de Tolosaldea que tomó parte en los combates de Donostia. Las compañías que integraban el batallón actuaron en distintos frentes, por lo que es fácil encontrarse referencias al batallón en diversos lugares de la geografía vasca como Tolosa, Irun, Donostia, Elgeta, Markina, etc. La primera vez que las cuatro compañías del *Rusia* actúen conjuntamente será en la expedición a tierras asturianas donde sufrirían casi un centenar de bajas. De vuelta en tierras vascas participa en los combates de la zona de Elosu y Nafarrate, donde sufre aproximadamente 300 bajas en cuestiones de un par de semanas. En febrero el batallón volvió a combatir en Asturias, y allí volverá a sufrir gran cantidad de bajas. A su vuelta pasaría por el frente de Otxandio y por el de Elorrio pasando en mayo a la zona de Bernagoitia. En la batalla de Lemoatx toma parte en los contrataques efectuados el día 1 de junio donde sufriría gran número de bajas.

<sup>21</sup> VARGAS, F.M.: *Los batallones socialistas de Euzkadi en la Guerra Civil*, (2007).

<sup>22</sup> *Ibid.*



*Rusia* batailoia Bilbon desfilatzen / El batallón *Rusia* desfilando en Bilbao (Sabino Arana Fundazioa).

### *Sukarrieta* batailoia <sup>23</sup>

*Eusko Gudarostearen* 69. batailoia, abertzalea. Altxatuak Bizkaiaren aurka eraso egiten hasi zirenean, antolatzen ari zen eta Eusko Jaurlaritzak mugitutako mutilekin sortu zen, agintariak beste batailoietatik zetozen arren. *Sukarrieta*-tako gizonzkoen suzko bataioa maiatzaren hasieran izan zen, gudariaren esperientzia ezaren eta mobilizatuak izatearen ondorioz, gerrako frontera abiatu eta 20 egunera batailoiek bere kideen heren bat galdua zuen jada. Geroago, Lemoatxeko guduan, ekainaren 1eko kontraerasoan hartu zuen parte eta baja ugari izan zuen.

### *El Batallón Sukarrieta* <sup>23</sup>

Batallón número 69 del *Ejército de Euzkadí*, de filiación nacionalista. Cuando comienza la ofensiva sublevada contra Bizkaia se encuentra en fase de organización y se crea con los mozos de los reemplazos movilizados por el Gobierno Vasco a excepción de los mandos que provenían de otros batallones. Los hombres del *Sukarrieta* tendrán su bautismo de fuego a comienzos de mayo, la inexperiencia de los gudaris y su carácter de movilizados supuso que 20 días después de salir al frente de batalla, el batallón hubiera perdido en torno a un tercio de sus integrantes. Más tarde en la batalla de Lemoatx toma parte en los contrataques del día 1 de junio sufriendo un elevado número de bajas.



*Sukarrieta* batailoiko gudariak / Gudaris del batallón *Sukarrieta* (Sabino Arana Fundazioa).

<sup>23</sup> VARGAS, F.M.: "El Partido Nacionalista Vasco en Guerra: *Eusko Gudarostea* (1936-1937)", Vasconia, 3. zk. (2001).



#### 1.4.1.1.4. - EUSKAL BRIGADEKIN LANKIDETZAN ARITU ZIREN BESTE EUSKAL UNITATE BATZUK

#### 1.4.1.1.4. - OTRAS UNIDADES VASCAS QUE COLABORARÍAN CON LAS BRIGADAS VASCAS



Saseta batailoiko gudariak / Gudarís del batallón *Saseta* (Inxorta Kultur Elkarte).

#### *Saseta* batailoia <sup>24</sup>

*Eusko Gudaroste*ko 53. batailoia, abertzalea, Bilboko Eskolapioen eskolan kuartela zuena. Gipuzkoar ordezkari ugariko unitatea izan zen. Metrailadoreen batailoia gisa, bere konpainiak infanteriako beste konpainia batzuk babesten ari ziren; hori zela eta, *Saseta* fronte ia guztietan ibili zen. *Saseta* batailoiak Lemoatxeko guduan parte hartu zuen 6. *Euskal Brigadako* tropak babestuz, eta ekintza haren ondorioz kokapena berreskuratu zen; berreskuratu ondoren defendatzen ere aritu ziren.

#### *M.A.I. Irrintzi* batailoia <sup>25</sup>

*Eusko Gudaroste*ko 77. batailoia, abertzalea, Bilboko Briñas Eskolan kuartela zuena. Infanteriari lagun egiteko makinaren (MAI siglak gaztelaniaz) batailoia izan zen, eta makina esatean gerra-gurdien kontrakoez eta morteroez ari gara batez ere. *Saseta* batailoia bezala, hau ere fronte guztietan banatuta zegoen, beste batailoiei laguntzeko.

*Irrintzi* batailoiak Lemoatxeko guduan parte hartu zuen seigarren konpainiako morteroen bi sekzioekin: 6. *Brigadako* indarrei lagundu zien kokapena berreskuratzeko ekintza eta kokapena behin betiko galdu ondorengo egunetan egin ziren erasoetan.

#### *Batallón Saseta* <sup>24</sup>

Batallón número 53 del *Ejército de Euzkadi*, de filiación nacionalista tenía su cuartel en el colegio de los Escolapios de Bilbao. Fue una unidad con una abultada presencia de guipuzcoanos en sus filas. Como batallón de ametralladoras, sus distintas compañías funcionaron de apoyo a otros batallones de infantería, por lo que el *Saseta* estaría presente prácticamente en todos los frentes. El batallón *Saseta* participó en la batalla de Lemoatx como apoyo a las tropas de la 6ª *Brigada Vasca* en la operación que supuso la recuperación de la posición así como en su defensa una vez recuperada.

#### *Batallón M.A.I. Irrintzi* <sup>25</sup>

Batallón número 77 del *Ejército de Euzkadi*, de filiación nacionalista, tenía su cuartel en las Escuelas de Briñas en Bilbao. Se trata de un batallón de máquinas de acompañamiento de infantería (M.A.I.), estas máquinas eran principalmente cañones anticarro y morteros. Al igual que ocurría con el batallón *Saseta* estaba repartido por todos los frentes apoyando a otros batallones.

El batallón *Irrintzi* participó en la batalla de Lemoatx, con dos secciones de morteros de la sexta compañía, como apoyo a las fuerzas de la 6ª *Brigada* en la operación que culminó con la recuperación de la posición y en los ataques que tuvieron en los días posteriores a la pérdida definitiva de la posición.

<sup>24</sup> VARGAS, F.M.: "El Partido Nacionalista Vasco en Guerra: *Eusko Gudarostea* (1936-1937)", Vasconia, 3. zk. (2001).

<sup>25</sup> *Ibid.*



Irrintzi batailoiko gudariak (Urgoitia, III. alea, 131. or.) / Gudarías del batallón Irrintzi (Urgoitia, tomo III, pág. 131).

### *Dragones batailoia (Meabeko 5.a)*<sup>26</sup>

*Eusko Gudarostearen* 22. batailoia, Arrasate eta Hernani inguruko Gazteria Sozialista Bateratuko kideek eratu. Batailoia muinean Debagoienako gazteak zeuden, eta Donostiaren defentsan hartu zuten parte uztailean. Donostia erori ondoren, irailean hainbat borrokatan hartu zuten parte, probintziaren okupazioa geratu asmoz. Urriaren hasieran Kanpazar inguruan ziren, eta urriaren 4ko ekintzetan parte hartzeagatik nabarmendu ziren, altxatutako indarrek aurrera egitea galarazi baitzuten. Bizkaiaren aurkako erasoaren hasieran unitatea Aramaio inguruan zen, eta eraso handia jasan arren, apirilaren 20ra arte kokapen hartan irautea lortu zuen. Egun hartan Elgetako sektorera lekualdatu zen eta Intxortetako defentsan hartu zuen parte; ehun baja inguru izan zituen. Mendi horiek galdu zirenean batailoia Euba aldera joan zen.

*Dragones* batailoiak Lemoatxeko guduaren bi unetan hartu zuen parte: lehenengoan bere bi konpainia egon ziren eta ekainaren 3an berreskuratzeko egindako ekintzan 6. *Brigadako* tropak indartzeko aritu ziren. Ekintza honetan *Dragonesen* jarduera bat aipatu beharra dago: bertako kideak harrobian gora joan ziren, arerioa inguratu zuten eta ezustean hartu zituzten. Bigarren ekintza bi egun geroago izan zen, kokapena defendatzen ari zirela 4. *Brigadarekin* batera: batailoiko metrailadore konpainiak, ekintza heroiko bat zuen egin egun horretan; izan ere, erretiratzen ari ziren gainerako kideak babestu zituzten eta, horren ondorioz, metrailadore-konpainia horretako kide batzuk bizia galdu zuten.

### *El Batallón Dragones (5º de Meabe)*<sup>26</sup>

Batallón número 22 del *Ejército de Euzkadi*, formado por miembros de las Juventudes Socialistas Unificadas de la zona de Arrasate y Hernani. El embrión del batallón fueron los jóvenes del alto Deba que participaron en julio en la defensa de Donostia. Tras la caída de la capital guipuzcoana y durante el mes de septiembre participarán en diversos enfrentamientos intentando frenar la ocupación de la provincia. A comienzos de octubre se encuentra en la zona de Kanpazar, donde destacará por su participación en las acciones del día 4 que logran frenar el avance de las fuerzas sublevadas. Al inicio de la ofensiva contra Bizkaia la unidad se encontraba en las inmediaciones de Aramaio, donde a pesar de sufrir un gran hostigamiento, logró mantener la posición hasta el 20 de abril cuando es trasladado al sector de Elgeta y donde tomaría parte en la defensa de los Intxortas, sufriendo un centenar de bajas. Perdidos estos montes el batallón es trasladado a la zona de Euba.

El batallón *Dragones* participaría en la batalla de Lemoatx en dos momentos, el primero de ellos con dos de sus compañías que actuaron a modo de refuerzo de las tropas de la 6ª *Brigada* en la operación efectuada el día 3 de junio para la recuperación. En esta operación el *Dragones* protagonizó un singular episodio en el que sus integrantes, escalando la cantera, lograron flanquear al enemigo y cogerlo por sorpresa. La segunda participación se produjo dos días después durante la defensa de la posición junto a la 4ª *Brigada* en la que la compañía de ametralladoras del batallón, en una heroica acción, protegió la retirada del resto de sus compañeros, lo que le costó la vida a varios de sus miembros.

<sup>26</sup> VARGAS, F.M.: *Los batallones socialistas de Euzkadi en la Guerra Civil*, (2007).



Dragonez batailoiko milizianoak (Urgoitia, III. alea, 444. or.) / Milicianos del batallón *Dragones* (Urgoitia, tomo III, pág. 444).

#### *Euzkadiren Gerra-gurdi arinen batailoia* <sup>27</sup>

Bizkaiaren aurkako erasoaren hasieran sortutako unitatea, Getxoko *Vallejo* etxean zuen kuartela eta Eusko Jaur-laritzaren mende zegoen zuzenean. Beharbada *Eusko Gudarostearen* armetan gaizkien aztertutakoa izango da hau, eta ez dago adostasunik bertan erabili ziren ereduai buruz. Era berean, ez dago argi euskal indarrek blindatuak nola erabili zituzten. Urkiolan, Barazarren, Durangon edo Amorebieta-Etxanon egon zirela baieztatu dezakegu, besteak beste. Dirudenez, blindatuek infanteriaren ekintzetan hartu zuten parte, baina bigarren mailako elementu legez aritu ziren beti, inoiz ere ez eraso baten buru, Lemoatxen gertatu bezala.

#### *Batallón de Carros Ligeros de Euzkadi* <sup>27</sup>

Unidad creada antes del inicio de la ofensiva contra Bizkaia, tenía su cuartel en la *Casa Vallejo* de Getxo y dependía directamente del Gobierno Vasco. Tal vez sea una de las armas del *Ejército de Euzkadi* peor estudiadas, hasta el punto de que existe controversia sobre los distintos modelos que la compusieron. Tampoco está clara la utilización que se hizo de los blindados por partes de las fuerzas vascas. Se puede afirmar que estuvieron presentes en Urkiola, Barazar, Durango, o Amorebieta-Etxano entre otros. Al parecer los blindados tomaron parte en las acciones de la infantería pero siempre como un elemento secundario no encabezando ningún ataque como ocurriría en Lemoatx.



Trubia-Naval gurdien atal bat (Urgoitia, IV. alea, 184. or.) / Una sección de carros Trubia-Naval (Urgoitia, tomo IV, pág. 184).

<sup>27</sup> MORTERA, A.: *Los medios Blindados en la Guerra Civil Española. Teatro de Operaciones del Norte (36/37)*, (2007).

or.

**Asturiar Espedizio Brigadak**<sup>28</sup>

Altxatutako indarren aurkako borrokan, euskal indarrek Kantabriako eta Asturiasko indarren babesa izan zuten gerrako une batzuetan. Legezketasunaren aldeko borrokan aritzen ziren indarren arteko lankidetzak hori oso garrantzitsua izan zen Lemoatxeko guduan, batez ere Asturiasko tropen eta euren artilleriaren laguntza.

Asturiar boluntarioen laguntza argi geratu zen altxamenduaren hasieratik; izan ere, *Asturiasko dinamitarien* taldeek hartu zuten parte Donostian estatu-kolpeari aurre egiteko ekintzetan eta Irungo mugan pasabidea mantentzeko borroketan. Bada, laguntza horri erantzuteko, euskal indarrak asturiar lurretara joan ziren Oviedo berreskuratu nahi zutenei boluntarioekin laguntzeko.

Mola Bizkaia okupatzeko ekintzekin berriro hasi zenean izan zen euskal eta asturiar indarren arteko hurrengo lankidetzak. Martxoaren 31n hasi ziren tirabirak eta apirilaren 5ean Asturiastik etorritako lehenengo tropak *Eusko Gudarostea* babesten ari ziren jada. Apirilean zehar lau espedizio-brigada iritsi ziren artilleriako lau bateriarekin eta iritsi zirenetik egon ziren gudurik garrantzitsuenetan hartu zuten parte, hala nola Saibigainen, Urduñan, Gorbeian, Bizkargin, Lemoan edo Bilbo defendatzeko gerrikoan. Dena dela, ez dirudi Eusko Jaurilaritzako agintariek behar bezala artatu zituztenik Bizkaia mehatxatzen zuten indar matxinatuen aurka borrokatzera etorri ziren asturiar boluntarioak. Behar adina zantzu dago argi uzten dutenak espedizio-tropa horiek hornitzeko asturiar lurraldeetan egin zirela kanpainak, eta horren ondorioz, asturiar tropek beharizan handia izan zuten eta borroka egite-

**Brigadas Expedicionarias Asturianas**<sup>28</sup>

Las fuerzas vascas en su lucha contra las tropas sublevadas contaron en diferentes momentos de la guerra con el apoyo de fuerzas cántabras y asturianas. Esta colaboración entre fuerzas que luchaban en defensa de la legalidad fue de gran importancia en la batalla de Lemoatx, especialmente la de las tropas asturianas y su artillería.

La ayuda de los voluntarios asturianos se hizo patente desde el comienzo de la sublevación, cuando los primeros grupos de *dinamiteros asturianos* toman parte en los enfrentamientos para sofocar el golpe de estado en Donostia, y en las luchas por mantener el paso fronterizo de Irun. Y este auxilio sería correspondido con la salida de las tropas expedicionarias vascas que marcharon a tierras asturianas para apoyar con los voluntarios que intentaban recuperar Oviedo.

El siguiente episodio de colaboración entre las fuerzas vascas y asturianas se produce como consecuencia de la reanudación de las operaciones de Mola para la ocupación de Bizkaia. Las hostilidades se inician el día 31 de marzo, y el día 5 de abril ya combatían las primeras tropas venidas desde Asturias en apoyo del Ejército Vasco. A lo largo del mes de abril llegarían cuatro brigadas expedicionarias acompañadas de cuatro baterías de artillería que participarían en los combates más importantes que tuvieron lugar desde su llegada en lugares tan sonados como Saibigain, Orduña, Gorbea, Bizkargi, Lemoa o el cinturón defensivo de Bilbao. A pesar de todo ello, parece que los voluntarios asturianos que acudieron a luchar contra las fuerzas su-



**Eusko Gudarosteko borrokalariak** (Irudia hemendik atera da: SAGARRA RENEDO, P. eta beste batzuk. 2015. Gudaris. *Eusko Gudarostea (Ejército Vasco) durante la Guerra Civil, 1936-1937*) / **Combatientes de Eusko Gudarostea** (Imagen extraída de: SAGARRA RENEDO, P. y otros. 2015. Gudaris. *Eusko Gudarostea (Ejército Vasco) durante la Guerra Civil, 1936-1937*).

<sup>28</sup> VARGAS, F.M.: "Euzkadi y el Norte republicano. Las Brigadas Asturianas y Santanderinas en el frente vasco", *Vasconia*, 38. zk. (2012).

ko finkatzen ziren inguruetakoki eta baserrietara jo behar izaten zuten hornigaien bila. Egoera honen ondorioz, gizarte zibilaren eta asturiar espedizionarioen artean gatazkak sortu ziren, eta tropa horiek arpilatzailek zirela uste zen<sup>29</sup>.

Testuinguru honetan gertatu zen Asturiasko espedizio-brigaden lankidetzak Lemoatxeko guduan. Asturiasko brigadetak bik euren efektiboetako batzuk eman zituzten Lemoatx berreskuratzeko guduetarako. *Asturiasko 2. Espedizio-Brigadako* burua Mateo Antoñanzas Gutiérrez zen eta *Víctor* eta *Taboada* batailoiek hartu zuten parte; aldiz, Joaquín Burgos Riestra buru zuen *2. Brigadatik Máximo Gorki II-k* hartu zuen parte. Infanteriaz gain, asturiarrek artilleriako bateriak ere eman zuten, euren brigadekin batera ibiltzen baitzen.

Altzatutako armadaren aurka borrokatzera Euskal Herrira etorri ziren indarrak gerran esperientzia handia zuten tropak ziren, unitateetako asko altxamenduaren hasieratik guduan baitzebiltzan. Borrokarietako asko euskal lurretara etorri aurretik miliziano eta gudariek lubakiak partekatuak ziren, hauek Asturias defendatzera joan zirenean. Orduan, egoera errepikatu egin zen, baina Bizkaia defendatzeko.

#### *Víctor batailoia (Asturiasko 208)*<sup>30</sup>

*Asturiasko 2. Espedizio-Brigadako*, Víctor Álvarez anarkistak antolatu zuen. Unitate honek esperientzia handia lortu zuen Oviedo berreskuratzeko guduan. Unitatea apirilaren hasieran iritsi zen Euskal Herrira, José Montero Riego buru zuela. Astebetera Saibigaineko guduan hartu zuen parte, eta 12. eguneko berreskuratze-borrokan izandako parte hartzeagatik nabarmendu zen. Ondoren berriro ere borrokan sartu ziren Durango eta Amorebieta-Etxano inguruetan.

*Víctor* batailoiak Lemoatxeko guduan hartu zuen parte *4. Euskal Brigadako* tropak indartzeko, eta kokapena berreskuratzeko kontraerasoetan egon zen. Bere ekintzarik nabarmenena ekainaren 2ko gudua izan zen: hesietaraino iristea lortu zuten, baina atzera egin behar izan zuten eskuko granadez eta metrailadorez eraso baitzituzten matxinatuek.



**Eusko Indarra batailoiko gudariek** (Irudia hemendik atera da: URGOITIA BADIOLA, J.A.: *Crónica de la Guerra Civil, de 1936-1937, en la Euzkadi peninsular*) / **Gudarís del batallón Eusko Indarra** (Imagen extraída de: URGOITIA BADIOLA, J.A.: *Crónica de la Guerra Civil, de 1936-1937, en la Euzkadi peninsular*).

blevadas que amenazaban Bizkaia no fueron debidamente atendidos por las autoridades del Gobierno Vasco. Existen suficientes indicios que evidencian que el abastecimiento de las tropas expedicionarias hubo de ser sufragado por campañas que se realizaban en tierras asturianas, lo que creó una situación de necesidad entre las tropas asturianas que les obligaba a buscarse el sustento en los lugares y caseríos de las zonas próximas a donde se establecían para combatir. Esta situación facilitó la existencia de conflictos entre la población civil y los expedicionarios asturianos, lo que a su vez provocó que dichas tropas fueran percibidas como saqueadores<sup>29</sup>.

En este contexto es en el que se produce la colaboración de las brigadas expedicionarias de Asturias en la batalla de Lemoatx. Dos de las brigadas asturianas aportarán parte de sus efectivos a los combates para la recuperación de la posición. Por la *2ª Brigada Expedicionaria Asturiana*, mandada por Mateo Antoñanzas Gutiérrez, participarán los batallones *Víctor* y *Taboada*, mientras que por la *2ª Brigada*, dirigida por Joaquín Burgos Riestra, lo hará el *Máximo Gorki II*. Además de la infantería, los asturianos aportaron también las baterías de artillería que acompañaban a sus brigadas.

Las fuerzas que llegaron al País Vasco a combatir al ejército sublevado eran tropas con una amplia experiencia de guerra, ya que muchas de sus unidades llevaban combatiendo desde los primeros momentos de la sublevación. Muchos de sus combatientes antes de venir a tierras vascas ya habían compartido trincheras con los milicianos y gudarís cuando estos fueron a defender Asturias. En esta ocasión la misma escena se repetía pero en defensa de Bizkaia.

#### *El Batallón Víctor (208 de Asturias)*<sup>30</sup>

Perteneciente a la *2ª Brigada Expedicionaria Asturiana*, fue organizado por el anarquista Víctor Álvarez. Esta unidad había adquirido una gran experiencia en los combates por la recuperación de Oviedo. Cuando la unidad llega al País Vasco a primeros de abril, el mando lo ostentaba José Montero Riego. Una semana después toma parte en los combates del Saibigain, en los que destacará por participar en la recuperación del día 12. Después volverá a entrar en combate en la zona de Durango y la de Amorebieta-Etxano.

El batallón *Víctor* actuará en la batalla de Lemoatx como refuerzo de las tropas encuadradas en la *4ª Brigada Vasca*, tomando parte en los contrataques para la recuperación de la posición. Su acción más destacada en la batalla fue la del día 2 de junio en la que consiguen llegar hasta las alambradas, pero se ven obligados a retirarse por el hostigamiento a base de granadas de mano y de fuego de ametralladora al que son sometidos por los soldados sublevados.

<sup>29</sup> VARGAS, F.M.: "Euzkadi y el Norte republicano. Las Brigadas Asturianas y Santanderinas en el frente vasco", Vasconia, 38. zk. (2012).

<sup>30</sup> *Ibid.*

or.

**Taboada batailoia (Asturiasko 225)** <sup>31</sup>

Asturiasko 2. Espedizio-Brigadako, José López Taboada komunistak antolatu zuen. Euskal lurraldera apirilaren 5ean iritsi ziren Víctor batailoia antzerko borrokarako esperientziarekin. Euskal Herrian Saibigaineko guduan hartu zuen parte apirilean, eta Durango eta Amorebieta-Etxanokoetan maiatzean.

Asturiasko 225 batailoiak Lemoatxeko guduan parte hartu zuen 4. Euskal Brigada babestuz; zehatz esateko, brigada horrek berreskuratzeko egindako kontraerasoetan.

**Máximo Gorki II batailoia (Asturiasko 230)** <sup>32</sup>

Asturiasko 3. Espedizio-Brigadako, Joaquín Burgos Riestra komunistak antolatu zuen. Apirilaren 27an irten ziren Asturiastik Euskal Herrira eta apirila amaitezerako guduan ziren Durango inguruan: han izan zituzten lehenengo bajak. Maiatzean Ajuria eta Zugastietan (Muxika) inguruetan izandako guduetan hartu zuten parte.

Asturiasko 230 batailoiak Lemoatxeko guduan parte hartu zuen 4. Euskal Brigada babestuz; zehatz esateko, maiatzaren 30ean, 31n eta ekainaren 2an izandako kontraerasoetan hartu zuten parte.

**El Batallón Taboada (225 de Asturias)** <sup>31</sup>

Pertenciente a la 2ª Brigada Expedicionaria Asturiana, fue organizado por el comunista José López Taboada. Llega a tierras vascas el 5 de abril con una experiencia de combate similar a la del batallón Víctor. Ya en el País Vasco participará en los combates de Saibigain en abril, y en los de Durango y Amorebieta-Etxano en el mes de mayo.

El batallón 225 asturiano participará en la batalla de Lemoatx como apoyo a las fuerzas de la 4ª Brigada Vasca, concretamente en los contraataques realizados por dicha brigada para la recuperación.

**El Batallón Máximo Gorki II (230 de Asturias)** <sup>32</sup>

Pertenciente a la 3ª Brigada Expedicionaria Asturiana, fue organizado por el comunista Joaquín Burgos Riestra. Sale de Asturias el día 27 de abril con destino al País Vasco entrando en combate antes de que acabe abril en las proximidades de Durango, sufriendo allí sus primeras bajas. Durante el mes de mayo destacará por su participación en los enfrentamientos que se producen en la zona de Ajurias y Zugastietan (Muxika).

El batallón 230 asturiano participa en la batalla de Lemoatx como complemento de las fuerzas de la 4ª Brigada Vasca, tomando parte en los contraataques que tienen lugar los 30, 31 y 2 de junio.



**Milizianoak arrantxoan** (Irudia hemendik atera da: Hainbat egile: *La Guerra Civil en Euskadi*. Eusko Gudariak. DEIA) / **Milicianos en el rancho** (Imagen extraída de: VV.AA.: *La Guerra Civil en Euskadi*. Eusko Gudariak. DEIA).

<sup>31</sup> *Ibid.*

<sup>32</sup> *Ibid.*

### 1.4.1.2. Armada matxinatua

Uztailaren 18an, estatu-kolpea izan zenean, matxina-tuek antolakuntza handiagoa zuten, zerbitzu militarra eskain zezaketen gizonekin. Euskal Herri osoan Bilboko Garellano kuarteleko kideak izan ziren altxamenduarekin bat egin ez zuten bakarrak; Gipuzkoan altxamenduak porrot egin zuen altxamenduaren aurka zeuden boluntarioen eta alde zeuden militarren arteko borroken ondoren, azkenean militarrek mendean hartu baitzituzten. Nafarroan eta Araban altxamenduaren funtsezko elementuak izan ziren militarrek. Gerra egiteko entrenatutako pertsona profesionala izateaz gain, matxinatuek talde paramilitarrak zituzten, karlismoak eta falangeak antolatuta. Eta hori guztia gutxi balitz bezala, armada matxinatuak Hitlerren Alemaniak eta Mussoliniren Italiak bidalitako indarren laguntza izan zuen; hegazkinak, artilleria eta mota guztietako hornidura militarrek eskaintzeaz gain, gudari ugari ere eskaini zizkieten. Indarren pilaketa honek gerra osoan iraun zuen, eta argi ikusten da Lemoatxeko guduko borroketan.

Gerra Lemoara iritsi zenean, altxatutako agintariak zutabeetan oinarritutako antolakuntzatik brigadetan oinarrituta igarota zeuden. Brigada hauetako bigarrenari eman zitzaion Lemoatx okupatzeko agindua. Pablo Cayuela Ferreira koronelaren aginduetara zegoen brigada eta bi brigada erdiz eratuta zegoen; armada karlistaz eta falangistaz gain, italiar eta alemaniar hegazkinen babesa ere izan zuten.

Lemoatxen okupazioan 1. brigada erdiko indarrek izan zuten protagonismoa, Esparza teniente koronelaren aginduetara zeuden eta *Arapiles* batailoiko indarrak, *San Ignacio* eta *Nuestra Señora del Camino* erreketeen tertzioak, eta Nafarroako falangeko 4. bandera zeuden. Hauek ez ziren izan guduan parte hartu zuten unitate bakarrak, baina bai protagonistak. Hegazkinei dagokienez, Lemoaren gainean zenbait talde ibili ziren, dela *Condor Legioko* hegazkin matxinatuak, dela *Aviazione Legionaria* italiarrekoak. Artilleriari dagokionez, hegazkinekin bezala, altxatuen bitartekoak, italiarrak eta alemaniarrek erabili ziren.

#### *Indar profesionalak*

##### **1.4.1.2.1. - ARAPILES MENDIKO BATAILOIA, 7. ZK.**

*Mendiko 2. Brigadan* sartutako armadako unitatea, bere kuartela Lizarran zuen 2. brigada erdiaren atala. Unitateko gizonek trebakuntza militarra jaso zuten; beraz, borrokarako beste edozein unitate baino prestatuago zeuden. Agintariak ere karrerako profesionalak zirenez eta altxamendua baino lehen antolatutako indarra zenez, argi dago horrelako batailoiak abantaila handia zirela matxinatuentzat.

Altxamenduaren ondoren, *Arapiles* batailoia Lizarrako kuarteletik irten zen estatu-kolpeak garaipenik izan ez zuen eremuak mendean hartzerantz: hasteko, Nafarroako Erribera eta, ondoren, Gipuzkoa. Legezketasunaren eta askatasunaren alde zeudenek erresistentzia handia egin arren, batailoia hau hilabete gutxian iritsi zen Bizkaiko mugetara, eta Oiartzun, Tolosa edo Lasarte mendean hartu ziren ekintzetan hartu zuten parte, besteak beste, euren ibilbide horretan. Ekintza horietan unitatea zutabe baten barruan zegoen, Cayuela teniente koronelarenean, eta hau izan zen

### 1.4.1.2. Ejército sublevado

El 18 de julio, cuando se produce el golpe de estado, son los sublevados los que cuentan con una mayor organización de hombres que pueden prestar servicios de tipo militar. En todo el País Vasco tan solo los miembros del cuartel de Garellano en Bilbao, no se suman a la sublevación, mientras que en Gipuzkoa la sublevación fracasa después del enfrentamiento entre los voluntarios que se oponen al golpe y los militares que lo secundan y que finalmente son doblegados. En Navarra y en Araba los militares son un elemento fundamental de la sublevación. Además de contar con personal profesional entrenado para hacer la guerra, los sublevados contaban con los grupos paramilitares organizados por el carlismo y la falange. Y por si esto fuera poco el ejército sublevado se vio asistido por las fuerzas enviadas por la Alemania de Hitler y por la Italia de Mussolini, quienes no solo proporcionaron aviones, artillería y todo tipo de pertrechos militares, sino que también aportaron un gran número de combatientes. Este conglomerado de fuerzas actuaría durante toda la guerra, algo que se puede apreciar claramente en los combates de la batalla de Lemoatx.

Cuando la guerra llegó a Lemoa los mandos sublevados ya habían pasado de una organización en base a columnas a otra fundamentada en brigadas. Sería la segunda de estas brigadas a la que se le asignaría la misión de ocupar Lemoatx. La brigada estaba al mando del coronel Pablo Cayuela Ferreira y se componía de dos medias brigadas en las que estaban representados ejército, carlistas y falangistas, que además contaron con el apoyo de la aviación italiana y alemana.


El protagonismo de la ocupación de Lemoatx lo ejercieron las fuerzas que integraban la 1ª media brigada, que estaba al mando de teniente coronel Esparza y compuesta por fuerzas del batallón *Arapiles*, de los tercios de requetés *San Ignacio* y *Nuestra Señora del Camino* y la 4ª bandera de falange de Navarra. Estas no serían las únicas unidades que tomaron parte en la batalla, pero sí las que tuvieron un papel protagonista. En lo que a la aviación respecta fueron varios los grupos que actuaron sobre Lemoa tanto de la aviación sublevada como de la *Legión Cóndor* y de la *Aviazione Legionaria* italiana. También en cuanto a la artillería, como ocurría con la aviación, se emplearon medios sublevados, italianos y alemanes.

#### *Fuerzas profesionales*

##### **1.4.2.2.1. - BATALLÓN DE MONTAÑA ARAPILES Nº 7**

Unidad perteneciente al ejército que estaba encuadrado en la 2ª *Brigada de Montaña* como parte de 2ª media brigada que tenía su cuartel en Estella. Los hombres que formaban la unidad habían recibido instrucción militar, por lo que su preparación para el combate era muy superior a la de cualquier otra unidad. Si a esto le añadimos que sus mandos son profesionales de carrera y que es una fuerza ya organizada con anterioridad a la sublevación, es evidente cómo este tipo de batallones suponían una gran ventaja para los sublevados.

Producida la sublevación, el batallón *Arapiles* salió de su cuartel en Estella para dominar las zonas en las que el golpe de estado no había triunfado: primero la Ribera navarra y después la provincia de Gipuzkoa. Este batallón, a pesar



*Arapilesen* himno militarak (Agiritegi partikularra). / Himnario militar del *Arapiles* (Archivo particular).

etorkizuneko *Nafarroako 2. Brigadaren* ernamuina. Bizkaiaren aurkako erasoaren hasieran, matxinatuek Deban zuten euren kuartela eta handik Aretxabaletara irten zen; handik egun gutxira Kalamua eta Arrate mendien okupazioan hartu zuen parte. Gero gauza bera egin zuen Elorrion eta Durangon. Maiatzean unitatea Amorebieta-Etxano inguruko mendietan zen, Bernagoitia eta Mañariko haitzetako gailurrak lortzeko borrokan, eta hortik Lemoa aldera irten zen azkenean.

*Arapiles*, beraz (bere lehenengo batailoia zehatz esateko), Lemoatxeko guduan izan zen 1. brigada erdiaren barruan. Unitate hau izan zen erasoaren protagonistetako bat eta egun batzuetan matxinatuak izan ziren kokapenaren buru. Hainbat egunez *Eusko Gudarostearen* kontraerasoari aurre egin zion, txanda hartu zioten arte. Handik gutxira Lemoatx berriro hartzeko erasoetan hartu zuen parte, eta zenbait saiakera egin behar izan zituen, milizianoek eta gudariak egindako erresistentziaren ondorioz.

### Erreketeen Tertzioa

Militar profesionalekin batera, matxinatuek indar paramilitarren laguntza izan zuten; Errepublikan kanporatzeko konspiratu zuten erakunde politikoek antolatu zituzten indar horiek. Talde paramilitar ugari zen arren, Euskal Herrian garrantzitsuena erreketeeena zen. Erakunde hau Karlismoaren mendekoa zen zuzenean eta tradizionalismoaren milizia zen. Erakunde paramilitar hori estatu-kolpearen aurretik antolatu zen eta altxamendua baino hilabete batzuk lehenagotik instrukzio militarra jasotzen ari ziren borrokarako tekniken inguruan; halaber, armak erabiltzen ikasi zuten. Lemoatxeko guduan erreketeen zenbait tertziok hartu zuten parte, besteak beste Nafarroako batek eta Gipuzkoako beste bik.

de la resistencia que ofrecieron los defensores de la legalidad y la libertad, en pocos meses se había situado ya en los límites de Bizkaia, participando a lo largo de su recorrido en las operaciones en las que se ocuparon distintos pueblos como Oiartzun, Tolosa o Lasarte, entre otros. En estos episodios la unidad estaba encuadrada en la columna del teniente Coronel Cayuela que sería el embrión de la futura 2ª *Brigada de Navarra*. Al inicio de la ofensiva sublevada contra Bizkaia el *Arapiles* tenía su cuartel en Deba, de donde salió para Aretxabaleta, y a los pocos días, el batallón tomó parte en la ocupación de los montes Kalamua y Arrate. Después haría lo mismo en las localidades de Elorrio y Durango. En el mes de mayo la unidad se encuentra en los montes próximos de Amorebieta-Etxano para luchar por las cumbres de Bernagoitia y Peñas de Mañaria, desde donde finalmente saldría hacia Lemoa.

Así pues, el *Arapiles*, concretamente el primero de sus batallones, tomó parte en la batalla de Lemoatx encuadrado en la 1ª media brigada. Esta unidad fue una de las protagonistas del asalto que durante unos días dio el dominio de la posición a los sublevados. Durante varios días tuvo que hacer frente a los contrataques del Ejército Vasco hasta que es relevado. Poco después volvería a participar en los ataques para volver a ocupar Lemoatx, para lo que tuvo que realizar varios intentos debido a la resistencia ofrecida por los milicianos y gudaris.

### Tercios de Requetés

Junto con los militares profesionales, los sublevados contaban con las fuerzas paramilitares organizadas por las distintas organizaciones políticas que conspiraron para el derrocamiento de la República. Entre los distintos grupos de paramilitares el más importante en el País Vasco era el de los requetés. Esta organización dependía directamente del Carlismo y actuaba como la milicia del tradicionalismo. Esta organización paramilitar se organizó con anterioridad al golpe de estado y venían recibiendo meses antes de la sublevación instrucción militar en técnicas de combate y manejo de armas. En la batalla de Lemoatx tomaron parte varios tercios de requetés, entre los que había un tercio navarro y dos guipuzcoanos.



Armarri karlista / Escudo carlista.



### *Nuestra Señora del Camino Erreketeen Tertzioa*<sup>33</sup>

Nafar jatorriko tertzioetan seigarrena, ez dago tertzio honen erreferentzia ofizialik estatu-kolpeak porrot egin eta hilabete batzuk igaro arte. Ordura arteko unitateen erreferentzietan, erreketete-talde zenbait aipatzen dira, eta horiek izan ziren tertzioaren ernamuinak. *Nafarroako 2. Brigadan* sartutako tertzio honen lehenengo erreferentzia 1937ko otsailaren 10ekoa da, nahiz eta unitate hori osatzen zuten hiru konpainiak urtarrilean Markina eta Elgoibar inguruan elkarrekin zebiltzala dirudien. Bizkaia okupatzeko ekintzen hasieran, konpainia hauek berriro ere banatuta aritu ziren ia hilabetez. Aldi hartan *Nuestra Señora del Camino* tertzioko erreketeteak Eskoriatzatik abiatu eta Bizkaia aldera joan ziren, Aramaioko ibarretik Anboto eta Udala aldera sartu ziren, eta handik Durangora igaro. Durangotik Iurreta aldera jo zuten, Ibaruritik Amorebieta-Etxano aldera eta hor berriro ere elkarrekin aritu zen nafar tertzioa.

Lemoatxeko guduan tertzio honek euskal indarrei kendutako kokapena defendatzeko misioa izan zuen maiatzaren 30etik ekainaren 2ra. *Eusko Gudarosteak* Lemoatx berreskuratu ondoren, gailurra behin betiko okupatu zuen erasoan hartu zuen parte tertzioak.

### *Tercio de Requetés Nuestra Señora del Camino*<sup>33</sup>

Sexto de los tercios de origen navarro, no se tienen referencias oficiales de este tercio hasta pasados unos meses del fracaso del golpe de estado. Hasta entonces las referencias que se conservan sobre la unidad se refieren a distintos grupos de requetés que constituirían el germen del tercio. La primera referencia al tercio encuadrado en la *2ª Brigada de Navarra* es del 10 de febrero de 1937, aunque parece que las tres compañías que formaban esta unidad ya actuaban de manera conjunta el mes de enero en la zona de Markina y Elgoibar. Al comienzo de las operaciones para la ocupación de Bizkaia, estas compañías volverían a actuar por separado durante casi un mes. Durante este periodo, los requetés del tercio *Nuestra Señora del Camino*, partiendo desde Eskoriatza, avanzarían sobre Bizkaia penetrando por el valle de Aramaio por la zona de Amboto y Udala, desde donde pasarían a Durango. Desde la capital del duranguesado se continuó por Iurreta, Ibaruri hasta llegar a la zona de Amorebieta-Etxano, donde el tercio navarro volverá a actuar conjuntamente.

En la batalla de Lemoatx este tercio tuvo la misión de defender la posición arrebatada a las fuerzas vascas desde el día 30 de mayo hasta el día 2 de junio. Tras la recuperación de Lemoatx por el Ejército Vasco, el tercio participaría en el ataque en que se ocuparía definitivamente la cima de la montaña.



**Nafarroako erreketeteak Bizkaiko fronteian** (Pablo Larraz agiritegia. 236. or. *Requetés de las trincheras al olvido*, Pablo Larraz eta Victor Sierra-Sesúmagá) / **Requetés navarros en el frente de Bizkaia** (Archivo Pablo Larraz. pág. 236. *Requetés de las trincheras al olvido*, Pablo Larraz y Victor Sierra-Sesúmagá).

<sup>33</sup> AROSTEGUI, J.: *Combatientes requetés en la Guerra Civil española (1936-1939)*, 2013.

or.

**Oriamendiko Tertzioa**<sup>34</sup>

Gipuzkoan antolatutako erreketeen tertzioetan lehenengo. 1936ko abuztuan hasi zen eratzen erreketeeekin eta soldadutzarako errekrutatutako adineko gizonezkoekin, batez ere Oria ibarrekoekin, Ordiziatik Donostiara bitartekoekin. Urrian ofizialki erata zegoen eta Deba ibaiaren ingurura bidali zen *Oriamendi*; zonalde horretan banatu egin ziren bere konpainiak azaroaren erdi aldera arte, eta Debagoieneko ekintzetan hartu zuen parte orduan; bertan egon zen Bizkaia okupatzeko kanpaina hasi arte. Bizkaian sartu ziren, guduan sartu gabe, Urkiola eta Saibigain ingurutik; ondoren, Amorebieta-Etxano inguruan ibili ziren borrokan, 333 kotan eta San Martin pinudian.

*Oriamendik* Lemoatxeko guduan parte hartu zuen, borrokarik garrantzitsuenetako unitate protagonistak babesteko eta albotik erasotzeko ekintzak egin baitzituen.

**Tercio de Oriamendi**<sup>34</sup>

Primero de los tercios de requetés organizados en Gipuzkoa. Comenzó a constituirse en agosto de 1936 con requetés y hombres reclutados en edad militar procedentes de la cuenca del Oria, desde Ordizia hasta Donostia. En octubre, ya constituido oficialmente, el *Oriamendi* es enviado a la zona del río Deba donde sus distintas compañías actuarían por separado hasta mediados de noviembre, cuando toda la unidad tomaría parte en las operaciones de la zona del alto Deba, y donde permanecerá hasta el inicio de la campaña de ocupación de Bizkaia. Entraron en Bizkaia, sin entrar en combate, por la zona de Urkiola y Saibigain, después combatirían en la zona de Amorebieta-Etxano en la cota 333 y en el pinar de San Martin.

El *Oriamendi* participaría en la batalla de Lemoatx en operaciones de apoyo y flanqueo a las unidades que protagonizaron los combates más importantes.



Altxatutako tropetako soldaduak.  
**Oriamendi tertzioak** (*Gudaris* liburua, 207. or., hainbat egile, Canario Azaola agiritegitik atera).  
**Soldados de las tropas sublevadas.**  
**Tercio Oriamendi** (Libro gudaris pag 207, VVAA sacada del Archivo Canario Azaola).

**San Ignacio Tertzioa**<sup>35</sup>

*San Ignacio tertzioak* antolakuntza militarren beste izen bat izan zuen: "*Gipuzkoako 2. tertzioa*". Urola bailarako herrietan zeuden erreketeeekin eratu zen, eta bailara hori okupatzean unitatean errekrutatu ziren soldadutza egiteko adinean ziren gizonezkoak. Bertako kide gehienak Azpeitia, Azkoitia eta Zestoakoak ziren. Dena dela, zonalde horretan erreketetaldia zegoen eta uztaillaren 22an altxatu ziren arren, irailaren amaierara arte ez ziren sortu lehenengo konpainiak. Ondoren eratu zen lehenengo tertzioa.

Urriaren amaieran tertzioa Zarautz eta Mutriku arteko sektorera bidali zen, Cayuela taldearen barruan, *Nafarroako 2. Brigada* izango zenaren ernamuinean. Baina, gerraren bilakabidearen ondorioz tertzioak ez zuen parte hartu ekintza nabarmenetan, harik eta matxinatuek

**Tercio de San Ignacio**<sup>35</sup>

El *tercio de San Ignacio* recibió en la organización militar la denominación "*2º tercio de Guipúzcoa*". Se formó con requetés existentes en los pueblos del valle de Urola, y una vez ocupada dicha cuenca, a la unidad se reclutaron los hombres en edad militar. Los principales lugares de procedencia de sus integrantes serían los pueblos de Azpeitia, Azkoitia y Zestoa. No obstante, a pesar de la existencia en la zona de grupos de requetés que incluso llegaron a sublevarse el día 22 de julio, no sería hasta finales de septiembre cuando se crearían las primeras compañías que más tarde constituirían el tercio.

A finales de octubre el tercio es destinado al sector comprendido entre Zarautz y Mutriku, formando ya parte de la agrupación Cayuela, germen de la futura *2ª Brigada de Navarra*. Sin embargo, por el desarrollo de la guerra el tercio no tomaría parte en acciones reseñables hasta el inicio de la ofensiva su-

<sup>34</sup> AROSTEGUI, J.: *Combatientes requetés en la Guerra Civil española* (1936-1939), 2013.

<sup>35</sup> *Ibid.*

Bizkaiaren aurkako eraso hasi zuten arte. *San Ignacio* Debagoiena ingurutik hasi zen aurreratzen, eta Anboto aldetik Otxandiora igaro zen. Apirilean Udalako erasoetan hartu zuen parte eta handik Durangora joan ziren. Maiatzean, Lemoatxeko guduan, Amorebieta-Etxano eta Bernagotiako ekintzetan hartu zuen parte.

Lemoatxeko guduan posizioa mantentzea esleitu zitzaion ekainaren 2tik aurrera; beraz, euskal indarrek berreskuratze-ko egindako erasoetan unitaterik zigortuena izan zen; hilaren 3an lortu zuten berreskuratzea. Handik bi egunera egin zen erasoan ere parte hartu zuten eta *Eusko Gudarosteak* Lemoatx utzi behar izan zuen eraso haren ondorioz.

### Falangistak

Tradizionalistekin eta euren erreketeen tertzioekin gertatzen zen bezala, Falangeak ere talde paramilitarrak zituen. Falangearen kasuan, talde hauei "zenturia" esaten zitzairen, eta gerra hasi ondoren zenturia horiek taldekatuz joan ziren Falangearen Banderak izenarekin. Altxatutakoen mende geratu ziren lurraldeetako bakoitzean eratu ziren, Falangearen Banderak tokiko falangista-taldeak eta soldadutza egiteko adineko gizonezkoak hartuta. Horien antolakuntza militarerako, unitateak zenbakitu egiten ziren eta amaieran jatorriaren izena jarri zitzairen. Lemoatxeko guduan parte hartu zuen falangeko unitateetako bat *Nafarroako Falangeko 4. Bandera Espainiarra* izan zen. Ez dakigu zehatz noiz sortu zen, kanpainako egunkariak adierazten duen bakarra abuztuaren 6an Iruñetik irten zirela baita, eta *Cayuela* zutabearen sartu zirela. Zutabe horretan aritu ziren Gipuzkoa okupatzeko ekintzetan. Bizkaiaren aurkako erasoan, Lemoara iritsi aurretik, unitate horrek borrokaldi nabarmenetan hartu zuen parte, hala nola 333 kotakoan edo Amorebieta-Etxano inguruko mendietakoetan.

Lemoatxeko guduari dagokionez, Nafarroako Falangeko 4. Banderak maiatzaren 29an ekintzan hartu zuen parte, altxatuek Lemoatxeko gailurra hartu zuten eta egun batzuk egin zituen, ekainaren 3an *Eusko Gudarosteak* posizioa berreskuratu zuen arte.

blevada contra Bizkaia. El *San Ignacio*, comenzará su avance desde la zona del alto Deba y avanzará por la zona del Anboto desde donde pasaría a Otxandio. En abril participaría en los ataques a Udala, y desde allí marcharía a Durango. En mayo, antes de la batalla de Lemoatx, participaría en las operaciones sobre Amorebieta-Etxano y Bernagotia.

Durante la batalla de Lemoatx se le asignó el mantenimiento de la posición desde el día 2 de junio, por lo que sería la unidad más castigada durante la recuperación que las fuerzas vascas consiguen el día 3. A los dos días participaría en la ofensiva que obligaría al Ejército Vasco a abandonar Lemoatx.

### Falangistas

Al igual que ocurría con los tradicionalistas y sus tercios de requetés, la Falange disponía de grupos paramilitares. En el caso de la Falange estos grupos se llamaban centurias, y una vez comenzada la guerra estas centurias se fueron agrupando bajo la denominación de *Banderas de Falange*. En cada uno de los territorios que quedaron bajo dominio de los sublevados se constituyeron Banderas de Falange a partir de los grupos locales de falangistas y de los hombres en edad militar. Para la organización militar de las mismas estas unidades eran numeradas y se les añadía al final el origen. Una de estas unidades adscritas a falange participó en la batalla de Lemoatx, concretamente la llamada *4ª Bandera de Falange Española de Navarra*. Se desconoce la fecha exacta de su creación, ya que en el diario de campaña solo se indica que salieron de Pamplona el 6 de agosto, integrándose en la columna *Cayuela* con la que participaría en las operaciones de ocupación de Gipuzkoa. En la ofensiva contra Bizkaia, antes de su llegada a Lemoa, esta unidad tomó parte en destacados enfrentamientos como los de la cota 333, o en los montes que circundan Amobieta-Etxano.

En lo que a la batalla de Lemoatx concierne, la *4ª Bandera de Falange de Navarra* participó en la operación del día 29 de mayo, en la que los sublevados lograron ocupar la cima de Lemoatx y donde la unidad permanecería durante días, hasta que el 3 de junio el ejército vasco recupera la posición.



Falangistak Zeanurin desfilatzen, herria hartu ondoren (Urigoitia, V. alea, 160. or.).

Falangistas desfilando en Zeanuri tras la captura de la localidad (Urigoitia, tomo V, pág. 160).

or.

## 1.4.2. LEMOATXEKO GUDUA. 1937-05-29TIK 1937-06-12RA

II. Errepublikak ekarri zuen legezkotasun demokrati-koarekin amaitzeko gizarteko sektore garrantzitsuen babe-sarekin armadak emandako estatu-kolpeak porrot egin eta hamar hilabetera, Lemoara iritsi zen gerraren krudeltasun osoa. Garai honetan gerraren munstroak Gipuzkoa ia osoa eta Bizkaiaren zati handi bat suntsitu zituen, heriotza, suntsiketa, beldurra eta atzerriratzeak eragin zituen eta errotik erauzi zituen biztanleriaren eskubideak eta askatasunak, faxismoak sustraitzeko arazorik izan ez zezan.

Datozen orrialdeetan Lemoako borrokaldien berri emango da; historiografiak zenbait izen eman dizkie, hala nola, *Peña Lemonako* gudua, *Peñas de Lemonako* gudua, *Lemuaitzeko* gudua edo *Lemonako* gudua. Guk "Lemoatxe-ko gudua" erabiliko dugu, auzotarrek izen hori erabiltzea erabaki baitute.

Lemoatxeko guduaren kontakizunean ikusi ahal izango da milaka pertsona arruntek zenbateko balorea eta ausardia izan zuten, estatu-kolpea eman zutenen garai-penak berekin zuen mehatxuaren aurrean; dena utzi eta legezkotasuna eta askatasuna defendatzea erabaki zuten milaka izan ziren. Ehunka lagunak bizitzak gertakari larri horietan amaitu ziren, eta sendatu ezinezko zauri fisiko eta psikologikoak utzi zituzten hainbat borrokalarirengan. Onartzen ez zuten diktadura ezartzera zetorren armadari aurre egin zioten haiek jazarpen gogorra jasan zuten, eta are errepresio gogorragoa.

Lemoatxeko gudua zedarria izan zen gerra zibilaren Bizkaiko historian; izan ere, gudu hartan lortu zuen *Euskadiko Gudarosteak* azkenengo aldiz irabaztea, eta altxatu-tako armadak nabarmen atzera egin behar izan zuen. Hori guztia egileen artean desberdintasun nabarmenak zeuden inguruan gertatu zen. Kolpisten armadak aginte-koadro profesionala zuen, taktika militarren eta armak erabiltzen entrenatutako soldaduak, trebakuntza paramilitarrarekiko boluntario talde garrantzitsua, artilleriaren bitarteko ugari, eta Italia eta Alemaniako hegazkinen laguntza; aldiz, *Eusko Gudarostearen* militar profesional gutxi zegoen, eta hauek zuzendu behar zuten atxikimendu politiko desberdinetako batailoien multzoa. Hasiera batean boluntarioz eratutako batailoiak izan ziren, eta gero soldadutza egiteko adinean zeuden gizonak sartu ziren, Asturiasko boluntarioen laguntza izateaz gain. Gainera, ez zenez armada profesionala, euskaldunak ahal bezala armatu behar izan ziren, esku-hartzerik ezaren politikaren ondorioz, nazioarteko arma-kontrabandistengana jo behar izan zuten, eta hori desabantaila handia izan zen altxatuek zituzten bitartekoekin alderatuta. Askatasunaren defendatzaileen aurka zeuden faktore hauek guztiak kentzerik ez zegoenez, aurre egin beharra zegoen eta horretarako burua behar zen, irmotasuna eta, batez ere, adorea handia. Lemoatxeko guduan argi geratu zen.

Lemoatxeko guduaren kontakizuna eraikitzeko, gudariaren memoria pertsonal ugari erabili dira, baita guduan parte hartu zuten unitateen agiri ofizialak eta garai hartako prentsako albisteak ere. Horien guztien artean nabarmentzen dira Patxo Gorritxoren memoriak (4. Euskal Brigadako burua), Jaime Urkijorenak (6. Euskal Brigadako buruaren laguntzailea), altxatu-tako unitateetako ekintzen egunerokoak eta tokiko kazetariaren

## 1.4.2. LA BATALLA DE LEMOATX. 29-5-37 AL 12-6-37

Diez meses después del fracaso del golpe de estado perpetrado por parte del ejército con el apoyo de sectores muy importantes de la sociedad, para acabar con la legalidad democrática que trajo la instauración de la II República, la crueldad de la guerra llegaba a Lemoa. En ese tiempo el monstruo de la guerra asoló prácticamente la totalidad del territorio de Gipuzkoa y gran parte del de Bizkaia, sembrando a su paso la muerte, la destrucción, la desolación, el miedo y el exilio, y arrancando de raíz los derechos y libertades de la población, para que de esta forma el fascismo no tuviera problemas en arraigar.

En las próximas páginas se narrarán los combates que se produjeron en Lemoa y a los que desde la historiografía se han dado distintas denominaciones como batalla de *Peña Lemon*, batalla de las *Peñas de Lemon*, batalla de *Lemuaitz*, o batalla de *Lemon*, pero a la que se hará referencia como batalla de Lemoatx, ya que este es el nombre que han decidido darle los vecinos.

En el relato de la batalla de Lemoatx se podrán apreciar el valor y valentía de miles de personas corrientes que, ante la amenaza que suponía el triunfo de los golpistas, decidieron dejarlo todo de lado para defender la legalidad y la libertad. Nos adentraremos, pues, en los trágicos sucesos que acabarían con la vida de cientos de personas, y que dejarían heridas incurables tanto a nivel físico como psicológico en un número indeterminado de combatientes. Sucesos que serían el motivo de una dura persecución y una aún más dura represión para todos aquellos que decidieron hacer frente al ejército que venía a imponer una dictadura con la que no comulgaban.

La batalla de Lemoatx representa un hito dentro de la historia de la guerra civil en Bizkaia ya que viene a ser la última vez en la que el *Ejército de Euzkadi* logra vencer y hacer retroceder de manera evidente al ejército sublevado. Esto ocurre en un escenario de clara desigualdad entre actores. Mientras que el ejército dirigido por los golpistas contaba con cuadros de mando profesionales, soldados entrenados en tácticas militares y manejo de armas, un importante grupo de voluntarios con formación paramilitar, una cantidad importante de medios artilleros y la colaboración de la aviación italiana y alemana, el *Ejército Vasco* se conformaba de un grupo muy reducido de militares profesionales que tenía que dirigir un conglomerado de batallones de distintas adscripciones políticas, compuestos en un primer momento por voluntarios, y más tarde con la movilización de los hombres en edad militar, a lo que habría que sumar la ayuda de los voluntarios asturianos. Además, al no ser un ejército profesional, los vascos tuvieron que armarse de la forma que pudieron, viéndose obligados a recurrir, a causa de la política de no intervención, a los contrabandistas internacionales de armas, lo que suponía una seria desventaja frente a los medios de los que disponían los sublevados. Todos estos factores que jugaban en contra de los defensores de la libertad solo podían ser afrontados, que no eliminados, con mucho ingenio, tesón y sobre todo mucho valor, algo que se podrá apreciar en la batalla de Lemoatx.

Para la construcción del relato de la batalla de Lemoatx se han utilizado un importante número de memorias personales de combatientes, al igual que documentación oficial de las

kronikak, hala nola Euzkadi Rojaren kronikak eta nazioartekoak. Nazioartekoetan George L. Steer nabarmentzen da, Gernikako bonbardaketa kriminala salatzeaz gain, Lemoatxeko guduaren berri ere eman baitzuen, besteak beste.

#### 1.4.2.1. Lemoatxeko guduaren aurreko egunak

Lemoatxeko gudua hasi aurretik, gerraren izugarrikeria Lemoan zen, hamar egun lehenago hasi baitzen bonben zigorra jasaten. Bestalde, Eusko Jaurlaritzak erabaki zuen udalerraren inguruko gailurretan defentsa-sistema bat ezarri behar zela, kolpisten tropei aurre egiteko: Amorebieta-Etxanoko borrokaldia gero eta gertuago ikusten zen Arratiako udalerrri industrialetik.

Gerrako frontea gerturatzen ari zen Lemoara eta, ondorioz, Lemoatx mendiguneko gailurretan lubakiak egiten hasi ziren. Ordura arte Amorebieta-Etxanon ari ziren gerra jasaten, ia errauts bihurtuta geratu zen, udalerriko mendirik estrategikoenak odolez gorritu ondoren. Azkatasuna ingeniarien batailoia iritsi izanak esan nahi zuen gerra berehala zela Lemoako lurretan ere. Zubiaga izan zen batailo horretako azkenengo komandanteetako bat, eta, bere memorien arabera, batailoia maiatzaren 17an iritsi zen Lemoatxera eta bost egunez aritu ziren gotortzen. Egun horietan EAERI atxikitako zulatzaileek defentsa-sistema bat egin zuten han: lubakiak egin zituzten, metrilladoreentzako habiak, infanteriarentzako babesak eta hesiak jarri zituzten<sup>36</sup>. Defentsarako sistema hari esker, legezatasuna eta askatasuna defendatzen zutenek gutxieneko bermeak zituzten kokapena defendatzeko. Baina, berme horiek laster eraso zituzten altxatuen bonbek.

Lemoatxeko gailurretan lubaki-sistema eraikitzen hasia gerra gertu zenaren adierazle bazen ere, udalerriak jasan zituen lehenengo bonbardaketan ondorioz argi geratu zen bertan zela. Beldarrainek eman digu lehenengo bonbardaketaren berri, Modesto Garmendiak kontatu baitzion bera eta beste kide batzuk zauritu egin zirela maiatzaren 22an hogeitahogazkin inguruk egindako bonbardaketan<sup>37</sup>.



Lemoako bonbardaketa / Bombardeo de Lemoa (Gerediaga Elkarte).

distintas unidades que participaron en la batalla y las noticias recogidas en la prensa de la época. Destacan entre ellas las memorias de Patxo Gorritxo, jefe de la 4ª Brigada Vasca, Jaime Urkijo, ayudante del jefe de la 6ª Brigada Vasca, los diarios de operaciones de distintas unidades sublevadas, y las crónicas de los periodistas locales, como las crónicas Euzkadi Roja, o las internacionales, destacando la de George L. Steer quien, además de denunciar el criminal bombardeo sobre Gernika, informó también sobre la batalla de Lemoatx, entre otras.

#### 1.4.2.1. Días previos a la batalla de Lemoatx

Antes de que diera comienzo la batalla de Lemoatx, los horrores de la guerra ya habían hecho acto de presencia en Lemoa, y es que desde diez días antes empezó a sufrir el castigo de las bombas. Por su parte, el Gobierno Vasco había tomado la determinación de establecer un sistema defensivo en las cumbres que dominan la localidad para hacer frente al avance de las tropas dirigidas por los golpistas, ya que los ecos de los combates en la vecina Amorebieta-Etxano cada vez se sentían más próximos en la localidad industrial de Arratia.

Lemoatxekoa prekariora izan zen, aintzat hartu behar baita baliabide gutxioko egoera bizi zela. Defentsarako lerroak pikotxa eta palarekin egin ziren erritmo bizian. Astebete baino gutxiago zuten lubakiak egiteko, sakonera egokian parapetoak jartzeko eta metrailadoreen habiak jarri eta kamuflatzeko, baita alabrezko hesiak jartzeko ere, lurrez eta airez iristear baitziren altxatutako tropak.

1937ko maiatzaren 22an izan ziren lehenengo bonbardaketak eta suntsiketak herrian. Lubakietan kalteak etengabeak ziren eta defentsak berriro egokitzeko lanak egin behar ziren bonbardaketa eta lurreko eraso bakoitzaren ondoren. Horrez guztiaz gain, zuloak urak hartzen zituen eta lokatzetan etengabe ibiltzearen ondorioz, gotorlekuen hasierako egoera aldatu egiten zen.

Guduaren ondoren altxatutako tropek aurrera egin zutenean, lubakiak bertan behera utzi ziren. Bakea itzuli zen mendira, paisaia erabat eraldatu zen arren. Batetik, eraikuntzek eraldatu zuten defentsarako askotariko elementuak ezarri ziren; bestalde,

### 2.3. EL MONTE, LA GUERRA Y EL OLVIDO

Según la documentación histórica, fueron en un primer momento 842 soldados quienes cavaron durante seis días la hilera de trincheras que rodean el macizo próximo a Lemoa. El resultado fue la fortificación de “Peña Lemoa” hoy denominada Lemoatx, escenario físico de los enfrentamientos bélicos, cambiando de bando en numerosas ocasiones durante el transcurso de las dos semanas de batalla.

En cuanto a la información que podemos prestar a modo general y como introducción antes de desarrollar el sistema defensivo de manera íntegra, sería aclarar que una trinchera es una zanja de resistencia y ataque, excavada en el propio suelo, donde los soldados se protegen mientras pueden abrir fuego de una manera relativamente segura. Hay muchas tipologías de trinchera en función de su forma, su complejidad de elementos y construcción.



Figura 19.—Atrincheramiento ondulado




Figura 20.—Atrincheramiento en salientes




Figura 21.—Atrincheramiento en cremallera

Lubakien tipologia / Tipología de trincheras (Capdevila, 1938).

La forma constructiva en Lemoatx fue precaria y con escasos recursos para la situación que estaba en juego. Las líneas de defensa se construyeron con picos y palas, a un ritmo intenso. En menos de una semana debían excavar las trincheras, habilitar parapetos con la profundidad adecuada, e instalar y camuflar los nidos de ametralladoras, así como montar las líneas de alambradas ante el peligro inminente de la llegada tanto por tierra como por aire de las tropas sublevadas.

Efectivamente, el día 22 de mayo de 1937, llegaron los primeros bombardeos y las consecuentes destrucciones en la localidad. Los daños en las trincheras eran constantes, y las reparaciones para volver a habilitar las defensas se repetían después de cada bombardeo y ataque terrestre. Todo lo cual unido a las inundaciones de las zanjas y el pisoteado insistente sobre el fango alteraba el estado inicial de las fortificaciones.

Tras la batalla y el avance de las tropas sublevadas, las trincheras fueron abandonadas. El monte volvió entonces a conocer la paz, aunque dejando una profunda alteración del paisaje. Modificación originada tanto por fenómenos constructivos-diferentes tipologías de elementos defensivos- como por fenómenos destructivos - bombardeos de la artillería y la aviación - que generaron numerosos cráteres y socavones.



Lemoatxeko lubakiak, utzi ondoren / Trincheras de Lemoatx después de su abandono (AGG-GAO OA 1631 © CC BY-SA: Ojanguren, Indalecio).

artilleriaren eta hegazkinen bonbardaketek zulo ugari egin zituzten.

1937an militarrek utzi zutenetik, Lemoatxek hainbat okupazio-aldi izan ditu gaur egunera arte. Denborak eta giza jarduerak pixkanaka estali dituzte gerraren orbainak. Bereziki aipatu behar gerraostean txatarra biltzaileen etengabeko presentzia, baita ezkutuko detektoristak ere, lagatze primarioan eta guduan sortutako kultura materialaren ordenan eraginez.

80 urte igaro dira eta prozesu naturalek eraldatu egin dute gailurraren itxura. Urak eta haizeak eragindako narriadurak mazelak eta azaleko gorabehera lisatu ditu, sedimentuak eta harriak lekualdatu, eta lubakiak bete. Landaredia itzuli da utzitako tokietara, sustraiek erasana izan dute lurpean eta lursaillean egon zitezkeen gorabeherak estali ditu landaredi horrek. Mendian eragina duten prozesuak dira, iraganezko aztarnak ezkututzen dituztenak.

Gerraostean Lemoatx ikur memorialista bihurtu zen erregimen frankistarentzat eta monumentu multzo bat egin zen mendian. Kapera-mausoleoa eta gurutzea eraiki ziren gailurrean, errepide bat eta gurutze-bidea, eta kalbario bat mendigunearen punturik garaienean.

Pixkanaka hegoaldeko mazelako harrobia ustiatzen hasi ziren berriro, pinuak landatu ziren mendigune osoan eta inguruaren itxura erabat aldatu zen. Era berean, inguruko ustiatze-mota aldatu egin zen -gerra aurretik abeltzaintza besterik ez zegoen-, bideak egin ziren gailurraren inguruan eta lurzoruaren maila jaitsi edo igo egin zen, igaro ahal izateko.

Desde su abandono militar en 1937, Lemoatx ha sufrido varios procesos de ocupación hasta la actualidad. El tiempo y la actividad humana se han encargado de asimilar de manera progresiva las cicatrices que la guerra dejó. Mención especial tiene el proceso aislado y continuo de la presencia de chatarreros y chatarreras de postguerra, así como la presencia de detectoristas furtivos que han afectado la deposición primaria y el orden de la cultura material generado en el transcurso de la batalla.

Pasados 80 años, los procesos naturales han modificado la apariencia de las cimas. Entre ellos la erosión, ocasionada por el agua y el viento, encargada de aplanar las vertientes e irregularidades de la superficie, desplazando sedimentos, piedras y colmatando las trincheras. Por su parte, la vegetación ha recolonizado los lugares abandonados, sus raíces han afectado al subsuelo, y las irregularidades del terreno han quedado encubiertas con su fronda. En todo caso, son procesos que afectan y modifican el monte, ocultando las huellas del pasado.

Posteriormente a la guerra, Lemoatx se convirtió en un símbolo memorialista por parte del régimen franquista, y se alzó un conjunto monumental en el monte. Se construyeron entonces una capilla-mausoleo y una cruz monumental en la cumbre, una carretera de acceso acompañada por un vía crucis, así como un calvario en el punto más alto del macizo.

Progresivamente, también se volvió a explotar la cantera de la ladera sur, mientras se iniciaron plantaciones de pinos en todo el macizo rocoso, cambiando profundamente el aspecto general de la zona. De igual manera, la explotación sobre el terreno se diversificó – el único uso que sufría la zona antes de la guerra era un uso ganadero –, y se trazaron caminos practicables alrededor de la cumbre para facilitar su acceso, rebajando o alzando el nivel del suelo para permitir su paso.





Artzaintzan Lemoatx gailurreko monumentu multzotik gertu, 1961 / Actividad pastoril cerca del conjunto monumental de la cima Lemoatx, 1961 (Lemoako Udala).

XX. mendearen amaieran antena bat jarri zen Lemoatxen gailurrean, baselizaren ondoan, eta Bizkaiko Foru Aldundiak piknik-gune bat egin zuen Ganzabal eta Lemoatx artean, aisiarako gune bihurtuz.

2013az geroztik auzolandegien jarduerekin beste fase bat hasi da, mendiaren historiaren eta ondarearen zati bat berreskuratu asmoz.

Gaur egun, giza jardueraren ondoriozko eta naturako fenomenoaren ondoriozko markak konbinatu egiten dira mendiaren alde guztietan. Guri interesatzen zaigun kasuan, guduaren orbainak eta defentsa-sistemako hondarrak mendiaren dinamikan sartu dira, hainbat gorabehera jasan dituzte eta mendigunearen paisaia pixkanaka ezkutatu dira.

Lehenengo esku-hartzea egin zenean, guduaren aztarna gutxi zegoen begien bistan eta memoria kolektiboa 1937ko gertakizunak ahaztuta zegoen. Lubakiak hein handi batean beteta zeuden, alanbre-hesiak desagertuta, eta krater asko eta asko landarediak estalita. Depresio batzuk antzeman zitezkeen bidearen inguruan, baina lubakien ibilbidearen zatirik handiena desagertuta zegoen landaredi trinkoaren azpian.

Mendigune osoan aisiarako gunearen inguruan eta Ganzabalen hego-mendebaldean baino ez ziren nabari guduaren aztarna batzuk. Kokapen horretan, piknik-gunearen inguruko landarediaren mantentze-lanetan agerian geratu ziren lurreko depresio guztiak eta zenbait neurritako kraterrak ikus daitezke,

A finales del siglo XX se instaló una antena en la cima de Lemoatx, al lado de la ermita, y la Diputación Foral de Bizkaia construyó un merendero en la explanada entre las cimas Ganzabal y Lemoatx, convirtiéndolo en un lugar social y de ocio.

Desde 2013, las actividades de los campos de trabajo representan una de las últimas fases de actuación en el monte, con el fin de recuperar parte de su historia y de su patrimonio.

Hoy día, las marcas motivadas por la actividad humana y los fenómenos naturales se combinan y superponen en las vertientes del monte. En el caso que aquí nos interesa, las cicatrices de la batalla y los restos del sistema defensivo se han integrado en la dinámica del monte, sufriendo innumerables alteraciones y ocultándose progresivamente en el paisaje del macizo.

En el momento en que se realizó la primera intervención, pocos vestigios de la guerra quedaban ya visibles y paralelamente la memoria colectiva había olvidado los detalles del acontecimiento de 1937. Las trincheras, estaban en buena parte colmatadas, las alambradas habían desaparecido, y muchos de los cráteres quedaban ocultos bajo la vegetación. Si bien, algunas depresiones se podían adivinar en la vecindad de los caminos, la mayor parte del recorrido de las trincheras había desaparecido bajo una densa cubierta vegetal.

De la totalidad del macizo, eran únicamente en las zonas del merendero y de la vertiente suroeste de Ganzabal donde se podían apreciar las huellas de la batalla. En esta ubica-

or.

defentsako kokapenen gainera erori ziren obusen eta bonben ondorioz. Dentsitateari eta sakontasunari begiratzuz gero, beteta dauden arren, 1937ko bonbardaketak zein gogorrak izan ziren irudika dezakegu.

Aurreko lerroetan azaldutako prozesu hauek guztiek eragin zuzena izan duten Lemoatxeko defentsa-sistemaren egungo itxuran eta guduaren azarnetan. Hau da, lubakiak utzi ondorengo faseetan pixkanaka bete ziren, eta sailetan ildaska batzuk baino ez dira ikusten, landareek kamuflatuta egon arren. Gauza bera gertatzen da gerrako aztarnekin; paisaiak mantendu dituen orbainekin, arkeologooi esatea gusatzan zaigun bezala. Zauri horiek hor daude 1937ko borrokaldiez geroztik, eta mendiaren dinamikan sartu dira, narriadura-prozesuen eta giza jardueren araberako modu batera edo bestera sartu arren.

ción, el mantenimiento de la cubierta vegetal relacionada con el merendero, deja a la vista todas las depresiones del suelo donde se aprecian un número considerable de cráteres de diversos tamaños, resultados de los impactos de los obuses y bombas que cayeron sobre las posiciones defensivas. Observando su densidad y profundidad, aun estando algo colmatados, nos aproximan a la violencia de los bombardeos de 1937.

Todos estos procesos descritos en las líneas anteriores han afectado directamente a la apariencia actual del sistema defensivo de Lemoatx, así como a las huellas de la batalla. Dicho de otra manera, las fases posteriores al abandono de las trincheras corresponden a su colmatación paulatina hasta vislumbrar simplemente unos pequeños surcos en el terreno que se camuflaban por la crecida vegetación. De igual forma ocurre con las trazas de la guerra; lo que a las arqueólogas y arqueólogos nos gusta llamar cicatrices que retiene el paisaje. Estas heridas presentes desde los combates de 1937 se integran en la dinámica del monte, variando en función de los procesos de erosión y de las actividades humanas.



Lubakiaren profila, sastrakak kendu ondoren ikus daitekeena (Ipar-ekialdeko sektorea (NE), 2016 / Perfil de trinchera, todavía apreciable después del desbrozado de la zona (Sector noreste (NE), 2016 (Julien Blanco, 2016).



Krater handia, piknik-gunean barbakoa bat jartzeko aprobetxatua / Cráter de grandes dimensiones, reaprovechado para instalar una barbacoa en la zona del merendero (Euken Alonso, 2017).



Piknik-gunean ikus daitezkeen kraterrak / Cráteres visibles en la zona del merendero (Euken Alonso, 2017).

or.

## 2.4. IKERKETA ZIENTIFIKOAREN HASIERA

la lauorgeri urtez egon ziren defentsarako egiturak utzita: 2012ra arte ahaztuta egon ziren. Orduan hasi zen Lemoako Udala, Saioa Elejabarrieta alkatearen ekimenez, udalerrian Memoria Historikoari buruzko ekintza batzuk egiten. Horren adibide ditugu nazioarteko auzolanak, gazteentzako egin direnak Lemoatx inguruan.

2017an bost urte bete dira 2013an lehenengo auzolana antolatu zenetik. Auzolandegi hauek Lemoako Udalak eta Eusko Jaurlaritzako Gazteria Zuzendaritzak antolatzen dituzte.

Hasiera-hasieratik Aranzadi Zientzia Elkartearen zuzendaritza tekniko eta materiala dute, proposatutako xedek lortzearen arduraduna baita: defentsa-sistema berreskuratuz, balioan jarri eta pixkanaka bere azterketara egokitutako metodologia arkeologikoa sortu.

Ahalegin horiek Euskal Prospekzio Taldearen prospekzioekin osatzen da, Aranzadi Zientzia Elkartearekin lankidetzan baitabil Lemoatxeko zokoak nola arautu aztertzen, bai eta berreskuratutako gerrako materiala aztertzen ere. Prospekzio pedrestrearen metodologia erabiliz, metalak hautematekoen laguntzarekin, gerrako materiala sakabanatuta dagoen azalera handietara egokitu dute prozedura.

Euren lanari esker zehatz definitu da Lemoatxeko defentsa-lerroen ibilbidea, baita desagertutako borrokalarien gorpuzkinak egon daitezkeen hobien kokapena ere.

## 2.4. INICIO DE LA INVESTIGACIÓN CIENTÍFICA

El abandono de las estructuras defensivas duró casi ochenta años, cayendo en el olvido hasta 2012. Fue entonces cuando el Ayuntamiento de Lemoa, a iniciativa de su alcaldesa Saioa Elejabarrieta, inició una serie de actuaciones sobre Memoria Histórica en el municipio. Ejemplo de ello son campos de trabajo internacionales para jóvenes que se han llevado a cabo en el entorno de Lemoatx.

En 2017, se cumplieron cinco años desde la organización del primer campo de trabajo en 2013. Estos campos son organizados conjuntamente por el Ayuntamiento de Lemoa y la Dirección de Juventud del Gobierno Vasco.

Desde el inicio cuentan con la dirección técnica y material de la Sociedad de Ciencias Aranzadi, encargada de lograr los objetivos propuestos: la recuperación del sistema de defensa, su puesta en valor, así como el progresivo desarrollo de una metodología arqueológica adaptada a su estudio.

Estos esfuerzos son completados por el grupo de prospección Euskal Prospekzio Taldea, que colabora con la Sociedad de Ciencias Aranzadi estudiando de manera regular los recovecos de Lemoatx, así como realizando estudios sobre el material bélico recuperado. Mediante una metodología de prospección pedestre, con el apoyo de detectores de metales han adaptado, el procedimiento a grandes superficies con dispersión de material bélico.

Su trabajo ha permitido definir con precisión el recorrido de las líneas defensivas de Lemoatx, así como la ubicación de lugares susceptibles de hallar fosas con restos de combatientes desaparecidos.



**Iñigo Urkullu, lehendakaria; Saioa Elejabarrieta, alkatea; Cristina Uriarte, Kultura eta Hezkuntza sailburua eta Jon Redondo, Gazteriako zuzendaria.**

**El Lehendakari, Iñigo Urkullu; la alcaldesa, Saioa Elejabarrieta; la consejera de Cultura y Educación, Cristina Uriarte y Director de Juventud, Jon Redondo.**

## 2.5. ESKU-HARTZEEN TESTUINGURUA

Kapituluaren hasieran esan dugu Arkeologia garaikidearen garaipenak eragin zuzena zuela Lemoatxen erabilitako metodologian.

Gerra Zibilarekin zerikusia duen ondarea pixkanaka finkatzen ari da eta horrek esan nahi du, besteak beste, zalantzan jarri behar dela Arkeologian muga tenporala egotea, eta gizartearentzako garrantzitsuagoak diren gaiak hiltzeko aukera ematen du horrek, eta jendearen parte hartze publikoa errazten du. 2013az geroztik auzolandegiak antolatzeak adierazten du udalerrian presente zegoen iragana berreskuratzeko beharra zegoela; izan ere, iragana presente zegoen udalerrian bere iraunkortasun (eta insistentzia) materialaren bidez (Ruibal, 2012) eta hori guztia egiteko beharrezkoa zen proposamen publiko argia egotea ere.

2013az geroztik bost auzolandegi egin dira, defentsa-sistema berreskuratu asmoz. Udalerrian Memoria Historikoa berreskuratzea zen lehentasuna, agiritegia erre zenez Udalak berak ere ez baitzuen daturik. Bestalde, 1937a aldi traumatikoa izan zen eta Lemoako biztanleentzat ez zen gai atsegina<sup>4</sup>: isiltasuna zen nagusi udalerriko familietan eta kontua ahazte-bidean zegoen. Lemoatxen ikerketa zientifikoa eta pixkanakakoa ere egin nahi zen, eta defentsa-sistema eta bere ingurua balioan jarri.

Mendiko ikerketak haste aldera, Auzolanak antolatzea erabaki zen eta hainbat helburu izan dituzte, esku-hartzeen egoeraren arabera. 1937ko gertakizunak mendi osoan izan zuten eragina eta ez soilik kokapen jakin batzuetan; beraz, multzo bezala hartu behar zen eremu osoa, eta esku-hartzeak kokapen zehatzetan egiten diren arren, horien azterketak eta azken interpretazioak globalak izan behar zuten. Horrela, bada, lanek eragina izan dute bai Lemoatx gailurrean, bai Ganzabalen: 200 metro daude batetik bestera, eta higadura bera izan zuten gerra-garaian.

## 2.5. CONTEXTO DE LAS INTERVENCIONES

Al principio del capítulo ya adelantábamos que el desarrollo de la Arqueología contemporánea incidía indirectamente en la metodología empleada en Lemoatx.

Es cierto que el patrimonio relacionado con la Guerra Civil se va consolidando de una manera progresiva, y eso significa, entre otras cosas, poner en duda la existencia de un límite temporal en la Arqueología, y permite abordar cuestiones que son más relevantes para la sociedad y que facilitan la participación activa del público. El hecho de organizar Campos de Trabajo desde 2013 plasma la necesidad del municipio de rescatar un pasado presente a través de su persistencia (e insistencia) material (Ruibal, 2012), además de hacerlo con una clara propuesta pública.

Desde 2013 se han llevado a cabo cinco Campos de Trabajo con el fin de recuperar el sistema defensivo. La necesidad primordial era la recuperación de la Memoria Histórica en el municipio ante la falta de datos que había en el propio Ayuntamiento a causa de un incendio en el Archivo. Por otro lado, el año 1937 significaba un periodo traumático llegando a convertirse en un tema no agradable para los habitantes de Lemoa<sup>4</sup>, donde dominaba el silencio en las familias del municipio y que había acabado por caer en la desmemoria. También el objetivo consistía en abarcar una investigación progresiva y científica de Lemoatx, así como la puesta en valor del sistema defensivo y su entorno.

Con el objetivo de iniciar las investigaciones en el monte, se optó por la organización de los Campos de trabajo / Auzolanak que han ido acometiendo diferentes objetivos en función del momento en el que se encontraban las intervenciones. Por su parte, la contienda sucedida en 1937 afectó a todo el monte y no sólo a ubicaciones determinadas del mismo, por lo que los vestigios deberían entenderse como un conjunto, y aunque las intervenciones se realicen sobre localizaciones concretas, su estudio e interpretación final debe ser global. Así pues, los trabajos han incidido tanto sobre la cima de Lemoatx como en la de Ganzabal, separada a 200 metros de distancia, pero afectadas por igual en el contexto bélico.


<b>2013:</b> Lemoatxeko San Antolineko basilizian esku-hartzea (garbiketa eta berritzea) eta Gantzabaleko Hegoaldeko (H) defentsa lerroetan / Actuación sobre la capilla en Lemoatx (limpieza) y sobre las líneas defensivas de Ganzabal en el Sector sur (S).
<b>2014:</b> Barrunbe bat arakatzen Lemoatxeko basilizatik gertu, eta bi lubaki zati berreskuratzen Gantzabalen, 2013ko esku-hartzeen ondoren (H). / Reconocimiento de una cavidad cerca de la ermita en Lemoatx, y recuperación de dos tramos de trinchera en Ganzabal a continuación de las intervenidas en 2013 (S).
<b>2015:</b> Lemoatxen egindako azken esku-hartzea, zehazki basilizian irekitako hobi baten azterketa eta 2014an topatutako barrunbearen ikerketa. Indusketa Gantzabaleko fortifikazioen 140 metroan, Ipar-mendebaldean (IM). / Última intervención sobre Lemoatx, concretamente en la exploración de un nicho abierto en la ermita y estudio de la cavidad descubierta en 2014. Intervención sobre 140 metros de fortificaciones en Ganzabal, en el Sector noroeste (NW).
<b>2016:</b> 74 metroko lubakiaren indusketa Ipar-ekialdean (IE) Gantzabalen. Arkeologiaren metodologiarekin egindako lehen hurreratzeko bigarren hamabostaldian. / Excavación de 74 metros de trincheras en el Sector noreste (NE) en Ganzabal. Intervención arqueológica en la segunda quincena.
<b>2017:</b> Esku-hartzearen jarraipena Ipar-ekialdeko 38 metroan (IE). Arkeologiaren metodologia bat garatzen defentsa-sistemari egokitu. / Continuación de la intervención sobre 38 metros en el Sector noreste (NE). Desarrollo de una metodología arqueológica adaptada al estudio del sistema defensivo.

Nazioarteko auzolandegiekin egindako esku-hartzeen ordena kronologikoa. / Orden cronológico de las intervenciones con los Campos de Trabajo Internacionales.


<sup>4</sup> Gehiago jakiteko, ikus: García, M. (Lemoako Udaleko Gaztedia Arloko teknikaria) eta Diego, M. (historialaria) (2014). *Recuperación de Lemoatx: una propuesta ciudadana*. Hemendik berreskuratua: <https://ehutb.ehu.es/video/58c66e67f82b2b87798b4626> / Para saber más ver: García, M. (Técnico de Juventud del Ayuntamiento de Lemoa) y Diego, M. (historiador) (2014). *Recuperación de Lemoatx: una propuesta ciudadana*. Recuperado de: <https://ehutb.ehu.es/video/58c66e67f82b2b87798b4626>

or.

## 2.6. ESKU-HARTZE ARKEOLOGIKOAK, HELBURUAK ETA EMAITZAK



## 2.6. INTERVENCIONES ARQUEOLÓGICAS, OBJETIVOS Y RESULTADOS



Lemoatxen plano topografikoa /  
Plano topográfico de Lemoatx  
(Euken Alonso, 2017).


or.

## 2.6.1. LEMOATX

Gainerako mendiguneari izena ematen dion gailurra mendiaren hego-ekialdean dago, hegoaldeko mazelako harrobitik gertu. Borrokaldien aztarnak geratu dira bertan, eta aireko bonbaketarien eta artilleriaren leherketek eragindako kraterrak.

## 2.6.1. LEMOATX

La cima que da nombre al resto del macizo montañoso se sitúa en el sureste del monte, a poca distancia de la cantera de la ladera sur. En ella han quedado plasmadas las huellas de los combates, y los cráteres provocados por las explosiones de los bombardeos aéreos y de artillería.



Lemoatx gailurra eta inguruan egindako esku-hartuak / La cima de Lemoatx y las intervenciones llevadas a cabo en su entorno (Euken Alonso, 2017).

Gailurrean monumentu-multzo bat dago: frankismoak guduan hildako soldadu matxinatuak omentzeko eta Espainiako ideologia eta erlijioa goresteko eratu zen; zehazki, 10 metroko gurutze monumental bat dago, besteak beste. Multzo horren gunea basiliza-mausoleo bat da, eta kripta bat du mendiaren hil eta hobi komunean edo sakabanatuta ehortzi ziren borrokalarien gorputzkinak jasotzeko.

Hasteko, basiliza garbitzeko lanak egin ziren barruan. 2013an eraikina erabat utzita zegoen, eta zaborrak eta hondar modernoak zeuden pilotuta. Lehenengo zereginetako bat plastikozko hondarrak eta egungo zaborrak kentzea izan zen, tokiaren potentzialitateak ebaluatzeko, eta beharbada Lemoatxeko gudua interpretazio-gune eta memoria historikoa hedatzeko gune bihurtzeko. Ideia hori gaur egun geratuta dagoen arren, interesgarria zen; izan ere, iraganean gatazkatsua izandako gune batean interpretaziorako puntua jartzea zen asmoa eta garaile-garaitu irudia nagusi den monumentu multzoan diskurtsoa ambigüotasunik gabe idazteko hautua egitea; hots, gune eraginkorra eraikitzea kritikatik, akordiotik eta arlo politikitik orainean eta iraganean (Ruibal, 2012).

La imagen que ofrece esta cima la preside un conjunto monumental con el que el Franquismo glorificaba a los soldados sublevados muertos en los combates y la ideología de España y la religión, levantándose una cruz monumental de 10 metros de altura. El núcleo del conjunto lo define una ermita-mausoleo construida con una cripta para acoger los restos de combatientes caídos en el monte y enterrados en fosas comunes o desperdigados en la superficie del monte.

En primer lugar en la ermita se realizaron labores de limpieza en el interior. La situación que presentaba la edificación en 2013 era de total abandono, con la consecuente acumulación de escombros y basura moderna. De esta manera una de las primeras actuaciones fue la retirada y limpieza de residuos plásticos y basuras actuales, con la intención de evaluar las potencialidades del lugar, de cara a su posible reconversión como un punto de interpretación de la batalla de Lemoatx y de divulgación en ámbitos de memoria histórica. Esta idea, ahora mismo pausada, era interesante, ya que la posibilidad de instalar un punto de interpretación en un espacio que había sido de conflicto en el pasado y donde la imagen que impera al lado del conjunto monumental es de vencedores-vencidos, optaba por reescribir el discurso sin ambigüedades, construyendo un espacio efectivo desde la crítica, el acuerdo y lo político en el presente y en el pasado (Ruibal, 2012).





Baselizaren egoera eta barruko ikuspegia, auzolander-gian garbitu aurretik / Vista interior y estado de la ermita antes de la limpieza mediante el Campo de Trabajo (Lemoatx 1937, 2013).

Baselizaren barrua, garbitu ondoren. Nitxoetako harlauzak ikus daitezke lurrean. / Interior de la ermita después de su limpieza, se pueden apreciar las losas de los nichos en el suelo (Tito Agirre, 2015).

Kaperaren barrualdea garbitu ondoren, lurrean ikusten zen nitxoak non zeuden. Esan behar da, ahozko lekukoen arabera, inauguratu eta urte batzuetara gorpuzkiak atera zirela nitxoetatik eta lurra berritu egin zela ondoren.

Nitxoetako harlauza batzuk mugituta zeuden eta aldarearen zatiak gainera botata. Aldaretik zatiak kendu ziren, eta nitxo baten tapa kendu zen, mugituta zegoelako; dena dela, ez zen hezurdurarik aurkitzerik espero, zuloetatik gaur egungo plastiko zatiak ikusten baitziren.

Espero bezala, nitxoaren barruan plastiko eta lata ugari aurkitu zen, baita gerraosteko zazpi txanpon ere, 1947tik 1966ra bitartekoak. Horiei guztiei esker dakigu nitxo seguru asko 1966 ondoren nahasi izango zela; 1958an eraiki zen baseliza.

Baseliza inguruan ere egin ziren ustiaketak hegoaldeko mazelako zulo batean, eta guduarekin zerkusia zuten gerrako objektu batzuk dokumentatu ziren (esaterako, zorroak edo lapiko tapa bat) egungo zabor ugariarekin batera. Litekeena da, ordea, kobazulo horretara gerraostean erori edo bota izana; izan ere, egungo hondar asko egoteaz gain, gerrako hondar gutxi berreskuratzen. Dena dela, Lemoatxen gailurrean 1937an izandako gudua lekuko dira.

Tras la limpieza del interior de la capilla se apreciaban en el suelo la ubicación y distribución de los nichos. Es preciso señalar que, según testimonios orales, años después de la inauguración del conjunto monumental se exhumaron restos que habían sido depositados en los nichos, posteriormente se renovó el pavimento de la solera original.

Parte de las losas de los nichos estaban movidas y fragmentos del altar tirados sobre las mismas. Se procedió a la retirada de los fragmentos y cascotes del altar, y se levantó la tapa removida de un nicho, con la previsión de que no se encontrarían restos esqueléticos, ya que por los huecos se apreciaban envoltorios plásticos actuales.

Como era de esperar, en el interior del nicho se encontró una notable cantidad de residuos plásticos y latas, así como siete monedas de la posguerra, datadas concretamente de 1947 a 1966. Esto nos permite saber que la perturbación del nicho fue probablemente posterior a 1966, mientras que la ermita fue inaugurada en 1958.

Cerca de la ermita también se realizaron exploraciones en una cavidad ubicada en la vertiente sur, que permitieron documentar algunos objetos bélicos relacionados con los combates, como casquillos o una tapa de cazuela, mezclados con una gran cantidad de basura actual. No tanto por la cantidad de residuos actuales sino más por la mezcla de ellos con los restos bélicos y la poca cantidad recuperados, no se descartó que cayeran o se tiraran en la cueva después de la guerra. Aun así, los objetos testimonian los combates que sufrió la cima de Lemoatx en 1937.



Nitxoa aztertzen / Exploración del nicho (Tito Agirre, 2015).




San Antolin basiliza inguruko kobazulo bat aztertzen. / Exploración y estudio de una cavidad próxima a la ermita de San Antolín (Tito Agirre, 2015).

## 2.6.2. GANZABAL

Ganzabal gailurra Lemoatxen ipar-ekialdean dago, 200 metro ingurura. Guduko aztarnarik gehien ikus daitekeen ingurua da, eta lanik gehiena egin den tokia ere bada. Gailurrean daude lubaki-ilara gehienak, eta mendiko landarediaren artean lubaki horien ibilbidea zertxobait antzeman daiteke.

## 2.6.2. GANZABAL

La cima de Ganzabal se encuentra a unos 200 metros en el noreste de Lemoatx. Corresponde a la zona donde más vestigios de la batalla quedan visibles, y donde se ha trabajado con mayor intensidad. En su cima se encuentra la mayoría de las líneas de trincheras, las cuales se intuyen en parte de su recorrido entre la cubierta vegetal del monte.



Lemoatxeko defentsen eskema; Zubiaga komandantearen memorietatik atera da. / Esquema de las defensas de Lemoatx, sacado de las memorias del comandante Zubiaga.

Lemoatxeko gotorlekuaren kargu zegoen komandantearen memorietatik atera daiteke lubaki-sistema adierazten duen eskema bat. Ilustratutako defentsak ez datoz bat sailean aurkitutako elementuekin, baina defentsa-multzora gerturazten gaituzte eta eraikitako elementuen antolakuntzara ere bai.

Marrazki horretan ikus daiteke lubaki-ilara nagusi bat zegoela, ferra itxurakoa, eta Ganzabal gailurra inguratzen zuela; puntu batzuetan gogortuta dago metrailadoreen habiekin eta babesekin. Ilara nagusi horretatik ildaskak irteten dira sigi-saga, bakandutako aurreko posizioekin edo lehen lerroko beste lubaki batzuekin lotuaz. Multzoa indartzeko, alanbre-hesia legoke, erasotzaileei igarotzea zailduz.

Era berean, lubaki nagusia mendiaren erliebera egokitzen da, eta bihurtu handiak ditu; aldiz, aurreko lubakiak ibilbide gorabeheratsuagoa du, angeluduna da eta sigi-saga doa. Lubakien azken tipologia horri esker, zuzeneko suaren ondorioak murrizten ziren, baita bonbardaketena ere, lubaki zati txikietara.

De las memorias del comandante en cargo de la fortificación de Lemoatx, se puede extraer un esquema que representa el sistema de trincheras. Si bien las defensas ilustradas no coinciden exactamente con los elementos encontrados en el terreno, nos aproximan en primera instancia al conjunto defensivo y a la organización de los diferentes elementos construidos.

En este dibujo se puede apreciar una línea principal de trinchera en forma de herradura, que envuelve la cumbre de Ganzabal y que está puntualmente reforzada por una serie de nidos de ametralladoras y de refugios. De esta línea principal salen zanjas en zigzag, conectando a las posiciones avanzadas aisladas o a otra trinchera situada en primera línea. El conjunto quedaría reforzado por líneas de alambradas, dificultando el paso de los atacantes.

De la misma manera, se puede apreciar que la trinchera principal se adapta al relieve del monte, alineándose en grandes curvas, mientras las trincheras avanzadas presentan un recorrido mucho más accidentado, con ángulos y en zigzag. Esa última tipología de trincheras permitía reducir los efectos

or.


Lemoatxen defentsa-lerroen sistema konplexua dago, mendiaren fisionomiara egokitutako elementu osagarriak eratua.

Oraingoz hiru sektoretan baino ez da esku hartu: hegoaldekoan (S), ipar-ekialdekoan (NE) eta ipar-mendebaldekoan (NW).

del fuego directo, así como de los bombardeos a pequeñas porciones de trincheras.

Así, Lemoatx presenta un sistema complejo de líneas defensivas, compuesto por elementos complementarios adaptados a la fisonomía del monte.

Por el momento se ha intervenido sobre tres sectores, denominados sur (S), noreste (NE) y noroeste (NW).



Ganzabal gailurra eta defentsa-sistemaren aztarnak / La cima de Ganzabal y los vestigios del sistema defensivo (Eukén Alonso, 2017).

Bost urteko auzolanetan 344 metro lubaki berreskuratu dira, baita defentsa-sistemako zenbait elementu ere.

Erregistro arkeologikoak baieztatu zuen defentsa-sistema konplexua zela, defentsa-lerro zenbaitetan antolatua. Berreskuratu diren lubaki-zatiek bihurtu diren mendiaren topografiaren arabera; alabaina, hegoaldeko sektoreko zati batek baino ez du sigi-saga erako ibilbidea, eta zuzeneko suaren nahiko bistan geratzen zen, maldara begira zegoelako. Kokapen aurreratuko zati bat ere, ipar-ekialdeko sektorean (NE) agerian dagoena, sigi-sagan dago. Bi aterpe eta metrailadoreen bi habia ere dokumentatu ziren, lubakiak tarteka indartzuz, gainerako alanbre-hesiez gain.

Bestalde, lubakien batez besteko zabalera 0,60 eta 1 metro artekoa da, eta batez besteko sakonera 0,95 metrokoa. Higadura, sailak bete egin direla eta zakuak eta bistan zeuden parapetoak desagertu egin

En cinco años de campos de trabajo, se han recuperado cerca de 344 metros de trincheras, así como diferentes elementos del sistema defensivo.

El registro arqueológico confirmó que se trataba de un sistema defensivo complejo, organizado en varias líneas defensivas. Los tramos recuperados de trincheras presentan amplias curvas en función de la topografía del monte, mientras que solo una fracción del Sector sur tiene un recorrido en zigzag, quedando particularmente vulnerable al fuego directo por su orientación hacia la pendiente. También un tramo de posición avanzada, cuyo perfil queda visible en el terreno del Sector noreste (NE), presenta un recorrido en zigzag. Se documentaron, además, dos refugios y dos nidos de ametralladora, reforzando las trincheras a intervalos, además de restos de alambradas defensivas.

Por otro lado, la anchura media de las trincheras es de entre 0,60 y 1 metros, con una profundidad media de 0,95 metros. Teniendo en cuenta la erosión, la colmatación del

direla kontuan izanez gero, lubakiak arauzko mode-  
loaren arabera egin zirela uste da, eta 1,80 metroko  
sakonera izango zutela (González Ruibal, A., 2010).  
Substratu oro har bigunean egindako lubakiak dira,  
nahiz eta toki batzuetan harkaitza egon, baina gune  
puntualetan bakarrik. Ereku hauetan gehienetan lu-  
bakiaren hondoak kota altuagoa du eta argi dago  
1937an presaka egin zituztela, tresna desegokiek.

terreno, así como la desaparición de los sacos terreros y el  
parapeto visible en las fotografías de la época, se presupo-  
ne que originalmente cumplían el modelo reglamentario con  
una profundidad de 1,80 metros (González Ruibal, A., 2010).  
Se trata de trincheras excavadas directamente en un sustra-  
to generalmente blando, aunque también hemos detectado  
zonas donde se actúa sobre la roca que aflora en zonas pun-  
tuales del trazado. Esas zonas coinciden generalmente con  
una cota más elevada del fondo de trinchera, demostrando  
el carácter urgente de su construcción en 1937, cavadas con  
una herramienta inadecuada y premura.



Lemoatxeko lubakiak utzi ondoren, lurrez betetako zakuak eta alanbreen pikotzak nabarmentzen dira. / Las trincheras de Lemoatx después de su abandono, destacan la presencia de sacos terreros y piquetas de alambradas (AGG-GAO OA 1631 © CC BY-SA: Ojanguren, Indalecio).



Ipar-ekialdeko sektorearen (NE) ikuspegia, lubakia ia erabat desagertu dela ikusten da; arroka naturalaren substratuaren ondorioz, ibilbideko oztopoa izan zen / Vista del Sector noreste (NE), donde se aprecia la desaparición de la trinchera casi en su totalidad a causa del sustrato de roca natural que se presenta como un obstáculo en el recorrido (Euken Alonso, 2017).



Lubakiaren atzeko ertzeko eskailera-maila ipar-ekialdeko sektorean (NE) / Escalón presente en el borde posterior de la trinchera, en el Sector noreste (NE) (Alba Peña, 2017).

or.

Azkenik, lubakiaren profila aldatu egiten da zatiaren arabera. Oro har hondo laua dute, baina zati batzuetan eskailera-maila bat dago goiko edo aurreko ertzean. Modelo hori "tiratzailearen eskailera-maila" da, borrokalariak kokapen egokiagoa izateko.

Jarraian daude zehatz azalduta Ganzabal gailuraren inguruan egindako esku-hartzeak. Gure asmoa da zeharkako testu bat proposatzea, sistematikoki ulertu ahal izateko esku hartutako tokiak eta urte hauetan izandako helburuak. Horregatik ematen da auzolandegien emaitza globalen garapenaren berri, sektoreak banaka aurkeztuz.

Por último, el perfil de la trinchera también cambia según el tramo en cuestión. Por lo general presenta un fondo plano, aunque también hay tramos donde se refleja un escalón apoyado en el borde posterior o delantero. Este último modelo corresponde a un "escalón de tirador", permitiendo una posición más cómoda a los combatientes.

Seguidamente se describen en detalle las intervenciones que se han realizado alrededor de la cima de Ganzabal. Nuestra intención es proponer un texto transversal donde puedan entender de manera sistemática los lugares intervenidos y los objetivos que se han abarcado a lo largo de los años. Por ello se pone en manifiesto el desarrollo de los resultados globales de los Campos de Trabajo mediante la presentación individual de los sectores.



Ipar-ekialdeko sektoreko (NE) 2. zonaldeko lubakiaren hondoaren goitikako planoaren ikuspegia. Material-pilaketa ikusten da, esaterako: munizioa, kargadoreen gidak, zorroak, larru-zatiak, etab. / Vista en plano cenital del fondo de trinchera correspondiente a la Zona 2 del Sector noreste (NE). Se pueden apreciar concentraciones de material como por ejemplo: munición, guías de peine, vainas, fragmentos de cuero, etc. (Eukén Alonso, 2017).

### 2.6.3. HEGOALDEKO SEKTOREA (S)


Sektore honetako esku-hartzean 100 m berreskuratu ziren, hiru zatitan banatuta. Era berean, hondeatutako egitura bat hauteman zen, nahiko handia zen, azterketa-fasean zegoen eta lubakia ebakitzen zuen.

Lehenbiziko esku-hartze haiei esker, defentsako lerroen kokapena eta egoera ezagutu ahal izan genuen, eta ikerketarako ondorengo faseak prestatu.

### 2.6.3. SECTOR SUR (S)

La intervención sobre este sector recuperó un total de 100 m separados en tres tramos. De la misma forma se detectó una estructura excavada de tamaño considerable aún en fase de estudio que cortaba la trinchera.

Aquellas primeras intervenciones permitieron averiguar la ubicación y estado de conservación de las líneas de defensas, preparando las fases posteriores de investigación.



Hegoaldeko sektorearen (S) xehetasuna Ganzabalen. / Detalle del Sector sur (S) de Ganzabal (Euken Alonso, 2014).



Bernezko ustezko minaren ikuspegia, hegoaldeko sektorean (S). / Vista de la supuesta mina de plomo en el Sector sur (S) (Euken Alonso, 2017).



Azaleko garbiketa lanak hegoaldeko sektorean (S). / Labores de limpieza superficial en el Sector sur (S) (Asier Izagirre, 2014).

or.

### Aisiarako eta memoriarako tokia egin

Lemoatxentzako lehenengo helburua paisaia kulturalari balioa ematea zen, defentsako elementuak eta borrokaldiko aztarnak bistaratu. Paisaian eta denboran izandako gorabeherak ulertzea funtsezkoa izan da estrategia arkeologikoa diseinatzeko.

Lehenengo esku-hartzeak baselizaren inguruan egin ziren eta jarraian piknik-gunearen inguruan, erraz iristeaz gain, aisiarako gunea aprobetxatu baitzitekeen. Defentsa-sistema balioan jartzean oinarritutako konfigurazioa lortu nahi zen horren bidez. Horrela garatu zen bisibilizazio-estrategia, aisiarako eta denbora librerako eskaintza hazi zen eta hor sartu zen Memoria Historikoa berreskuratzea. Estrategia hori errepikatu da bost urte hauetako esku-hartzeetan, eta gailurrean zehar ibilbide historiko baten planifikazioa ere badago.

### Lubakiak berreskuratu eta lehengoratu

Ikertu nahi den lubaki-sektore bakoitzean urte-oro aurreikusten den jarduera auzolandegian lursaila sasiz garbitzea izaten da. Beraz, arau orokorra da lehenengo landare-geruza kentzea, paisaiako elementuak ezkututzen baititu; elementu horiek sailean dauden ildaska txikiak dira, hau da, denbora igaro ahala bete diren lubakiak. Ekintza horri esker bere ibilbidea eta ingurua defini daitezke.

Hegoaldeko sektorean (S) erabilitako metodologia izan zen zantzetan 10-20 cm-ko indarra sartzea eta musealizatzea, lurrez betetako zakuak jarriz lubakiaren ibilbidean zehar. Azaleko garbiketari esker, 1937ko guduarekin zerikusia zuten objektu batzuk bildu ziren, baina lubakiaren hondoko hondar materialak errespetatu ziren, erreserba arkeologiko bihurtuz, hau da, etorkizuneko sektore honetan indusketa arkeologikoa egiteko aukera gordez. Gainerako sektoreetan, ordea, lubakietako profil osoa berreskuratu zen.

Balorizazioaren azken fasean lubakiei 1937an zuten itxuraren antzekoa eman nahi izaten zaie. Lurrez betetako zakuak bi arrazoiengatik jarri ziren. Bata argia da: mendian dabilen edonork ikus ditzake horrela lubaki ilarak eta irudi hori ohiko paisaian sartuko du, eta interesa sortu ere bai. Bigarrena ondarea balioan jartzeari lotuta dago; hau da, kontserbatu eta babestu egin nahi ziren gizarte-xede batekin, baina jatorrizkoari ahalik eta leialena izanez egin nahi zen, eta hori lortzeko lurrez betetako zakuak erabili behar ziren.

Metrailadore-habien kasuan, ipar-mendebaldeko sektorean (NW) berreskuratu ziren eta argazkiak eta garaiko kontakizunak erabili ziren lehengoratzeko. Adibidez, pinu-enborrak jarri ziren tiro-aho bat berreskuratzeko.

Zakuak mantentzeari dagokionez, bi taktika erabili dira urteetan zehar horien zaintzan nolabaiteko kontrola mantentzeko. Sailean egin zen lehenengo jardueran, tokiko zementu-lantegiak emandako hartxintzarrez bete ziren eta ondoren eraman ziren esku-hartzearen tokira; azken urteetan, aldiz, auzolandegietan ateratako lurrez bete dira eta inguruan eragina murrizteko hala egitea hobe zela ikusi da. Azkenengo fase horri esker, indusketa egindako elementuei euren interpretazio arkeologikoaren bidez zegokien balioa eman zaie.

### Constitución de un lugar de ocio y memoria

El primer objetivo para Lemoatx fue la puesta en valor de un paisaje cultural mediante la visualización de sus diferentes elementos defensivos y huellas de la batalla. La comprensión del paisaje y sus alteraciones a lo largo del tiempo han sido fundamentales para diseñar la estrategia arqueológica.

Las primeras intervenciones se ubican en una zona próxima a la ermita y a continuación del merendero, lo que permite el fácil acceso a la vez del aprovechamiento del espacio de ocio. Con ello se proponía una configuración basada en la puesta en valor del sistema defensivo. De esta manera se desarrolló una estrategia de visibilización con tal de innovar en la oferta de ocio y tiempo libre incorporando la Recuperación de la Memoria Histórica. Esta estrategia se ha repetido a lo largo de los cinco años de intervenciones y también incluye la planificación de un itinerario histórico alrededor de la cima.

### Recuperación y restauración de las trincheras

La actuación anual que se acomete en cada sector de trinchera donde se tiene previsto investigar es el desbrozado del terreno durante el Campo de Trabajo. Por tanto, la norma general procede a extraer la primera capa vegetal que oculta los elementos del paisaje; estos son pequeños surcos en el terreno que no son otra cosa que las trincheras colmatadas por el paso del tiempo. Esta acción permite definir tanto su recorrido como el entorno.

En el Sector sur (S) la metodología aplicada consistió en la profundización de las zanjas 10-20 cm. de potencia y su musealización con sacos terreros a lo largo del recorrido de la trinchera. La limpieza superficial permitió la recogida de algunos objetos relacionados con la contienda de 1937, pero respetando el relleno los restos materiales en el fondo de trinchera, convirtiéndolo en reserva arqueológica, es decir, salvaguardando la oportunidad de acometer en el futuro una excavación arqueológica en este sector. En cambio, en el resto de sectores se recuperó el perfil completo de las trincheras.

La última fase de valorización consiste en devolver a las trincheras una apariencia similar a la que tenían en 1937. La colocación de los sacos terreros se motivó por dos razones, la primera era evidente, pues facilitaba que toda aquella persona que pasease por el monte se percatara de las líneas de trinchera e integrara esa imagen al paisaje cotidiano, despertando además un interés incipiente. La segunda tiene que ver con la puesta en valor del patrimonio; es decir, no solo se buscaba conservar y proteger con un fin social, sino que se debía de hacer lo más fielmente posible a su original y eso se conseguía mediante sacos rellenos de tierra.

En el caso del nido de ametralladora recuperado en el Sector noroeste (NW), se restituyó en base a fotografías y relatos de la época. De esta manera su puesta en valor supuso la instalación de troncos de pino para recuperar una boca de fuego.





Sastrakak kendu eta azaleko indus-  
keta-lanak hegoaldeko sektorean (S).  
/ Trabajo de desbrozado y de excava-  
ción superficial en el Sector sur (S)  
(Lemoatx 1937, 2013).

Ipar-ekialdeko sektoreko (NE) lubakien egoera zaharberitu ondoren. / Estado de las trincheras del Sector noreste (NE) después de su rehabilitación (Euken Alonso, 2017).



Metrailadore-habia ipar-mendebaldeko sektorean (NW), lehengoratu ondoren. / Nido de ametralladora del Sector noroeste (NW) después de su restitución (Tito Agirre, 2015).

## Auzolanak

Aurrez azaldutako lanetan herriko boluntarioek ere hartu dute parte, 2013az geroztik urtero antolatu baitira “auzolanak”. Herritarren parte-hartzeari esker, informazio-panel bat jarri zen piknik-gunearen ondoan; hasitako lanen berri ematen zuen eta 1937an gertuari buruzko sarrera txiki bat zegoen. Bere kokapenak Lemoatx ingurura joatera gonbidatzen zintuen lubakien ibilbideari jarraituz, orain lasaitasuna nagusi den tokitan zehar, nahiz eta orain 80 urte horrelakorik ez izan. 2014an pintada faxistak agertu ziren panelean eta hausnartu eta ulertu beharra dago denbora igaro den arren eta perspektiba daukagun arren, gerra zibila gure garaiko *tempoa* markatu zuela, eta oraindik ere eztabaidarako gune handia dagoela.

2016an denborarekin kaltetu diren zakuak ordezkatu egin ziren Hegoaldeko sektorean. Lan horri esker defentsa-sistema eta bere inguruak indartu egin dira, eta Memoriaren balioaz kontzientziatzeko ere balio izan du testuinguru globalean, bai herritarrentzat, bai ingurukoentzat, bai nazioartean. Hori guztia auzo-landegien bidez egindako lanari esker.



Ipar-mendebaldeko sektoreko (NW) lubakiak zaharberritzeko lanak nazioarteko gazteen eta udalerriko boluntarioen artean. / Labores de restauración de las trincheras del Sector noroeste (NW), entre jóvenes internacionales y voluntarios del municipio (Tito Agirre, 2015).

En cuanto al mantenimiento de los sacos, se han desarrollado dos tácticas a lo largo de los años para mantener un cierto control de la preservación de los mismos. La primera actuación sobre el terreno consistió en llenarlos con gravilla proporcionada por la cementera local para luego trasladarlos al lugar de intervención, mientras que en los últimos años se ha procedido a colmarlos con la propia tierra extraída durante los Campos de Trabajo, confirmando que era preferible para reducir el impacto en el entorno. Esta última fase permitió relacionar estrechamente la puesta en valor de los elementos excavados con su interpretación arqueológica.

## Auzolanak

Arkeologiak, besteak beste, bidea ematen digu zuzeneko lotura ezartzeko objektuarekin eta, horrela, dituen nolakotasunak zein testuingurua uler dezakegu. Objektuek lurzoruan duten banaketak eta objektuen euren azterketak aukera ematen diote arkeologoari (eta gizarteari, oro har) Lemoatxen borrokatu ziren soldaduen bizi-baldintzetara eta bizipenetara hurbiltzeko.

2017ko Auzolandegiak programako (Eusko Jaur-laritzaren programak, Lemoako Udalak sustatuak) bi txandetan bakarrik gutxi gorabehera 2.800 objektu berreskuratzea lortu zen. % 71 bala-zorroak, metralla, munizioa eta bestelako objektu militarrek dira. Hain zuzen ere, gerrako material horrek guztiak islatu egiten du gertatutakoaren bortizkeria. Gainerako objektuak (% 29) eguneroko bizimoduarekin eta zehaztu gabeko gertakizunekin daude lotuta.



- Bala-zorroak / Casquillos: 644
- Kargadoreak / Cargadores: 568
- Besterik / Otros: 561
- Obusak / Obuses: 301
- Munizioa / Munición: 219
- Zibila / Civil: 191
- Balak / Balas: 48
- Granadak / Granadas: 15

Gerrako material-zati tipoen banaketa ipar-mendebaldeko sektorean (NW). /  
Repartición de los tipos de fragmentos de materiales bélicos en el Sector noroeste (NW).

Mendigunean azaleratzen den kultura materialari dagokionez, ulertu behar da ez direla testuinguru jakin bateko objektu bizigabeen multzo bat bakarrik; izan ere, bestelako alderdiez hitz egiten digute: komunikazio-bideak, arma-ekoizpena, bandoak, eguneroko bizimodua, familiak, indarkeria, gatazka... Lurpeko botoi baten edo metralla puska baten azpian ezkutatzen diren eta urteen poderioz noiz berraurkituko zain dauden figuren zerrenda luzea islatzen dute. Hurrengo orrialdeetan gai honetan sakontzen saiatuko gara.

### 3.1. GERRA-AZTARNAK

Joan gaitezen, une batez, bestelako egoera batean: guduen ondoren, etengabeko metralla-jasarekin, munizioaren klaska hutsaren zarata, bonbaketa-riaren eta bonbardaketaren hots-nahastea, oihaak, euria, orduetako itxaronaldia... eszenarioa aldatu egin zen, atzean hondamendia utzita eta; horrekin batera, hainbat eta hainbat material geratu zen han.

A lo largo de cinco años, desde el inicio de las intervenciones en 2013 y la puesta en valor del entorno de Lemoatx, se han recuperado un número importante de objetos que impregnaron el escenario bélico y que de alguna manera se convirtieron en los elementos cotidianos de la contienda.

La Arqueología, entre otros aspectos, nos permite establecer una relación directa con el objeto y así entender sus cualidades o su contexto. Así, la disposición de los objetos sobre el terreno y su análisis posterior permiten acercarse al arqueólogo/a – y a la sociedad en general – a las condiciones de vida y episodios vividos por los combatientes que lucharon en Lemoatx.

Solo entre los dos turnos del programa Auzolandegiak de 2017 - programas del Gobierno Vasco promovidos por el Ayuntamiento de Lemoa - se lograron recuperar aproximadamente 2.800 objetos, del total, un 71% corresponde a casquillos, metralla, munición y otros objetos de tipo militar, una gran cantidad de material bélico que nos está reflejando la brutalidad de las escenas acontecidas; mientras que el 29% restante se trata de vestigios relacionados con la cotidianidad e indeterminados.

En cuanto a la cultura material que aflora en el macizo debe entenderse que no solo se trata de una serie de objetos inertes en un contexto determinado, sino que nos habla de aspectos tales como las vías de comunicación, la producción de armamento, los bandos, la vida cotidiana, familias, violencia, conflicto... Hasta revelar un gran listado de figuras que se esconden bajo un botón o un fragmento de metralla sepultados en tierra, esperando ante el paso de los años a ser redescubiertos. En las próximas páginas trataremos de profundizar más sobre este tema.

### 3.1. HUELLAS BÉLICAS

Pongámonos en situación por un momento, después de las contiendas, de la tromba de metralla constante, del sonido hueco de la munición al chascar, de la mezcla de sonidos del bombardero-bombardeo, de gritos, de lluvia, de horas de espera... el escenario cambió dejando tras de sí el abandono y con ello cantidades desmesuradas de restos materiales.



Lemoatxeko esku-hartze batean berreskuratutako zorroak. / Vainas recuperadas en una de las intervenciones en Lemoatx (Alba Peña, 2017).

Lemoatxen egiaztatu egiten dugu hainbat kalibretako bala-zorroak daudela. Munizioaren arabera, bi armadek erabiltzen zuten; beraz, logikoa da, esaterako, Mauser motako asko aurkitzea. Esaten genuenez, gerrako materialaren ugaritasunak 1937an Lemoatxen bizitako testuinguruaren indarkeria erakutsi baino gehiago ere egiten du; esate baterako, Mexikon ekoiztutako munizioa errepublikanoen bandoari lotzen zaio, eta, gainera, ikertu beharreko aztarna komertziala ematen digu. Iturri historikoen bidez, jakin badakigu Mexikok bando horri lagundu ziola, armak bidalita; bada, hori erakusten du Lemoatxen berreskuratutako materialak.

Bala-zorroak berreskuratzea ohiko irudia da mendiko esku-hartzeetan. Bala-zorroa fusil modernoek baliatutako munizioa da, eta zenbait atal ditu:

- Bala; alegia, jaurtigailua. Fusileko kanoitik irten da tiro egiten den unean bertan, eta bala-zorroaren atal efektiboa edo letala osatzen du.
- Bala-zorroa, latorrizkoa. Eztanda eragiteko fulminantez beteriko ontzia da, bolbora eta bala bera lotzen dituen. Tiro egitean, arma automatikoa bada tiro egin eta berehala irteten da; aitzitik, fusil morroiloduna bada, berriz kargatzean irteten da.

Munizio bakoitzak zinta metrailadore batean edo latorrizko zein burdinazko orrazi kargadore batean egokitzen da; hain zuzen, horrekin kargatzen da arma berriz.

Bala-zorroa ikertzeak informazio aski baliotsua ematen digu emaitzak arkeologiaren ikuspegitik interpretatzean. Alde batetik, kalibreak aukera ematen du arma-mota identifikatzeko; izan ere, kartutxoa arma

En Lemoatx constatamos la presencia de vainas de diferentes calibres. Según la munición, era utilizada en los dos ejércitos, con lo cual es lógico, por ejemplo, encontrar una gran cantidad de tipo Máuser. Como comentábamos, la abundancia de material bélico no solo nos muestra la violencia del contexto que hubo en el 1937 en Lemoatx. Por ejemplo, la munición de origen mexicano se asocia al bando republicano, y además nos da un rastro comercial que investigar. Sabemos por fuentes históricas que México asistió a este bando mediante el envío de armas y así se plasma a través de la materialidad recuperada en Lemoatx.

La recuperación de cartuchos es una imagen habitual de las intervenciones en el monte. El cartucho, propiamente dicho es la munición empleada por los fusiles modernos, y está compuesto por diferentes partes:


- La bala, que funciona como proyectil. Emerge del cañón del fusil en el preciso momento del disparo, y forma la parte efectiva o letal del cartucho.
- La vaina, de latón. Funciona como recipiente que contiene el fulminante para iniciar la deflagración, la pólvora y la propia bala. En el disparo saldría expulsada justo después, si es un arma automática, o bien en el momento de la recarga si se trata de un fusil con cerrojo.

Por su parte, cada munición quedaría acomodada en una cinta de ametralladora o en un peine cargador de latón o de hierro con el que se recarga el arma.

El estudio de un casquillo nos ofrece información muy valiosa a la hora de poder interpretar los resultados de forma arqueológica. Por un lado, el calibre, que permite identificar el tipo de arma, pues el cartucho suele estar diseñado para

zehatz baterako diseinatu ohi da; halaber, markatzea dago: bala-zorroaren ipurdian dago, eta, oro har, ekoizlea eta ekoizpen-urtea adierazten ditu<sup>1</sup>.

un arma en concreto, y por otro, su marcaje, situado en el culote de la vaina y que por norma general nos indica su factoría de origen y el año de fabricación<sup>1</sup>.



Kartutxo baten terminologia. (Ilustrazioa: Martínez Velasco, A. (2008): hemendik aterata: *Breve introducción a la cartuchería para arqueólogos*). / Terminología de un cartucho (Ilustración de Martínez Velasco, A. (2008): extraída de *Breve introducción a la cartuchería para arqueólogos*).



**P25** = Fábrica: Metallwarenfabrik Treuenbrietzen. En Sebalhdhushof (Alemania).

**84** = Vaina de latón.

**19** = Lote nº 19.

**34** = Año de fabricación: 1934.

Calibre: 7.92x57 Mauser.



Kartutxo batek ematen digun informazioaren adibide baten ilustrazioa. Jatorrizko eredua 2017ko auzolanen berreskuratutako zen. / Ilustración para ejemplificar la información que nos proporciona un cartucho. El modelo original se recuperó en el Campo de Trabajo de 2017.

Bala-zorro isolatu bat berreskuratzeak aurreko leuroetan deskribatutako informazioa ematen du; aldez, multzo baten barnean berreskuratzen denean, bandoak zehaztea ahalbidetzen du, guduaren testuingurua aintzat hartuta, bai eta munizioaren ekoizpen-lekua identifikatzea ere, eta, horrenbestez, hornidura-bide komertzialak ezagutzea. Are gehiago, guduko posizio estrategikoak zehaztera iristeko modua dago, leku zehatz batean hainbat bala-zorro aurkitzen badira.

Recuperar una vaina de forma aislada aporta la información que describíamos en las líneas anteriores, mientras que hacerlo de forma conjunta permitiría determinar bandos, teniendo en cuenta el contexto de la batalla, o identificar el lugar de fabricación de su munición y por tanto reconocer las vías comerciales de las que se proveían. Incluso se podría llegar a determinar las posiciones estratégicas de la batalla en función del hallazgo de numerosas vainas en un lugar determinado.

<sup>1</sup> Gehiago jakiteko, Martínez Velasco, A. (2008). Breve introducción a la cartuchería para arqueólogos *Sautuola / XIV*, (14), 383 - 398. or. / Para saber más Martínez Velasco, A. (2008). Breve introducción a la cartuchería para arqueólogos *Sautuola / XIV*, (14), pp. 383 - 398.



Lemoan dokumentatutako gerrako aztarnetatik ondorioztatzen dugu errepublikanoen sektorearen azken arnasaldi defentsiboa izan zela; izan ere, bala-zorro gehienak frankisten bandoari lotzen zaizkio. Eremuan aurkitutako bala-zorroen kopuru handiak erakusten du beharrezkoa zela inguruaz jabetzea bai batzuentzat, bai besteentzat, eta guduaren izaera islatzen du: eragozpenik gabe xahutu zen munizioa. Bestalde, ohiko objektuen artean kartutxo-uhalak, fusil bat eta jaka bat aurkitu izanak islatzen du zer-nolako premiarekin utzi ziren lubakiak, bai eta zer-nolako kaosa sortu zen eta zein gordinak izan ziren guduak ere: lubakietan lurperatuta geratutako materialak galdu egiten ziren.

En función de los vestigios bélicos documentados en Lemoa, deducimos que supuso el último suspiro defensivo para el sector republicano, pues la mayoría de vainas identificadas se relacionan más bien al bando franquista. La gran cantidad de casquillos sobre el terreno demuestra la necesidad de adquirir la posición para unos y otros, demostrando la índole de la contienda, donde no hubo miramientos ante el gasto de munición. Por su parte, el hecho de hallar cartucheras, un fusil e incluso una chaqueta entre otros objetos característicos, nos describen el carácter apresurado con el que se fueron desalojando las trincheras, el caos y la violencia de los combates, donde se perderían los materiales que quedaban sepultados en las trincheras.



Mauser fusila, 2016ko esku-hartzean berreskuratua; zehatz esateko, ipar-ekialdeko sektorean (NE). Ezaugarri hauetako arma bat ahazteak esan nahi du presaka egin zutela ihes edo guduko borrokaldireren batean galdu zela. / Fusil Máuser recuperado en la intervención de 2016, concretamente en el Sector nordeste (NE). Olvidar un arma de estas características sugiere, bien un abandono precipitado, o bien su pérdida durante el desarrollo de los combates (Alba Peña, 2017).

Material-hornidura ezinbestekoa zen, eta, hori lortzeko, komunikazio-bideak kontrolatu behar ziren; izan ere, horiek ziren brigadei munizioa, gerrarako materiala, jan-edanak eta beharrezko bestelakoak helarazteaz arduratzen zirenak: laguntzaileak, erreleboak eta/edo soldaduen atzera egitea, etab. Udallerri aliatuekiko komunikazioak eta zuzeneko harremanak lasterra eta elkarrekikoa izan behar zuen, guduaren gune estrategiko eraginkorra izango bazen.

El suministro de material era indispensable y eso se conseguía mediante el control de las vías de comunicación, responsables directas de que a las brigadas se les abasteciese de munición y material bélico, así como de víveres y todo aquello que tuviese relación: la llegada de refuerzos, el relevo y/o la retirada de los combatientes, etc. La comunicación y relación directa con los municipios aliados debía ser rápida y recíproca para que sirviese como punto estratégico-efectivo en la batalla.



Telefono-harien zatiak eta bateriak, Lemoatxeko esku-hartzean berreskuratutak. / Fragmento de cable telefónico y baterías recuperadas durante las intervenciones en Lemoatx (Alba Peña, 2017).

or.

Bestalde, ez da arraroa lubakien hondoan telefono-hariaren zatiak aurkitzea: hari horrek markatzen du defentsa-guneen eremua. Irratiaren eta/edo telefonoaren garrantzia alderdi oinarrikoen artean zegoen; izan ere, informazio-jarioa errazten zuten soldaduen eta bere nagusien artean, eta ahalbidetu egiten zuten zuzeneko aginduak jasotzea eta fronteko egoeraren berri ematea; horrenbestez, gerrako arma boteretsua zen isilpeko aginduak jakinarazteko, etsai harrizteko edo etsaien artean nahastea eragiteko albeste faltsuak zabaltzeko (Cervera, 1998).

Telefono-hariaren zati isolatuak eta muturrean garbi ebakitakoak aurkitzea azaltzeko, denborak eragindako higadura ez ezik, guduz gudu eta bonbardaketetan sortutako hondamendia ere erakusten du: etengabe birrindu zuten lubakien hasiera bateko itxura. Azpimarratu beharrekoa da zer-nolako itxuraldake-ta gerta daitekeen lubaki-eremu batean obus batek jotzen duenean. Lemoatxen ikus dezakegun adibide hurbilena ipar-ekialdeko (NE) sektorean dago: interpretazioetako batek aukera hori funtsatzen du.



**Zatia. Artilleriako jaurtigai hauslea, 77 mm Krupp, alemaniar jatorrikoa. / Fragmento. Proyectil de artillería rompedor, 77 mm Krupp de origen alemán (Alba Peña, 2017)**

Gerra Zibilak gizartearen eguneroko bizimoduko alderdi guztiak aldarazi zituen, eta urteak behar izan ziren paratutako kolpearen ondoren onera etortzeko. Lemoatxeko gertakizunak gerrako beste kapitulu bat dira, eta munizio-jarioak, gordintasunak eta herritarren zein borrokara zihoazen soldaduen ahidurak goitik behera biltzen dute. Zoritxarrez, joera hori ohitura izan zen hainbat gertakizunetan, eta, horregatik, garrantzitsua da bizitako egoeraren inguruan hausnartzea eta testuingurua materialtasunaren bidez ulertzea. Ez da esku-hartzeetan berreskuratutako materiala bakarrik: aztarna bakoitzak istorio baten berri ematen du eta horrek, besteak beste, hausnarketarako bide bat proposatzen du.

### 3.2. EGUNEROKOTASUNAREN AZTARNAK

Orain arteko ikuspegiari jarraituta, nolakoa zen eguneroko bizimodua lubakiaren sakontasunean?

Hainbat ordu ziren frontean, eta horri gehitzen zitzaion guduetako uxaldi etengabeek eragindako gogortasuna. Halere, egunerokoa eta geldialdiak ere iristen ziren frontera, eta, halakoetan, etxeko egunerokotasuna nagusitzen zen.

Por su parte, no es extraño encontrar en el fondo de las trincheras fragmentos de hilo telefónico, marcando el recorrido del cable a lo largo de las defensas. La importancia de la radio y/o del teléfono se encontraba entre los aspectos más básicos, pues facilitaban la fluidez de la información entre el combatiente y sus superiores, la recepción de órdenes directas o la comunicación de las circunstancias del frente, convirtiéndose en una poderosa arma de guerra para transmitir órdenes secretas, sorprender las del enemigo o lanzar noticias falsas que produjesen desconcierto en el adversario (Cervera, 1998).

El hecho de que encontremos fragmentos de cable telefónico aislados y con un corte limpio en sus extremos no solo se explica por la degradación del paso del tiempo, sino que constata la destrucción que se produjo a raíz de las diversas batallas y los bombardeos, que destrozaron de manera constante la forma inicial de las trincheras. Es necesario subrayar la transformación que puede adquirir un área de trinchera al recibir el impacto de un obús. El ejemplo más cercano que podemos ver en Lemoatx se sitúa en el Sector noreste (NE) donde una de las interpretaciones sustenta esa posibilidad.

La Guerra Civil alteró todos los aspectos en la rutina de la sociedad, suponiendo un duro golpe del que costaría años recuperarse. La historia de Lemoatx supone otro capítulo de la guerra, impregnada por la lluvia de munición, la dureza y el agotamiento de la población, así como de los soldados que acudían a la contienda. Ese patrón fue, por desgracia, la costumbre de los diversos episodios acontecidos. Por ello es importante reflexionar la situación que se vivió, entender el contexto a través de la materialidad. No se trata tan solo de material recuperado durante las intervenciones, sino que cada vestigio cuenta una historia que, entre otras cosas, propone una vía de reflexión.

### 3.2. HUELLAS DE LA COTIDIANIDAD

Con la perspectiva de lo que hemos visto hasta ahora, ¿cómo era la vida cotidiana en las profundidades de la trinchera?

Eran muchas las horas en el frente, a lo que se sumaba la intensidad producida por las batidas constantes de las batallas. Aun así, el día a día y las horas de pausa llegaban al frente y con eso la cotidianidad doméstica imperaba.

Gerraren eguneroko aztarnek hitz egiten jarraitzen dute, gerrako materialak hitz egiten digun bezala, lubakietako hormen artean borrokan aritzen ziren pertsonen bizimoduari buruz. Gogo-ariketa bat egin dezakegu Lemoatxeko gotorlekuan egunen joan-etorriko giroa ulertzeko, aurkitutako gerrako objektuetatik harago. Bestela esanda, defentsarako materiala berreskuratutako gainerako elementuen multzo berean ikus dezakegu, eta testuinguruak aukera ematen digu estrapolaziorako eta soldaduak era horretako leku batean nola bizi ziren irudikatzeke: gerra-egoera biziari gehitzen ziztaion euri-jasa etengabeek ezaugarritutako klimatologiaren deserosotasuna. Esate baterako, 2017an lan-esparruan eginiko azken egunetako batean, lubakien erdiak osorik induskatuta zeudenean eta beste erdiak amaitzear zeudenean, erraz ikusi ahal izan genuen zein erraz betetzen ziren lubakiak urez. Bada, hori zen soldaduen errealitatea, eta etengabe bizi izan zuten guduetan.

Los vestigios cotidianos de la guerra nos siguen hablando, al igual que el material bélico, del modo de vida que llevaban las personas que luchaban entre las paredes de las trincheras. Podemos hacer un ejercicio mental para entender el ambiente del paso de los días en la fortificación de Lemoatx, no solo con los objetos de la guerra encontrados. Dicho de otra manera, ver el sistema defensivo en conjunto con el material recuperado y su contexto nos permite extrapolar e imaginar cómo los soldados sobrevivían en un lugar como este, donde a la cruenta situación bélica se sumaba la incomodidad de una climatología caracterizada por abundantes precipitaciones. Por ejemplo, uno de los últimos días del campo de trabajo del año 2017, con la mitad de trincheras excavadas en su totalidad, y la otra mitad al poco de finalizar, pudimos observar la facilidad con la que las trincheras se inundaban. Y esa era la realidad de los soldados, que lo vivieron constantemente durante los combates.



Ipar-ekialdeko sektoreko (NE) zati bat. Lanaldian pixkanaka nola istilzen zen ikusi genuen. / Uno de los tramos del Sector noreste (NE). Pudimos observar cómo se encharcaba progresivamente durante el turno de trabajo (Euken Alonso, 2017)

Egoera horretan egoteak zekarren oinak bustita izatea, hezetasuna, euria... gaixotasunen gordailua (*lubaki-oin ospetsua*). Izan ere, "lubakietan bizitzeak zekarren lohi egotea, zorriekin, hotzez edo berotan, eta gaixorik" (González Ruibal, 2016). George Orwell, *Omenaldia Kataluniari* (1938) lanean horrela deskribatu zuen lubakian izandako esperientzia, Aragoiko frontean parte hartu zuenean (zehazki, Alcubierre mendilerroan, 1937ko neguan):

Estar bajo esas circunstancias se traducían en pies mojados, humedad, lluvia... cuna de enfermedades – el famoso pie de trinchera –. Pues '*vivir en las trincheras significaba estar sucio, con piojos, pasando frío o calor y enfermando*' (González Ruibal, 2016). George Orwell, en *Homenaje a Cataluña*, (1938) describía así su experiencia en la trinchera durante su participación en el frente de Aragón, específicamente en la Sierra de Alcubierre, en el invierno de 1937:

“Niretzat, gerra zen jaurtigailuen marruma eta metralla-zatiak, baina, batez ere, lupetza, zorriak, gosea eta hotza. Bitxia da, baina beldur handiagoa nion hotzari, etsaiari baino (...) lubakietako hotza, alertak egunsenti goibelelan eta guardia-ordu luzeak fusila izoztuta eta boten kainaren gainetik sartzen zen lupetz hoztuarekin”.

(Orwell, 2011, 5. or.).

‘La guerra equivalía para mí al rugido de los proyectiles y los fragmentos de metralla, pero sobre todo al fango, los piojos, el hambre y el frío. Es curioso, pero temía mucho más al frío que al enemigo [...] el frío de las trincheras, las alertas en los tétricos amaneceres y las largas horas de guardia con el fusil congelado y el barro helado que se colaría encima de la caña de las botas’.

(Orwell, 2011, pág. 5)



Ipar-ekialdeko sektoreko (NE) zati bat, nazioarteko auzolaneko lan-txanda batean.

Uno de los tramos del Sector noreste (NE) durante el turno de trabajo del campo internacional (Tito Agirre, 2017).

Lubaki horiek egonleku baten antzekoak ziren, eta behar-beharrezko gauzak doi-doi egoten ziren. Lemoatxen berreskuratutako materialen aztarnek logistika hori deskribatzen digute: kandelak berreskuratuzera iritsi gara, eta horiek adierazten digute nolakoa zen soldaduen argiztapena lubakian. Egoera horietan argindarra ez zen orokorra, eta disimuluz argiztatze-ko eta erraz amatatzeko modu bakarra kandelak erabiltzea zen; gainera, halako berotasuna ematen zuen mendialdeko igarobidean, eta oso errotuta zeuden nekazarien bizimodu tradizionalen<sup>2</sup>.



Esas zanjas pasaban a ser lo más parecido a una estancia, a duras penas habilitada con lo necesario. En Lemoatx, los restos materiales recuperados nos describen como era esa logística. Se han llegado a recuperar velas, vestigios que nos indican como se iluminaban los soldados en la trinchera. En esas circunstancias la luz eléctrica no era la norma general, y el objeto que permitía un alumbrado lo bastante tenue como para disimularse y de rápido apagado era la vela, que además daba un pequeño sentido de calidez en el pasillo montañoso y estaba muy arraigada a la vida tradicional del campesinado<sup>2</sup>.

**Esku-hartzeetan berreskuratutako kandela-zatiak eta adibidearen ilustrazioa. / Fragmentos de vela recuperados durante diferentes intervenciones e ilustración de ejemplo (Eukén Alonso, 2017)**

Lubakietako antolakuntza-lana, gutxienez, kaotiko xamarra izaten zen; gainera, helburua defentsa- zein eraso-estrategia izan arren, errealtate materialak eta historikoak erakusten digu lurrezko igarobide horiek egitura militarrek baino gehiago zirela; izan ere, pertsona askoren bizilekua zen denbora-tarte luzean, egonleku eroso izan ez arren. Soldaduak gudurako prest zeuden, baina lubakietan elikatzen ziren, gutxienez higiene mantentzen zuten eta, are gehiago, ordu aspertuak igaro behar izaten zituzten frontea lasai zegoenean.

Lemoatxeko lubakietan kultura materialak alderdi hauei buruz hitz egiten digu: badakigu han jaten zutela, lata zatiak, koilarak, lapiko-estalki bat eta aluminiozko plateren bat jaso delako; nolana ere den, ez zen fauna-aztarnarik dokumentatu. Honekin lot litekeen faktore bat da hezur-materialen iraupen eskasa Lemoako mendialdeko lursail azidoetan, matrize organikoa disolbatzea errazten baitute (Quintana, JA.; Alesan Alias, A. in Isidro, A.; Malgosa, A., 2003). Hala ere, soldaduen elikaduran haragi falta zegoela ere isla lezakete. Bizilekuen aztarnarik ere ez dela agertzen aintzat hartuta, pentsa liteke afora hotza zela (edo, gutxienez, beste leku batetik eramaten zela) eta, ja-

La organización en una trinchera solía ser, como mínimo, un poco caótica y aunque su finalidad fuese la estrategia defensiva u ofensiva, la realidad material e histórica nos habla de cómo esos pasillos terrosos se convertían en algo más que una estructura militar, pues acababa siendo el hogar de un gran número de personas durante un buen lapso de tiempo, si bien, una casa nada confortable. Los soldados estaban preparados para la batalla, pero también aquí se alimentaban, se procuraban un mínimo de higiene e incluso debían afrontar las horas muertas cuando el frente estaba en calma.

En las trincheras de Lemoatx, la cultura material nos habla de estos aspectos: sabemos que se alimentaban allí, ya que se han recuperado latas, cucharas, una tapa de olla y hasta algún plato de aluminio; no obstante, lo que no se documentó fueron restos de fauna. Un factor que podría relacionarse con esto, es la mala preservación de los materiales óseos con la acidez del suelo. Mientras que su preservación se da mejor en condiciones alcalinas, terrenos ácidos como los del monte de Lemoa favorecen la disolución de la matriz orgánica (Quintana, JA.; Alesan Alias, A. in Isidro, A.; Malgosa, A., 2003), pero también podría estar indicando la carencia de cierta carne en la alimentación de los combatientes. Conjuntamente con el hecho de que no se encuentren restos de hogares podría sugerir que su cena se servía en frío –o como

<sup>2</sup> González Ruibal, A. (2010). *Noches en vela en la trinchera*: <http://guerraenlauniversidad.blogspot.com.es/2010/09/noches-en-vela-en-la-trinchera.html>.

or.

kina, soldaduen dietako haragi-ekarpenak txikiak ziren anoetan. Gerran, soldaduen anoetan arraroa zen haragia aurkitzea: elikagaiak eskasak izanik, haragi apurrak saldak egiteko erabiltzen ziren; beraz, lubaki-lerroetatik at kuzinatzen zela eta jatekoak haraino eramaten zirela ere aintzat hartuta, ez da arraroa hezur-aztarnarik ez berreskuratzea.

Aurkitutako kontserba-laten kopurua ere ez da bereziki handia izan, eta horrek isla lezake lubaki-lerroetatik kanpo kozinatzen zutela. Gerra-sasoian, sardina- edo hegalabur-latak eduki ohi ziren, nahiz eta kontserbazio-egoera dela-eta oraingoz ezin izan den zehaztu Lemoan aurkitutakoetan zer zegoen (berreskuratutako materiala aztergai da oraindik). Bestalde, lata-kopurua txikia denez, pentsa daiteke oro har ontzi horiek birziklatu egiten zirela, material-eskasiari aurre egiteko. Halaber, aintzat hartzekoa da lubakiak ez zirela luzaroan erabili, eta izan daiteke inguruetan hondakindegia bat egotea edo, besterik gabe, zabor askorik ez sortzea.

Elikaduraren inguruko beste xehetasun bat erortzen da esku-hartzeetan berreskuratutako koilaretatik. Batzuen burua besterik ez dago, baina osorik gorde direnen artean guztietan errepikatzen den patroi bat dago: heldulekua tolestuta dago. Hori gertatzen da soldaduek eurek tolestu ohi zituztelako, poltsikoan sar zitezten edo uniformearen uhaletan eskegitzeko; azken batean, era praktikoan eramateko.

mínimo se transportaba desde otro lugar- y que por supuesto las raciones no incluían importantes aportaciones cárnicas a la dieta de los soldados. En la guerra raramente la ración del soldado incluía carne; ante la escasez de alimentos, la poca que había se utilizaba para hacer caldos, con lo cual, sumado al hecho de que probablemente se cocinase fuera de las líneas de trinchera y la comida se llevase hasta ellas, no es extraño que no recuperemos restos óseos.

Tampoco se han documentado un número excesivamente alto de latas de conserva, lo que apoyaría a la idea de que les cocinasen, por ejemplo, fuera de las líneas de trinchera. Las latas en la guerra acostumbraban a ser de sardinas o atún, aunque debido a la conservación de las documentadas en Lemoa su contenido no se ha podido concretar por el momento (el material recuperado sigue siendo objeto de estudio). Por su parte, el hecho de que no haya un gran número de latas también puede deberse a que por norma general estos recipientes se reciclaban ante la escasez de material. Por otro lado, hablamos de trincheras que no pasaron gran tiempo en uso y puede ser que tuvieran un vertedero en los alrededores o simplemente no generaran un gran cúmulo de basura.

Otro detalle sobre su alimentación lo conforma el número simbólico de cucharas que se han recuperado en las intervenciones. Algunas únicamente conservan la cabeza, pero entre las que se preservan en su totalidad se puede observar un mismo patrón que se repite en todas ellas: el mango está doblado. Esto sucedía porque lo forzaban ellos mismos para que les cupiese en el bolsillo o para colgarla en el correa del uniforme; en definitiva, para transportarlas de una forma práctica.



Kontserba-poto oso herdoilduak, denbora igaro delako oso egoera txarrean daudenak. Jatorrian biribilak edo laukizuzenak ziren. Irudian poto horiek irekitzeko gailu pare bat ere ageri da, eta goiko ertza tolestuta duen estalki bat ere bai. / Latas de conserva muy oxidadas, maltratadas por el paso del tiempo. Originariamente eran de forma redonda o rectangular. En la imagen también pueden verse un par de llaves para abrirlas e incluso una tapa doblada en el extremo superior izquierdo (Eukén Alonso, 2017).



Lemoatxen berreskuratutako koilarak. Narriatutako poto biribil bat ere ikusten da.

Cucharas recuperadas en Lemoatx, también se ve una lata muy degradada de forma redonda (Iñaki Mezquita, 2017).

Gerra Zibileko testuinguru beliko guztietan (edo ia guztietan, hala nola hobi komunetan edo lubakietan) agertzen dira beira-zatiak eta botila osoak, eta horietako asko edari alkoholdunenak dira. Lemoan bi adibide agertu dira; zehazki, orain dela gutxi botila zatikatu bat berreskuratatu da, non *Pedro Jerez* jartzen baitu. *Pedro Domecq* Jerez ardo-markari lotutako izena da.

Algo que se repite en todos (o casi todos) los contextos bélicos de la Guerra Civil, como los alrededores de las fosas comunes o las trincheras, son fragmentos de vidrio y botellas enteras, muchas de ellas de bebidas alcohólicas. En Lemoa han aparecido los dos ejemplos. Concretamente, se ha recuperado recientemente una base de botella fragmentada donde se puede leer '*Pedro Jerez*', nombre asociado a la marca de vino Jerez '*Pedro Domecq*'.



Apurtutako botila baten zatiak eta Pedro Jerez irakur daitekeen oinarria.

Fragments of a broken bottle and base where *Pedro Jerez* can be read (Eukén Alonso, 2017).

or.

Edari alkoholdunak ezinbestekoak ziren gerran, hainbat arrazoi tarteko. Lehenengo eta behin, beroa ematen zuen lubakietako babesgabetasunaren aurrean; halaber, morala bizi mantentzeko lagungarriak ziren,<sup>3</sup> berotu egiten zirelako eta beldurra galtzen zutelako, izan fusila eskuetan borrokatzeko, izan etsaia hobi komun baten edo hormatzar baten aurrean fusilatzen. Bestalde, ez da ahaztu behar ardoa, oro har, propietate osasuntsu eta nutritiboak lotuta aipatu ohi dela, eta Jerez ardoa osasun-sendagarri gisa merkaturatu zen Espainiako zenbait lekutan (Herrasti, L., Etxeberria, F., 2014). Ziur asko, azken alderdi horrek axola gutxi zien Lemoatxeko soldaduei, eta alkohol-hornidura etengabea zen gerra-sasoian: horri loturik, brandya etengabe lotzen zen errepublikanoen bandoari, eta Francoren jarraitzaileek jereza eta anisa izan ohi zituzten (Ruibal, 2016). Alkohol-motez hitz egitean ere bazeuden bandoak.

Bando bateko eta besteko soldaduen arteko ezberdintasunak erlijio-sineskeren adierazpideetan desagertzen dira. Gerra Zibilarekin lotutako hainbat ikerleketako esku-hartzeetan ikusitako materialen bidez, aukera egon da erlijioak soldaduen artean zuen garrantzia atzemateko, baita errepublikanoen artean ere: lubakietan dominak, balak geratzekoak edo eskapularioak aurkitu dira. "Beharbada espero zitekeena baino ohikoagoa da gutxiespen-kutsuz ateotzat jo zirenen artean (Montero, 2016). Lemoatxen bi domina aurkitu dira: bat, ziur asko erlijiosoa da, eta bestea garbitzeko eta zaharberritzeko dago.

La bebida alcohólica era imprescindible en la guerra por diferentes razones. En primer lugar, les daba calor ante la intemperie de las trincheras; pero seguidamente les ayudaba también a mantener la moral alta<sup>3</sup>, a enervarse y a perder el miedo ya fuese a la hora de luchar fusil en mano, o de fusilar al contrario a los pies de una fosa común y/o ante un paredón. Tampoco hay que olvidar que el vino en general suele aclamarse por sus propiedades medicinales y nutritivas, y el Jerez precisamente se llegó a comercializar como remedio medicinal en algunos lugares de la geografía española (Herrasti, L., Etxeberria, F., 2014). Seguramente poco les debía importar este último aspecto a los soldados de Lemoatx, donde el aprovisionamiento de alcohol era una constante en el contexto de la contienda, tanto que el brandy comúnmente se asociaba al bando republicano, mientras que el franquista disponía de jerez y anís (Ruibal, 2016). Existían bandos hasta para hablar de tipos de alcohol.

Donde no se diferenciaban los soldados de uno y otro bando era en la forma de expresar sus creencias religiosas. A través de la materialidad vista en las intervenciones de diversos lugares de estudio asociados a la Guerra Civil, se ha podido captar la importancia de la religión entre los combatientes, incluso los del bando republicano, documentándose en las trincheras objetos como medallas, detente-balas o escapularios. *'Es algo más recurrente de lo que tal vez cabría esperar entre quienes fueron tachados peyorativamente como ateos'* (Montero, 2016). En Lemoatx se han recuperado dos medallas, una de ellas probablemente religiosa y otra aún pendiente de limpieza y restauración.



**Berreskuratutako domina bat. Hiru bihotz dituela dirudi. Seguru asko balio erlijiosoa du.**

**Una de las medallas recuperadas. Se distinguen lo que parecen tres corazones. Probablemente tenga un valor religioso (Alba Peña, 2017).**

<sup>3</sup> Gehiago jakiteko: González Ruibal, A. (2016). Volver a las trincheras. Madrid: Alianza / Para saber más: González Ruibal, A. (2016). Volver a las trincheras. Madrid: Alianza.



Egoera gogorak izan arren, ematen du gutxiene-ko higiene mantentzen zela lubakietan. Lemoatxen hagnetako eskuila batzuk aurkitu dira kontserbazio-egoera onean, baita ilerako zenbait orrazi ere. Horietako batzuetan marka edo seriala ikus daiteke: *Forever* eta *Victory* irakur daiteke. Ez da lehenengo aldia Gerra Zibilaren testuinguruan legenda horiek dituzten orraziak aurkitzen direla; are gehiago, Francisco Etxeberriak eta Lourdes Herrastik Aranzadi Zientzia Elkar-tearekin Valdediós<sup>4</sup> irekitako hobi komunean orrazi berdina dokumentatu zen, *Victory* markakoa eta, ziur asko, Oviedoko La Cadellada ospitale psikiatrikoko erizain batena zen.

A pesar de las condiciones adversas, parece que se mantenía un mínimo de higiene personal en las trincheras. En Lemoatx se han encontrado algunos cepillos de dientes en un buen estado de conservación e incluso varios peines para el cabello. En algunos de ellos se puede apreciar la marca o más bien el serial: Se puede leer '*Forever*', y en el otro '*Victory*'. No es la primera vez que en el contexto de la Guerra Civil se recuperan peines con esas leyendas, de hecho, en la fosa común que exhumó el equipo de Francisco Etxeberria y Lourdes Herrasti con la Sociedad de Ciencias Aranzadi en Valdediós<sup>4</sup> se documentó un peine igual con la 'marca' '*Victory*' asociado posiblemente a un enfermero del hospital psiquiátrico de La Cadellada en Oviedo.



Ganzabaleko esku-hartzeetan aurkitu ziren hortzetako eskuiletako batzuk. / Algunos de los cepillos de dientes que aparecieron en las intervenciones de Ganzabal (Eukén Alonso, 2017).



'Victory' eta 'Forever' orraziak. Gehiago ere dokumentatu dira, baina bi horietan bakarrik ageri da edo gorde da inskripzioa. / Peines para cabello 'Victory' y 'Forever'. Se han documentado algunos más, pero solo en éstos aparece o se conserva la inscripción (Eukén Alonso, 2017).

<sup>4</sup> Valdedióseko hobiari buruz gehiago jakiteko / Para saber más sobre la fosa de Valdediós: <https://aricomemoriaaragonesa.files.wordpress.com/2009/03/informe-relativo-a-los-restos-humanos-hallados-en-la-fosa-de-valdedios.pdf> y <http://www.sc.ehu.es/scrwwwsr/Medicina-Legal/valdedios/valdedio.htm>.



Ezkerretik eskuinera: bizarra egiteko aitzurra, orrazia, bizarra egiteko xafiak, bizarra egiteko isipua eta talko-hautsen potea.

De izquierda a derecha: maquinilla de afeitar, peine, cuchilla para la maquinilla, brocha de afeitar y bote para polvos de talco (Euken Alonso, 2017).

Bizarra egitea ere lubakiraino eramaten zen ohiko zeregina bide zen. Talko-hautsen pote bat, labana bat eta aitzur bat dokumentatu dira; zehazki, Ganzabaleko zenbait sektoretan sakabanatuta agertu dira.

Agerikoa zen ideia bat: soldaduak gaixotasunen ondorioz galtzeak atzeratu egiten zuen gerra, eta irabazteko aukerak ere arriskupean jartzen zituen. Gaixotasunek eragindako bajak etsaiek eragindakoak baino gehiago izatera heldu ziren (Ruibal, 2016). Errepublikan horren jakitun zen eta alfabetizazio- eta higiene-ekimenak bultzatu zituen, bai eta sexuaren bidez transmititzen ziren gaixotasunak eta bestelakoak (adibidez, hazterria eta pedikulosia, ohikoak frontean) saihestekoak ere<sup>5</sup>.

Aipatutakoaren adibide da, orobat, armadan hezkuntza-klubak sortu izana (1937ko iraila): zeregin orokorren artean oinarrizko higieneari buruzko ikastaroak ematen ziren, bai eta gaixotasunen eta parasitoen aurkako borrokari buruzkoak, eta zauri arinak sendatzeari buruzkoak ere (Fernández, 2007). Esan dugunez, lubakietako gerrak gaixotzea zekarren gehienetan; izan ere, hogeita lau orduz tentsiopean, hezetasunarekin eta hotzarekin egoteak ondorioak zituen. Lemoako lubakietan termometro bat aurkitu izanak soldaduek pairatutako bizipen latzak bermatzen ditu: *J. Hicks 8, 9 & 10 Hatton Garden London* jartzen du termometroan: Ingalaterrako konpainia bati dagokio, eta tresna meteorologiko estandarrek, barometro aneroideak eta termometro klinikoak ekoizten zituzten; are gehiago, oso prestigiotsua zen, bere produktuen kalitatea dela eta<sup>6</sup>. Oraingoz azterbidean dago, baina ziur asko informazio asko eman ahal izango du era horretako objektu batek frontean zuen lekuaz; izan ere, tresna klinikoak da, garestia.

El afeitado por su parte, debía ser otro gesto cotidiano que se podía llevar hasta la trinchera. Se han documentado un bote de polvos de talco, una brocha, una cuchilla y una maquinilla de afeitar que han aparecido repartidos en diversos sectores de Ganzabal.

Era latente la idea de que perder combatientes por enfermedad atrasaba y hacía peligrar la posibilidad de vencer la guerra. Las bajas por enfermedades llegaron a ser más abundantes que por fuego enemigo (Ruibal, 2016). La República era consciente de ello e impulsó varias iniciativas de alfabetización e higiene y de prevención de enfermedades de transmisión sexual u otras como la sarna y la pediculosis muy características en el frente<sup>5</sup>.

Ejemplo de ello también fue la creación de Clubs de Educación en el Ejército en septiembre de 1937 donde entre las tareas generales se dictaba el desarrollo de cursillos de higiene elemental, de lucha contra las enfermedades, contra los parásitos, y de cura de heridas no graves (Fernández, 2007). Como ya hemos comentado, la guerra de trincheras suponía enfermar en la mayoría de veces, pues estar veinticuatro horas al día en tensión, con humedad y frío de por medio debe pasar factura. El hallazgo de un termómetro en las trincheras de Lemoa avala las penurias que debieron sufrir los soldados. En él se puede leer '*J. Hicks 8, 9 & 10 Hatton Garden London*' que corresponde a una compañía de Inglaterra especializada en aparatos meteorológicos estándar, barómetros aneroides y termómetros clínicos muy prestigiosa por la calidad de sus productos<sup>6</sup>. Aún en fase de estudio, seguramente pueda ofrecer una gran cantidad de información sobre todo en cuanto a por qué un objeto de estas características estaba en el frente, puesto que se trataba de un aparato clínico, de elevado coste económico.



Termometroaren aurrealdea eta atzealdea / Anverso y reverso del termómetro (Iñaki Mezquita, 2017).

<sup>5</sup> <http://xsierrav.blogspot.com.es/2016/01/carteles-sanitarios-de-la-guerra-civil.html>.

<sup>6</sup> [https://www.gracesguide.co.uk/James\\_J\\_Hicks](https://www.gracesguide.co.uk/James_J_Hicks).

Ez da lubakien babesgabatasun-egoerako osasunaz hitz egiten digun aztarna bakarra. *Linimiento Sloan* delakoaren botila baten aurkikuntzak islatzen du bizi zuten ezinegona. Sendagai horri "minak hiltzekoa" esaten zioten, eta oro har giharretako lesioetan erabiltzen bazen ere, jatorrian, Ameriketara, zaldien lesioetan erabiltzen zen, harik eta sendagai gisa hedatu zen arte. 1907an iritsi zen Europara<sup>7</sup>.



Anpoilak, medikazioarekin. Bi ontzi-motek, seguru asko, osatera desberdineko medikamentua izango zuten. / Ampollas con medicación. Los dos tipos de recipiente, seguramente contenían diferente composición de medicamento (Iñaki Mezquita Aranburu, 2017).

Bestalde, morfina- edo kloroformo-anpoila monodosien hainbat ale berreskuratatu dira; gerratean pairatutako zaurietan erabiltzen zen. Askok hitz egin dugu gaixotasunez, baina ez da ahaztu behar gorputza jotzen zuten metrailak edo jaurtigailuek eragindako zauriek hainbat baja sortzen zituztela soldaduen artean. Lesioak desinfektatzeak berebiziko garrantzia zuen, lesio txikiak izan arren; izan ere, frontean zikinkeria eta egoera eskasak bizi ziren, eta arriskua hedatzen zuten fronteko soldaduen artean.

No es el único vestigio que nos habla de la salud ante la intemperie de las trincheras. El hallazgo de una botella de *Linimiento Sloan*, nos esboza el malestar que sentían. Este medicamento era conocido como 'mata dolores' y aunque generalmente se utilizaba sobre las lesiones musculares, lo cierto es que, en su origen en América, se aplicaba sobre las lesiones de caballos hasta que empezó a extenderse como medicamento, llegando a Europa en 1907<sup>7</sup>.



Garaiko publizitatea, *Linimiento Sloan* sendagaiarena. / Publicidad de la época hablando del medicamento 'Linimiento Sloan' (Mercado libre).

Por su parte, también se han recuperado un número destacado de ampollas de lo que parece morfina o cloroformo en *monodosis* para tratar las heridas provocadas en la contienda. Hemos hablado mucho de las enfermedades, pero no hay que olvidar las elevadas bajas de soldados ocasionadas por las heridas que provocaba la metralla o los proyectiles impactados en el cuerpo. La importancia de desinfectar una lesión por muy mínima que fuese en un contexto dominado por la suciedad y las condiciones precarias que se vivían en el frente eran vitales ya que suponían un peligro para el soldado que las padecía.



*Linimiento Sloan* botila, Lemoatxeko esku-hartzetako batean berreskuratua.

Botella *Linimiento Sloan* recuperada en una de las intervenciones de Lemoatx (Iñaki Mezquita Aranburu, 2017).

<sup>7</sup> <https://blog.uchceu.es/eponimos-cientificos/linimento-de-sloan-el-tio-del-bigote>.

Arestian soldaduen aisialdia aipatu dugu, frontearen lasaitasun-tarteei lotuta. Lemoatxeko kultura materialak berriz ere iradokitzen dizkigu Ganzabal gaineko lubakietan gertatu bide zirenen pasarteak:

Material oso galkorra izan arren, egunkari-papereko zatiak aurkitu izanak erakusten du soldaduek irakurri eta informazioa jasotzen zutela frontean. Induskatu arte laurogei urtez lurpean iraun duten paper-puskak dira, ziur asko orrazi eta bala-zorroetatik hurbil geratu zirelako: kobreak material organikoaren iraupena errazten du, mikroorganismo suntsitzaileen aktibitatea murriztuta (Renfrew, 1995). Bando batean zein bestean ohikoa zen egunkaria erabiltzea propaganda-estrategia gisa: fronteko soldaduen gogo bizirik mantentzeko balio zuen, eta beste horrenbeste amaitzen ez zen gerratea bizi zuen gizarteari dagokionez. Propaganda idatziak etsaiaren ahulguneak erasotzen zituen, eta horrek aukera ematen digu gerlariak gerraz zuten ikuspegia eta gerlarien gogoia ezagutzeko (Iglesias, 2002).

Anteriormente habíamos mencionado el tiempo libre de los soldados cuando el frente estaba en calma. La cultura material de Lemoatx nos vuelve a insinuar fragmentos de episodios que debieron ocurrir en las trincheras de la cima de Ganzabal:

A pesar de ser material bastante perecedero, el hallazgo de fragmentos de papel de periódico deja constancia de que los soldados leían y se mantenían informados en el frente. Son trozos de papel que han aguantado el paso de ochenta años hasta ser excavados, seguramente porque se hallaban próximos a la presencia de peines y vainas, y el cobre favorece la conservación de material orgánico, reduciendo la actividad de microorganismos destructivos (Renfrew, 1995). Tanto en un bando como en el otro era recurrente el uso del periódico como estrategia propagandística, que servía para mantener la moral de los soldados en el frente, así como la de la sociedad en sí fatigada por una guerra que no finalizaba. La propaganda escrita intentaba atacar los puntos débiles del enemigo y por ello nos permite conocer la percepción de la guerra por los combatientes y su estado de ánimo (Iglesias, 2002).



BerBerreskuratutako egunkari-zatiak. / Fragmentos de periódico recuperados (Alba Peña, 2017).

Beste alde batetik, euren esentzia dela eta, bestelako objektu batzuk ere oso esanguratsuak dira. Arkatz-zatiak eta tintontziak aurkitu dira, eta nabarmentzekoak dira bai duten karga sinbolikoagatik, bai halakoak egunerokoan erabiltzen zirelako. Espainiako Gerra Zibileko indusketa arkeologikoetan errepikatzen den aztarna da, eta Lehenengo Mundu Gerrari lotutakoetan ere agertzen dira (Landolt, 2014). Lubakietan ez ezik, bestelako gotorlekuetan eta hobi komunetan ere agertzen dira, besteak beste. Batzuetan objektuarekin lotutako pertsonaren gremioari edo ofizioari atxikitzen zaizkio, edo pertsona horrek gizartean zuen lekuari (azken aukera hori baztertzekoa da kasu honetan, soldadu zebiltzalako); beste batzuetan kokapenarekin daude lotuta, hala nola kartzela edo lubakia. Soldaduek euren senideei idazten zieten, edo euren buruei, edo, besterik gabe, aspertuta zeudela-eta marraztu egiten zuten, adierazpide edo denbora-pasa gisa.

Adibide interesgarria da Ezkaba mendian (Nafarroan), San Kristobal gotorlekuan egindako berreskuratze- eta azterketa-lana: han gatibu zeudenek espetxeko hormetan utzi zituzten idatziak eta marrazkiak<sup>8</sup>. Arkatza aliatu handia zen gerra-sasoian, bai adierazteko beharriaz aurre egiteko, bai erabilgarritasun praktikoari dagokionez; hala erakusten du Gerra Zibilari lotutako esku-hartze arkeologiko askotan berreskuratutako zatien ugaritasunak. XX. mendeko egunerokoan oso presente zegoen, nahiz eta gaur egun apurka-apurka galtzen ari den poltsikoko teknologiaren mesedetan. Beharbada atzera begiratzeak, are kontu txikienetan ere, lagundu egin ahal digu banakako hausnarketa egiteko.

Por otro lado, hay otros tipos de objetos muy representativos por su esencia. Se han recuperado fragmentos de lápiz, así como algunos tinteros, que destacan por su carga simbólica pero también por el hecho de que se hiciera uso de ellos en el día a día. Este es un vestigio que se repite en las intervenciones arqueológicas de la Guerra Civil española – e incluso en las de la Primera Guerra Mundial (Landolt, 2014)-. No aparecen únicamente en trincheras, sino también en otro tipo de fortificaciones y en fosas comunes, entre otros. A veces están relacionados con el gremio u oficio de la persona asociada al objeto o a su posición social – lo cual en esta situación no aplicaría, pues ahora ejercen de soldados-; otras veces con la ubicación, como puede ser una cárcel o una trinchera. Los soldados escribían a sus familias o incluso para ellos mismos, o simplemente se aburrían y dibujaban para expresarse o para matar el tiempo.

Un ejemplo interesante es la recuperación y estudio que se llevó a cabo en el Fuerte de San Cristóbal situado en el monte Ezkaba de Navarra, donde los reclusos impregnaron de escritos y dibujos las paredes de la prisión<sup>8</sup>. El lápiz era un gran aliado en tiempos de guerra ya fuese por la necesidad de expresión como por su utilidad práctica, y así lo hace constar la gran presencia de fragmentos recuperados en una notable cantidad de intervenciones arqueológicas relacionadas con la Guerra Civil. Se trataba de un objeto muy presente en la cotidianidad del siglo XX, aunque en los tiempos que corren su pérdida se extiende progresivamente ante el auge de la tecnología de bolsillo. Quizá mirar atrás incluso en las cosas más pequeñas nos puede ayudar a la reflexión individual.



Berreskuratutako arkatzaren mina eta tintontziak. Horietako batzuek erliebean marka dute, edo fabrikako informazioren bat. Halaber, tintontzi baten marrazkia: ipar-ekialdeko sektorean (NE) berreskuratutako eta *Renau* irakurri daiteke. / Mina de lápiz y tinteros recuperados. Algunos de ellos conservan en relieve la marca o diversa información de fábrica. Y dibujo de un tintero recuperado en el Sector noreste (NE) donde se puede leer '*Renau*' (Iñaki Mezquita, 2017).

<sup>8</sup> Etxeberria, F. eta Pla, K. (2014). / Etxeberria, F. y Pla, K. (2014). *El Fuerte de San Cristóbal en la memoria: de prisión a centro penitenciario*. Pamplona: Pamiela.

Azkenik, ezin amai genezake atal hau Arkeologia-ren lagungarri diren beste diziplina batzuetako lana aipatu gabe; adibidez, Kontserbazioa eta Errestaurazioa diziplinena. Lubakietako eta Lemoatxeko testuingurua eratzen duten objektuez hitz egin dugu adibide legez, eta objektu horietako gehienak bereiz daitezke, hobeto edo okerrago kontserbatuta dauden arren.



Oihalak, lubakian aurkitu ziren formarekin. Eskuinean txapela, zaharberritu aurretik. / Textiles con la forma en la que se hallaron en la trinchera. A la derecha txapela antes de la restauración (Itziar Viana).

Ipar-ekialdeko (NE) sektorean ehunen bola nahasi baten antza zuten zenbait pilo aurkitu ziren. Lehenik, ehunak aztertzea konplexua zen eta, gainera, kontserbazio-egoera ezin txarragoa zen. Hori dela eta, Lemoako Udalak, Aranzadi Zientzia Elkartearen aholkua-ri jarraikiz, Itziar Viana Pesosi agindu zion (ehunetan aditua da) bi objektu horiek errestauratzeko. Gaur egun, errestaurazio-lana eginbidean dago, baina lehenengo emaitzak ikus daitezke. Ehunen nahaspila lupetzez zikindua zena denborak eta egoerak higatutako txapela bihurtu da. Beste horrenbeste gertatzen da beste ehun batekin: gerrako hotzari aurre egiteko jaka bat ikusten hasi da. Halaber, lan bera egiten da errestauratu ahal diren metalezko materialekin: Giorgio Studer errestauratzaileari eramaten zaizkio.

En el Sector noreste (NE) se hallaron diversos cúmulos de lo que parecía una bola enmarañada de tejido. A primera instancia, estudiar los textiles resultaba complejo y además su conservación era pésima. Por ello el Ayuntamiento de Lemoa mediante el asesoramiento de la Sociedad de Ciencias Aranzadi, encargó a Itziar Viana Pesos, especialista en textiles la restauración de estos dos objetos. Actualmente, la restauración está en proceso, pero ya se pueden vislumbrar los primeros resultados. Lo que era tela amontonada y embarrada ha dejado ver una antigua txapela castigada por el tiempo y las circunstancias. Lo mismo pasa con el otro textil, donde se empieza a vislumbrar lo que fue una chaqueta para combatir el frío de la guerra. De la misma manera, se realiza la misma labor con los materiales metálicos susceptibles de restauración, que son llevados al restaurador Giorgio Studer.




Munizio-pakete osoa, zaharberritu ondoren eta paketearen behetiko bista. KK 1934 irakur daiteke bertan. / Paquete de munición completo después de su restauración y vista inferior del paquete donde se puede leer 'KK 1934' (Giorgio Studer).



Zaharberitutako jaka eta txapela, Lemoatxeko lubaki batean aurkituak. / Chaquetón y txapela restaurados, encontrados en una trinchera de Lemoatx. (Juanxo Agirre, 2018)

Horiek ez dira berreskuratutako jantzi bakarrak; izan ere, botak eta bestelako arropa-pusketak ere aurkitu dira: aztarna horiek berretsi egiten dute zer-nolako premiaz hustu ziren lubakiak eta zer-nolako kaosa bizi izan zen guduetan. Are gehiago, kartuxo-uhalak eta baionetak aurkitu dira. Nork uzten ditu halako objektuak lubakietan? Zalantzarik gabe, gerrateak zigortutako eta higatutako pertsonak dira, irabazle zein galtzaile izan; gerra-sasoiak faktura ordainarazten zien testuiguru hartan ibili behar zuten soldadu arrunt guztiei.

No son las únicas prendas de vestir que se han recuperado, pues también se han hallado botas y otros fragmentos de ropa, unos vestigios que reafirman la prisa con la que se desalojaron las trincheras y el caos de los combates. Incluso se han encontrado cartucheras y bayonetas. ¿Quién abandonó este tipo de objetos en la trinchera?. Sin duda se trata de personas castigadas por la contienda y su desgaste, ya fueran vencedores o vencidos; el tiempo en guerra pasaba factura a todos los soldados de a pie que debían sufrir ese contexto.



Txapela, azkenetako zaharberritze-faseetan. / Txapela durante las últimas fases del restaurado (Itziar Viana, 2017).

Arkeologiaren esparruko esku-hartzeen eta landa-lanen barnean zein kanpoan egiten den lana elkarrekin lan egiten duten hainbat zientziaren eta espezialitatearen esku geratzen da; hain zuzen, horiek bide ematen dute gizarteari lortutako datuak era koherentean aurkezteko: teknikariak (Tito Agirre eta Asier Izagirre), geomatikako eta topografiako ingeniariak (Eukén Alonso), historialariak (Mikel Diego), Euskal Prospekzio Taldeko taldea, errestituzioa (Itziar Viana eta Giorgio Studer), etnografia (Fermín Leizaola), Udalberria (Saioa Elejabarrieta Amorrortu alkate andrea, gazteria-teknikari Mikel García Mugarza, udalerriko brigada), objektuak hobietatik ateratzeko lana (Francisco Etxebarria, Lourdes Herrasti eta boluntarioak), lan-eremuetako gazteak, horien koordinatzaile eta begiraleak (zenbait izen: Nerea Arenas, Jon Agúndez, Amaia Caiero Garai, Matxalen Goienetxea edo Josu Pintor, besteak beste), herritarren lana Auzolanak erakundearen artean, liburu honen itzultzailea (Euskalgintza), liburuaren maketatzaileak (Ana Lasarte), laguntzaileak (Mattin Aiestaran eta Iñaki Mezquita), arkeologoak (Haizea Bravo, Jimi Jiménez)... itzalpetik lagundu duten beste askoren artean.

Lemoatx ez da ahanzturan eginiko aurkikuntza: ondare bizia eta aktiboa da, hausnarketaren, kritikaren eta pertsonen batasunaren gunea. Eta pertsona horiek elkarrekin ari dira xede sozialarekin eta kulturarekin. Galdu behar ez diren alderdiak dira, funtsean gaur egun transmititu, jarauntsi eta defendatu behar diren balore demokratikoetan sustraitzen baitira.

La labor dentro y fuera de las intervenciones arqueológicas y campos de trabajo, está constituida por un buen listado de ciencias y especialidades que trabajan de manera conjunta y permiten ofrecer a la sociedad la cohesión de los datos obtenidos: los técnicos (Tito Agirre y Asier Izagirre), el ingeniero en geomática y topografía (Eukén Alonso), el historiador (Mikel Diego), el equipo de Euskal Prospekzio Taldea, la restauración (Itziar Viana y Giorgio Studer), la etnografía (Fermín Leizaola), el propio Ayuntamiento (la alcaldesa Saioa Elejabarrieta Amorrortu, el técnico de juventud Mikel García Mugarza, la brigada del municipio), el trabajo en la exhumación de fosas (Francisco Etxebarria, Lourdes Herrasti y el voluntariado), los y las jóvenes de los Campos de Trabajo, la coordinación y monitores de los mismos (algunos nombres: Nerea Arenas, Jon Agúndez, Amaia Caiero Garai, Matxalen Goienetxea o Josu Pintor, entre muchos/as otros/as), la labor del pueblo mediante la organización de Auzolanak, la traductora de este libro (Miren García), la maquetación del mismo (Ana Lasarte), los colaboradores (Mattin Aiestaran e Iñaki Mezquita), los/las arqueólogos/as (Haizea Bravo, Jimi Jiménez), entre muchos otros que han colaborado desde la sombra.

Lemoatx no es un hallazgo en el olvido, sino que se trata de un patrimonio vivo y activo, núcleo de reflexión, crítica y unión de personas en interacción con un propósito social y cultural. Se trata de aspectos que no se deben extraviar, pues en esencia van arraigados a los valores democráticos que se deben transmitir, heredar y defender hoy en día.





Jaka, zaharberitze-prozesuan. / La chaqueta en proceso de restauración (Itziar Viana).

## 3.3. OBJEKTUAK ETA HISTORIAK / OBJETOS E HISTORIAS



Ipar-ekialdeko sektorean (NE) aurkitutako alambre zati arantzadunak. 1937an mendia horrelakoz josita zegoen.

Fragments de alambre de espino encontrados en el Sector noreste (NE). En 1937, el monte estaba cubierto de ellas (Alba Peña, 2017).



Hegoaldeko sektorean (S) aurkitutako obusa, lehertuta. Lemoatxen metralla ugari aurkitu da eta 1937an mendiak parratutako bonbardaketa gogorren lekuko dira.

Obús impactado encontrado en el Sector sur (S). Las grandes cantidades de metralla encontradas en Lemoatx testimonian los violentos bombardeos que sufrió el monte en 1937 (Alba Peña, 2017).




Ipar-ekialdeko sektorean (NE) agertutako eskuko granada-zatiak /  
Fragments de granadas de mano, aparecidas en el Sector noreste (NE) (Alba Peña, 2017).




Hegoaldeko sektorean (NE) agertutako eskuko granada-espoleta.

Espoleta de granada de mano aparecida en el Sector sur (S) (Alba Peña, 2017).




Ipar-ekialdeko sektorean (NE) agertutako pistola-ren kargadore-zatiak.

Fragmento de peine cargador de pistola, aparecido en el Sector noreste (NE) (Alba Peña, 2017).




Ipar-ekialdeko sektoreko (NE) metrailadore-habia batean aurkitutako munizio-kaxa baten edukia. Kartutxo hornitza funtsezkoa zen fronteko lerroan.

Contenido de una caja de munición, descubierto en el nido de ametralladora del Sector noreste (NE). El aprovisionamiento en cartuchos era primordial en la línea de frente (Iñaki Mezquita, 2017).



Kartoi-zatiak. Munizio-paketeak dira, ipar-ekialdeko sektorekoak (NE). Batzuetan fabrikako marka ikus daiteke.

Restos de cartón. Concretamente son paquetes para munición, provenientes del Sector noreste (NE). En uno de ellos se puede apreciar la marca de fábrica (Euken Alonso, 2017).




16 kalibreko zorroa, Lefaucheux mota, ipar-ekialdeko sektorean (NE) agertua. Antzinako ehizarako munizioa da (XIX. mendea edo XX. mende hasiera), Gerra Zibilaren hasierako hilabeteetan erabili zen. Orain arte Lemoatxen agertu den adibide bakarra izan da.

Vaina de calibre 16, tipo Lefaucheux, aparecida en el Sector noreste (NE). Se trata de munición de caza antigua (siglos XIX – inicios siglo XX), también utilizada en los primeros meses de la Guerra Civil. Es el único ejemplo aparecido en Lemoatx hasta el momento (Alba Peña, 2017).



Fusilerako munizioa hainbat formatan agertu daiteke: tiro eginda, solte, kargadorearekin edo kartoizko paketeetan. Fase desberdinen adierazleak dira: kaxetan garraiatu eta biltegiatzetik frontearen erabiltzeraino.

La munición para fusil puede aparecer de distintas formas: disparada, suelta, con el peine cargador o en paquete de cartón. Representan diferentes fases, desde el transporte y almacenamiento en cajas hasta su uso en el frente (Alba Peña, 2017).



Borrokalari baten ekipo ia osoa. Bi kartutxo-zorro, larruzko uhalá eta baionetaren soin-uhala. Ipar-ekialdeko sektorean (NE) elkarrekin agertutako elementuak.

El equipo prácticamente completo de un combatiente. Consiste en dos cartucheras, un corraje de cuero y un tahalí de bayoneta. Estos elementos aparecieron juntos en el Sector noreste (NE) (Alba Peña, 2017).



Kartutxo-zorroa zaharberritzeko eta kontserbatzeko prozesuan. Ipar-ekialdeko sektorean (NE) agertu zen.

Cartuchera durante el proceso de restauración y conservación. También apareció en el Sector noreste (NE) (Giorgio Studer, 2016.).



Ipar-ekialdeko sektoreko (NE) metrailadore-habian agertutako baioneta, zaharberritu ondoren. Borrokalariaen ekipamendua osatzen zuen, fusila arma zuri bihurtzen zuen, gorputzez gorputzeko borrokarako.

Bayoneta aparecida en el nido de ametralladora del Sector noreste (NE), después de su restauración. Completaba el equipamiento individual del combatiente, transformando el fusil en un arma blanca para la lucha de cuerpo a cuerpo (Giorgio Studer).



Fusila garbitzeko baketa, ezinbestekoa armaren mantentze-lanetarako. Ipar-ekialdeko sektorean (NE) agertu zen.

Baqueta para la limpieza de fusil, indispensable para el mantenimiento de las armas. Apareció en el Sector noreste (NE) (Alba Peña, 2017).





Gaztela eta Leongo armarría, seguru asko militar intsignia, Ros motako kapelarentzat, 1860tik 1933ra erabilia. Hegoaldeko sektorean (S) agertu zen.

Escudo de Castilla y León, probablemente de una insignia militar para prenda de cabeza tipo Ros, usada desde 1860 hasta 1933. Apareció en el Sector sur (S) (Euken Alonso, 2017).



Infanteriako belarri militarra. Belarria soldaduen uniformeko zatietako bat zen. Ipar-mendebaldeko sektorean (NW) agertu zen.

Hebilla militar de infantería. La hebilla era parte integrante del uniforme del soldado. Apareció en el Sector noreste (NW) (Euken Alonso, 2017).



Botak Gerra Zibileko testuinguru militarrekin erlazionatu ohi dira. Normala litzateke pentsatzea soldaduek janzen zituztela, lubaki-eremu zailetan mugitzeko. Alabaina, errealitatean matxinatuak askoz ere hobeto zeuden prestatuta errepublikanoak baino, eta azken horiek eskura zituzten oinetakoak erabiltzen zituzten. Ohikoa da alpargatak, botak, zapatak eta abar aurkitzea. Bota ipar-mendebaldeko sektorean (NW) agertu zen, beste batzuekin batera. Zola, berriz, ipar-ekialdeko sektorean (NE) agertu zen.


Las botas suelen asociarse al contexto militar de la Guerra Civil. Lo normal es que las calzasen los soldados ante el difícil contexto de las trincheras; aún así lo cierto es que por lo general el bando sublevado estaba mucho mejor preparado que el republicano y por ello estos últimos solían utilizar lo que tenían. Es usual encontrar alpargatas, botas, zapatos, etc. En cuanto a la bota apareció, con algunas más, en el Sector noreste (NW). La suela en cambio fue encontrada en el Sector noreste (NE) (Eukén Alonso, 2017, Alba Peña, 2017).






Ipar-mendebaldeko sektorean (NW) agertu zen zahato-muturra, zurez egina. Kanpoko muturra hariarlotzeko izaten zen, baina txanoa galdu zaio, muturrera hari batekin lotzen zena.

Brocal de bota de vino, realizado en madera, aparecido en el Sector noreste (NE). Tiene el pitorro exterior con rosca en la que se engarzaba el capuchón que se ha perdido, y que estaba unido al brocal con una cuerda (Euken Alonso, 2017).



Ipar-ekialdeko sektorean (NE) aurkitutako janari-potoa eta irekitzeko. Poto hauek lehen lerroko elikadurari eta logistikari buruzko informazioa ematen digute.

Lata de comida y abrelatas, encontrados en el Sector noreste (NE). Las latas nos informan sobre la alimentación y la logística en primera línea (Euken Alonso, 2017).




Aluminiozko platera, ipar-ekialdeko sektoreko (NE) aterpeko lubaki hondoa agertua. / Plato de aluminio, aparecido en el fondo de trinchera en el refugio del Sector noreste (NE) (Alba Peña, 2017).



Ipar-mendebaldeko sektorean (NW) agertutako zakote-ontziaren aluminiozko tapa. Baina oraingoz ez da Lemoatxen sukaldea edo suren bat egon zelako aztarnarik aurkitu.

Tapa de fiambreira de aluminio, aparecida en el Sector noroeste (NW). Sin embargo, por el momento no se han localizado indicios de hogar o de cocina improvisada en Lemoatx (Alba Peña, 2017).





Kartutxoa, bala beste zorro baten barruan sartuta. Ipar-ekialdeko sektorean (NE) agertu ziren hau eta beste bat. *Lubakiko artea* izan ordez, seguru asko itxaronaldi luzeen ondorioak dira.

Cartucho con la bala metida dentro de otro casquillo. Este y otro aparecieron en el Sector noreste (NE). Lejos de pertenecer al 'arte de trincherá' seguramente fueron producto de las largas esperas (Euken Alonso, 2017).




Idazten eta marrazten igarotzen zen denbora, horregatik aurkitzen dira arkatz- edo tintontzi-hondarrak, lubakietako sektoreetan agertu ziren hauek bezalakoak.

La escritura y el dibujo permitían pasar el tiempo, por eso se suelen encontrar restos de lápices o tinteros, como estos que aparecieron en diferentes sectores de las trincheras (Iñaki Mezquita, 2017).



Egunkari-zati bat, bizarra egiteko isipu baten kirtenaren barruan aurkitu zen tako legez. Bertan “socialistas” eta “general de trabajadores” hitzak nabarmentzen dira; datu horiekin eta letra-tipografiari begiratuz, Iñaki Rebolledo ikertzaileak identifikatu du zatia zein argitalpenetako den. *El Liberal* egunkariaren orri bat da, 12.575 zenbakiarena hain zuzen ere (Bilbon argitaratua 1937ko apirilaren 18an).

Fragmento de periódico que a modo de taco se encontró en el interior del mango de una brocha de afeitar. En el mismo destacan las palabras “socialistas” y “general de trabajadores”, con estos datos y atendiendo a la tipografía de las letras, el investigador Iñaki Rebolledo ha identificado la publicación a la que pertenecía el fragmento. Se trata de la primera página del periódico *El Liberal*, nº. 12.575, publicado en Bilbao el domingo 18 de abril de 1937.



Ipar-ekialdeko sektorean (NE) aurkitutako bizarra egiteko isipu bat. Kirtena kalaminan kroatuta duenez, azkar higitzen da. Hau bezalako aztarnek erakusten digute borrokalariak gutxieneko batzuk mantentzen saiatzen zirela higie pertsonalean. Isipu honetan aurkitu ziren egunkari zatiak.

Brocha de afeitarse, aparecida en el Sector noreste (NE). Tiene el mango engarzado en calamina, por ello se deteriora rápidamente. Evidencias como estas nos señalan como los combatientes intentaban mantener un mínimo de higiene personal. En esta brocha se encontraron los fragmentos de periódico (Eukén Alonso, 2017).




Ipar-ekialdeko sektorean (NE) aurkitutako txanpon bat, 1870ekoa. Txakur handia esaten zitzaiona da, 1940ko hamarkadara arte erabili baitzen. Deformazio bat du, jaurtigairen batek jo zuelako segurua asko.

Moneda de 1870, encontrada en el Sector noreste (NE). Se trata de la comúnmente conocida 'Perra Gorda', que siguió en circulación hasta en los años cuarenta. Se ve una deformación, compatible con el impacto de un proyectil (Eukén Alonso, 2017).



Ipar-ekialdeko sektorean (NE) aurkitutako metalezko botoi-zuloa, oihal-arrastoeekin. Pasaian (Gipuzkoa) egina, lonazko toldo batena da seguruenek, oso erabilgarriak baitziren kokapenak eta materialak estaltzeko.

Ojal metálico con restos de lona, encontrado en el Sector noreste (NE). Fabricado en Pasajes (Guipuzkoa), se relaciona probablemente con un toldo de lona, muy útiles para cubrir las posiciones y los materiales (Eukén Alonso, 2017).



Ipar-ekialdeko sektoreko (NE) aterpearen lurzoruan aurkitutako botila, seguruenek medikamenturen batena. Zauritutako eta gaixotutako borrokalariak artatu eta ebakutzeko, logistika beharko zen.

Botella, probablemente de medicamento, encontrada en el suelo del refugio del Sector noreste (NE). La atención y evacuación de los combatientes heridos y enfermos requería de cierta logística (Alba Peña, 2017).



Ipar-ekialdeko sektorean (NE) agertutako ardo-botila baten ipurdiaren zatia, *Pedro Domecq* markakoa.

Fragmento del fondo de una botella de vino Jerez de marca 'Pedro Domecq' aparecido en el Sector noreste (NE) (Eukén Alonso, 2017).



Hegoaldeko sektorean (S) agertutako guraizeak.

Tijeras, aparecidas en el Sector SUR (S) (Eukén Alonso, 2017).




Ipar-mendebaldeko sektorean (NW) agertutako eremu zibileko brontzeko kanpai txiki bat. Ganadua feriara eramaten zenean, hainbat kanpai txiki zituen lepokoa jartzen zitzaion. Ezkontzetako arreoan gurdietan ere erabiltzen ziren edo ehizako txakurrek erabiltzen zituzten.

Campanilla de bronce del ámbito civil encontrada en el Sector noroeste (NW). Se colocaba un collar con varias campanillas cuando se llevaba ganado a la feria. También se podían encontrar con el arreo del carro de boda, o llevadas por algunos perros de caza (Eukén Alonso, 2017).



Hegoaldeko sektorean (S) berreskuratutako esne-kondentsatuko tutua, *La Lechera* marka. Gerra Zibileko lubakietan produktu hau kontsumitzen zela badakigu, baina tutua merkaturatzen 1955 ondoren hasi ziren. Gerraostean mendiak izandako erabileraren berri ematen digu honek.

Tubo de leche condensada de marca "La Lechera", recuperada en el Sector sur (S). Se conocen ejemplos del consumo de este producto en trincheras de la Guerra Civil, pero la comercialización en tubo no empezó antes de 1955. Así que nos informa sobre el uso del monte en la postguerra (Alba Peña, 2017).



Lepoko baten zatiak, ipar-ekialdeko sektoreko (NE) goiko kotetan agertu ziren. Gerraostekoak lubakiak utzi ondoren ere erabiltzen zirela adierazten du. Cuentas de collar, encontradas en cotas altas del Sector noreste (NE). Posteriores a la guerra, demuestran que las trincheras siguieron visitadas después de su abandono (Eukén Alonso, 2017).





# Gerrako materiala Lemoatxeko gudu-zelaian

Material bélico en el campo de batalla de Peña Lemona

# 4.





# Gerrako materiala Lemoatxeko gudu-zelaian

## Material bélico en el campo de batalla de Peña Lemona

**Alberto J. Sampedro<sup>(1,2)</sup>, Alberto Sardón Arriolabengoa<sup>(1,2)</sup>  
Eduardo Sardón Arriolabengoa<sup>(2)</sup>, Iñaki Rodríguez Rebolledo<sup>(1,2)</sup>**

<b>4.1. SARRERA / INTRODUCCIÓN</b> .....	186
<b>4.2. KARTUTXOAK ETA HORIEN JATORRIA / CARTUCHERÍA Y SU ORIGEN</b> .....	186
4.2.1. KARTUTXOEN KALIBREA / CALIBRES DE CARTUCHERÍA.....	186
<b>4.3. ESKU-GRANADAK / GRANADAS DE MANO</b> .....	188
4.3.1. ESKU-BONBEN MODELOAK / MODELOS DE GRANADAS DE MANO.....	188
<b>4.4. MORTEROAK / MORTEROS</b> .....	189
4.4.1. MORTERO-GRANADAK / GRANADAS DE MORTERO.....	189
<b>4.5. ARTILLERIA (KANOIAK ETA OBUSAK) / ARTILLERÍA (CAÑONES Y OBUSES)</b> .....	190
4.5.1. ARTILLERIA-JAURTIGAILUAK / PROYECTILES DE ARTILLERÍA.....	191
<b>4.6. ABIAZIOA / AVIACIÓN</b> .....	193
4.6.1. ABIAZIO-BONBAK / BOMBAS DE AVIACIÓN.....	193

<sup>(1)</sup> Aranzadi Zientzia Elkarte / Sociedad de Ciencias Aranzadi.

<sup>(2)</sup> Euskal Prospezkio Taldea.

or.

## 4.1. SARRERA

Lemoatx-Peña Lemoako guduetan, *Eusko Gudarosteak* posizioa berreskuratzeko saiakera ugarietan altxatuen zenbait kontraerasoren ondorioz, gerrako material asko erabili zen. Hurrengo txostenak jasotzen ditu ikeritutako materialak; zehazki, Euskal Prospekzio Taldeak zenbait urtez eginiko indusketetan agertu ziren.

## 4.2. KARTUTXOAK ETA HORIEN JATORRIA

Kasu askotan ezinezkoa da zehaztea zein bandok baliatu zituen berreskuratutako objektuak, nahiz eta beste batzuetan horretarako aukera dagoen, alderdietako batek eskusiboki baliatzen zituen materialak agertzen direlako. Ildo horretatik, dokumentazioa aztertuta jakin badakigu altxatuen bandoan Alemaniako fusil morroilodunak erabiltzen zirela, 7'92 x 57 mm-ko kalibrekoak; halaber, badakigu *Euskadiko Seigarren Brigadako* tropek Txekoslovakiako eta Poloniako fusilak zituztela, eta munizio berori erabiltzen zutela; beraz, bidezkoa da pentsatzea posizio bat menderatzen zenean, lekuan egoera onean geratutako munizioa berrirabiltzen zela. Jaime Urkijo gudariaren lekukotzek hori bermatzen dute (Urkijo, 2014).

Gauza bera gertatzen da 7 x 57 mm kalibreko munizioarekin: Espainiako armadaren ohiko munizioa zen gerra hasieran, eta, horrenbestez, bi bandoek zituzten horretarako arma egokiak: zipa motzak, mosketoiak eta Oviedo fusilak; fusil metrailadoreak eta Hotchkiss metrailadoreak. Azken horiek frantses patentadunak ziren, baina Espainian ekoitziak. Kalibre horretako munizioa, mexikar jatorrikoa, salbuespena da, errepublikanoen bandoari egotzi behar baita; izan ere, herrialde horrek laguntza eskusiboa eman zien Espainiako errepublikanoei, armak bidalita.

Beste horrenbeste gertatzen da arma laburren munizioa (9 mm laburra eta luzea) eta eskuko granadekin, italiar granadekin izan ezik, horiek altxatuen bandoak besterik ez baitzituen erabiltzen.

Nolanahi ere den, Lemoatxen gehien aurkitutako kalibrea 7'92 x 57 mm-koa da. Hori berresteko, nahikoa da esatea taldeko kideek aurkitutako 4 hobietan aurkitutako 6 soldaduetatik 4k kalibre horretako munizioko kartutu-uhalak zituztela; gainerako biei uhalak eta munizioak kendu zizkieten lurperatu aurretik.

Dena den, munizio-kalibre batzuk bi bandoetako batek erabiltzen zituen eskusiboki: oro har, hala gertatzen zen bando leialarekin, nahiz eta edozein arma erabili behar izan zuten, zaharra izan arren, gabezia larriak bizi baitzituzten.

### 4.2.1. KARTUTXOEN KALIBREA

**9 x 23 mm (9 luzea).** Arauzko kalibrea zen bai Espainian, bai Europako zenbait herrialdetan; beraz, hori erabiltzeko hainbat arma zeuden: Astra 400 ospetsua bezalako arma laburrak edo Destroyer delako karabina, biak ere Eibarren ekoitziak; halaber, subfusilak (adibidez, RU35 eta SI35 euskaldunak edo MP18 eta MP28 alemaniarak).

**7 X 57 mm Mauser.** Armadaren arauzko munizioa. Zipa motzetan, mosketoietan eta Oviedo fusiletan erabiltzen zen, bai eta fusil metrailadoreetan eta Hotchkiss metrailadoreetan ere (Espainian ekoizten ziren). Kalibre hori berori ze-

## 4.1. INTRODUCCIÓN

En los combates de Lemoatx-Peña Lemoa, debido a los numerosos intentos por recuperar la posición por parte del *Ejército de Euzkadi* y a varios contraataques de los sublevados, se emplearon ingentes cantidades de material de guerra. El siguiente dossier recoge los materiales investigados durante múltiples prospecciones llevadas a cabo por parte de miembros del Euskal Prospekzio Taldea a lo largo de varios años.

## 4.2. CARTUCHERÍA Y SU ORIGEN

En muchos casos no resulta posible determinar por qué bando fueron empleados los objetos recuperados, aunque en otras ocasiones sí lo es gracias a que algunos de los materiales eran empleados en exclusividad por una de las facciones. Así, se tiene constancia a través de diversa documentación de que en el bando sublevado eran empleados fusiles de cerrojo de origen alemán, de calibre 7'92 x 57 mm, o que las tropas de la *Sexta Brigada Vasca* disponían de fusiles checoslovacos y polacos que usaban esa misma munición, por lo que resulta lógico asumir que cuando una posición era capturada, fuera reutilizada la munición que quedara en buen estado en el lugar. Existen testimonios del gudari Jaime Urkijo que dan fe de ello (Urkijo, 2014).

Lo mismo sucede con la munición del calibre 7 x 57 mm, que era el reglamentario en el ejército español al inicio de la contienda y para el que, por lo tanto, ambos bandos disponían de armamento: tercerolas, mosquetones y fusiles Oviedo; fusiles ametralladores y ametralladoras Hotchkiss. Estos dos últimos eran de patente francesa pero fabricados en España. La munición de este calibre y origen mexicano constituye una salvedad al poder ser atribuido en exclusiva al bando republicano, ya que este país ayudó con envíos de armas en exclusiva a la República española.

Otro tanto sucede con la munición de arma corta, de calibres 9 mm corto y largo, y con las granadas de mano, a excepción de los modelos de granada italianos que eran usados exclusivamente por el bando sublevado.

Pero sin duda alguna, el calibre hallado en mayor abundancia en Lemoatx es el 7'92 x 57 mm. Baste decir para corroborarlo que, de los 6 combatientes hallados en las 4 fosas descubiertas por miembros de este grupo, 4 de ellos portaban en sus cartucheras munición de este calibre, observándose que los dos restantes habían sido despojados de sus correajes y su munición antes de ser inhumados.

Existen no obstante algunos calibres de munición que eran empleados en exclusiva por uno de los dos bandos, generalmente el leal, que se vio obligado a surtirse de cualquier arma, por muy vieja que fuese, debido a la acuciante escasez que padecía.

### 4.2.1. CALIBRES DE CARTUCHERÍA

**9 x 23 mm (9 largo).** Era un calibre reglamentario en España, así como en diversos países europeos, por lo que existían numerosas armas que la empleaban: armas cortas como la famosísima Astra 400 o carabinas como la Destroyer, ambas de fabricación eibarresa, subfusiles, como los vascos RU35 y SI35, o los alemanes MP18 y MP28.

**7 X 57 mm Mauser.** Munición reglamentaria en el Ejército. Era usada por tercerolas, mosquetones y fusiles Oviedo, pero también en fusiles ametralladores y ametralladoras Hotchkiss de fabricación española. Existieron dos fusiles ametralladores que



7'92 x 57 kargadorea.  
Peine 7'92 x 57 (Mauro Saravia).



7 x 57 kargadorea.  
Peine 7 x 57 (Mauro Saravia).



8 x54R Mannlicher kargadorea.  
Peine 8 x54R Mannlicher (Mauro Saravia).



8 x 54R Lebel kargadorea.  
Peine 8 x 54R Lebel (Mauro Saravia).

rabilten bi fusil metrailadore ere bazeuden: Astra M1927 eta Trapote M1933 delakoak, baina gerra aurretik oso ale gutxi ekoitzi ziren. Espainian ekoizitako munizioa aurkitu da, bi bandoek erabilitakoa, bai eta Mexikon ekoizitakoa ere (oro har, bando leialarekin lotzen da).

**7'92 x 57 mm Mauser.** Europa erdialdeko armetarako erabiltzen zen: gew 88 Komission, gew98 eta kar98 fusil alemaniarak; Warszawa 29 eta Radom poloniarak; eta Txekoslovakiako VZ 24 Brno. Halaber, fusil metrailadore batzuetan erabiltzen zen, hala nola WZ28-BAR poloniarrean, ZB26 metrailadore arin txekoslovakiarretan eta MG08/15 alemaniarrean. Azken hori Ionazko zinta batekin elikatzen zen: latorrizko katebegiak zituen, eta 2016an lan-eremuan induskatutako habian antzekoak aurkitu ziren.

Aurretik esan denez, kalibre horietako munizioa bi bandoek erabili zuten arrunki; dena den, errepublikanoen bandoarekin eskusiboki lotutako munizio ugari aurkitu da; ondoren zerrendatuko da.

**7'62 x 54R mm Mosin.** Errusian ekoizten zen, eta Ameriketako Estatu Batuetan Errusiako tsarrentzat ekoizitako Colt-Browning M14-15 metrailadoreek erabiltzen zuten; halaber, PV1 delakoan baliatzen zen: Errusian ekoizten zen eta Polikarpov hegazkinetan ere instalatzen zen. Jaime Urkijok bere memorietan kontatzen du *Seigarren Brigadak* azken horietako batzuk batu zituela aireportuan, eta tripode batzuk egin zituela, lurrean bermatuta erabili ahal izateko. Brigada horri Lemoatxen ateratako argazki bat dago, non arma horietako bat agertzen baita.

**7'7 mm edo 303 British.** Erresuma Batuan nazionalitate horretako armetarako ekoizitako munizioa da, hala nola Patern 14 (P14) fusil morroiloduna edo Vickers-Lewis metrailadore arina. Lewis metrailadore arinak Trubia-Naval gerra-gurdietan instalatzen ziren; horietako sei erabili zituen *6. Brigadak* Lemoatx birkonkistatzeko.

**8 x 50R mm Lebel.** Munizio hori Leben eta Berthier fusil frantsesetan erabiltzen zen. Lemoatxen Frantzia ekoizitako hainbat kartutxo aurkitu dira (ohikoenak), baina britainiar eta iparramerikar asko ere badaude. Gehienetan Lehen Mundu Gerra baino lehenagokoak dira, eta horrek erakusten du gerra horretako soberakinak direla.

**8 x 50R mm Mannlicher.** Mannlicher. Mannlicher fusiletan eta Schwarzlose M1912 metrailadoreetan erabiltzen zen (biak ere austriarrak). Aurkitutako ale gehienak austro-hungariarrak dira, eta poloniar batzuk ere aurkitu dira.

empleaban este mismo calibre, el Astra M1927 y el Trapote M1933, pero su producción previa a la guerra fue muy escasa. Ha sido hallada munición de fabricación española, empleada por ambos bandos, así como de fabricación mexicana, que se asocia habitualmente al bando leal.

**7'92 x 57 mm Mauser.** Se destinaba a armamento de origen centroeuropeo: fusiles alemanes gew88 Komission, gew98 y kar98; polacos Warszawa 29 y Radom; y checoslovacos VZ 24 Brno. También era utilizada por varios fusiles ametralladores como el WZ28-BAR de origen polaco, las ametralladoras ligeras ZB26 checoslovacas o la MG08/15 alemana. Esta última era alimentada por una cinta de lona con eslabones de latón, similares a los hallados en el nido excavado durante el campo de trabajo del año 2016.

Como se ha dicho anteriormente, la munición de estos calibres fue empleada habitualmente por ambos bandos. No obstante, también ha sido hallada abundante munición asociada exclusivamente al bando republicano, y que se relaciona a continuación.

**7'62 x 54R mm Mosin.** De fabricación rusa, era usada por las ametralladoras Colt-Browning M14-15, fabricadas en Estados Unidos de América para la Rusia zarista, y por las PV1, de fabricación rusa y montadas en los aviones Polikarpov. Jaime Urkijo relata en sus memorias como la *Sexta Brigada* recogió varias de estas últimas en el aeropuerto y les fabricó unos trípodes para poder usarlas en tierra. Se conserva una fotografía de algunos miembros de esta brigada en Lemoatx con una de ellas.

**7'7 mm o 303 British.** Munición fabricada en el Reino Unido para armas de esa nacionalidad, tales como el fusil de cerrojo Patern 14 (P14) o la ametralladora ligera Vickers-Lewis. Estas ametralladoras ligeras Lewis iban instaladas en los carros Trubia-Naval, seis de los cuales fueron usados por la *6ª Brigada* para reconquistar Lemoatx.

**8 x 50R mm Lebel.** Esta munición era utilizada por los fusiles de origen francés Lebel y Berthier. En Lemoatx han sido localizados numerosos cartuchos de fabricación francesa, los más habituales, pero también muchos de fabricación británica y norteamericana. Habitualmente datan de fechas anteriores a la Primera Guerra Mundial, lo que indica que se trata de material excedente de esa guerra.

**8 x 50R mm Mannlicher.** Empleada por los fusiles Mannlicher y las ametralladoras Schwarzlose M1912, de origen austriaco. La mayoría de los ejemplares encontrados son de fabricación austrohúngara, habiéndose localizado también algunos de origen polaco.

### 4.3. ESKU-GRANADAK

Esku-granadek, normalean, ondo bereizitako bi zati dituzte: lehergailua duen gorpu bat eta su-sistema edo su-tren bat, aktibatzean eztanda eragiten duena. Gerra Zibilean zenbait su-sistema erabili ziren: kolpe-bidezkoak, atzerapen piroteknikokoak eta metxadunak. Modelo gehienak espoleta edo biderkatzailerik gabe garraiatzen ziren, eta frontean bertan muntatzen zen atsedendietan, istripuak saihesteko.

Xede-erabileraren arabera, bi eratakoak daude: erasorako granadak eta defentsarako granadak. Lehenengoak posizio bat erasotzen duen soldaduak erabiltzen ditu (edo, behinik behin, horretarako dira); horrenbestez, ez dute granadak eragindako metrallatik babesteko elementurik. Oro har material bigunezkoak dira (latorria edo aluminioa). Eragin-esparrua erlatiboki txikia da, eta metralla gutxi eragiten dute. Bestalde, defentsarako granadak posizio bat defendatzen duen soldaduak darabiltza; hots, babesleku batean dagoenak. Granadaren gorpua material gogorrez egiten da, eta ohikoa da kanpoaldean aurre-fragmentazioa izatea, zartatu ondoren metralla sortzea errazteko.

#### 4.3.1. ESKU-GRANADEN MODELOAK

**Lafitte, 21 modelo.** Espainian ekoizitako erasorako granada, arauzkoa gerraren hasieran. Gorpua latorrizkoa zen. Ziur asko, tropa altxatuek gehien erabilitako modelo da (errepublikanoek gutxiago erabili zituzten). Granada hauek perkusio-bidezko iniazio-sistema dute, eta urrutiko segurtagailua zuten: gorpuaren inguruan biribilkatutako uhal bat.

**O-33 modelo.** WZ GR 31 espoletaduna, erasorako granada, Polonian ekoizia eta errepublikanoen bandoak inportatua. Latorrizkoak ziren eta espoletaren iniazio-mekanismoa atzerapen piroteknikoaren bidez aktibatzen zen.

**Z-33 modelo.** WZ GR 31 espoletaduna, babeserako granada. Polonian ekoizten zen eta Errepublikak inportatu zuen, erasorako modelo bezala. Gorpua burdinazkoa zen eta 40 segmentu edo takotan bereizita zegoen: 5 altuera eta 8 lerro. Ohiko "pinabola" granada da. Espoletaren funtzionamendua soila da: segurtasun-uztaia kenduta, palanka askatzen da eta segundo batzuen buruan eztanda egiten du (oro har, 8 segundo dira).

### 4.3. GRANADAS DE MANO

Las granadas de mano constan normalmente de dos partes bien diferenciadas: un cuerpo que contiene el explosivo, y un sistema de fuego, o tren de fuego, que al accionarlo inicia la explosión. Durante la Guerra Civil se utilizaron diferentes tipos de sistemas de fuego, existiendo los de impacto, de retardo pirotécnico y hasta de mecha. La mayoría de los modelos eran transportados sin la espoleta o multiplicador, el cual era montado en el mismo frente durante los momentos de descanso, con el fin de evitar accidentes.

Según el uso al que estén destinadas, se clasifican en dos tipos: granadas ofensivas y defensivas. Las primeras se utilizan, o al menos ese es su propósito original, por el combatiente que ataca una posición y por tanto carece de elementos que le protejan de la metralla generada por la granada. Se fabrican normalmente en materiales blandos como la hojalata o el aluminio. Su radio de acción es relativamente pequeño y generan poca metralla. Las granadas defensivas en cambio, se emplean por el combatiente que defiende una posición y que, por tanto, se encuentra a resguardo. El cuerpo de la granada suele fabricarse en materiales duros y es habitual que presente un prefragmentado exterior para facilitar la generación de metralla tras la explosión.

#### 4.3.1. MODELOS DE GRANADAS DE MANO

**Lafitte Modelo 21.** Granada ofensiva de fabricación española y reglamentaria al inicio de la guerra. El cuerpo estaba construido en hojalata. Posiblemente se trate del modelo de granada más utilizado por las tropas sublevadas, y en menor medida por las republicanas. Se trata de una granada equipada con un sistema de iniciación por percusión y que disponía de un seguro de distancia, que no era más que una cinta enrollada alrededor del cuerpo.

**Modelo O-33.** Granada ofensiva con espoleta WZ GR 31, de fabricación polaca e importada por el bando republicano. Estaba construida en hojalata y el mecanismo de iniciación de su espoleta era por retardo pirotécnico.

**Modelo Z-33.** Granada defensiva con espoleta WZ GR 31. De fabricación polaca, fue importada por la República, al igual que el modelo ofensivo. El cuerpo, construido en hierro, se encuentra prefragmentado en 40 segmentos o tacos, a razón de 5 alturas y 8 filas. Es la típica granada "de piña". El funcionamiento de su espoleta es sencillo: una vez retirada la anilla de seguridad, se libera la palanca y se produce la explosión después de unos segundos, normalmente 8.



Erasorako poloniar granada,  
"ohe-bola".  
Granada Polaca ofensiva  
"bola de cama" (Mauro Saravia).



Defentsarako poloniar granada.  
Granada Polaca defensiva (Mauro Saravia).



Errusiar F1 granada.  
Granada F1 rusa  
(Mauro Saravia).



Bilbao granada.  
Granada Bilbao  
(Mauro Saravia).

**F1 modeloa.** WZ GR 31 espoletaduna, defentsarako granada. Gorpua Frantzian eta/edo Errusian ekoizten zen, nahiz eta espoleta poloniarra izan. Errepublikak inportatu zuen. Gorpua burdin urtuzkoa zen eta 32 segmentu edo takotan bereizita zegoen: 4 altuera eta 8 lerro. Behealdean torloju bat izan ohi du, karga-zuloa buxatzeko.

**Bilbao modeloa.** WZ GR 31 espoletaduna, defentsarako granada. Gorpua Euskadin ekoizten zen, eta espoleta Polonian. Gorpua burdin urtuzkoa zen eta 32 tako zituen. Itxura simetrikoa du; izan ere, oinarria eta lepoa berdinak dira. Egiaztatu da gorpu horietako asko Derio udalerrian ekoizti zirela, Lemoatxetik hurbil. Bitxikeria gisa aipa daiteke ziur asko granada-modelo hori erabili zen lehenengo guduak Lemoatxekoak izan zirela; izan ere, ez da aztarnarik aurkitu aurreko guduetan, baina Lemoatxen oso ugariak dira.

**Asturiasko madaria modeloa.** Asturiasko madaria modeloa. Defentsarako artisautza-granada, metxa bidezkoa. Beti ageri da asturiar tropei lotuta. Gorpua burdinazkoa eta fusiformea da, eta 25 takoko fragmentazioa du: handiak dira eta, batzuetan, ez daude oso markatuta. Mutur zabalenean kargarako burdinazko tapoi bat du, eta horren erdian zulo bat dago, metxarako; zehazki, erroka baten bidez lotzen zaio gorpuari. Beste muturrean egurrezko zilindro batek estalitako zuloa du. Su-sistema metxa soila da, eta karga bolbora beltzekoa izan ohi da. Lemoatxen ale bat aurkitu da.

**OTÓ.** Defentsarako granada, Italian ekoiztia, nahiz eta italiarrak ez ziren erabiltzaile bakarrak izan: italiarren laguntza-materialen artean dago. Aluminiozkoa zen, eta mihi bat duen segurtagailu txikia kentzean aktibatzeak inpaktu-sistema zuen.

## 4.4. MORTEROAK

Morteroa arima lauko arma da, eta granadak motel eta angelu handiz jaurtitzeko aukera ematen du; hots, granada bat jaurtitzen du, eta altuera gorena jo ondoren, parabola itxia irudikatuta jomuga jotzen du zuzenean amildu ondoren. Horrek arma ideal bihurtzen du lubaki-eremuak erasotzeko.

Valero sistemako morteroa "euskal artilleria" nagusitzat jo daiteke; izan ere, Euskadin ugari ekoizti zen gerra baino lehen, Esperanza & Cia fabrikari zehazki, eta tresneria eta esku-lan espezializatua zegoen gerra-sasoian ekoizpenarekin jarraitzeko.

*Seigarren Euskal Brigadak* 1937ko ekainaren 3an eginko kontraerasoan (Lemoatxen galdutako posizioak berreskuratzea lortu zen) Valero sistemako 21 mortero (33. modeloa, 81 mm) erabili ziren.

### 4.4.1. MORTERO-GRANADAK

**Valero sistemako granada, 1932 modeloa, 50 mm.** Burdinazkoa zen eta latorrizko zenbait elementu zituen. Gorpua oboideak bi zati ditu, eta biak lotzeko erroka bat dago, non latorrizko kondukzio-banda ezartzen baita. Sei hegaleko egonkortze-buztana du, eta horren muturrean kokatzen da kartutxo propulsaizailea (14 mm kalibrekoa).

**Valero sistemako granada, 1933 modeloa, 81 mm.** 50 mm-koaren ahizpa txikia bezalakoa da, baina 4 kilotik gorako pisua du. Kartutxo propulsaizailea 16 mm kalibrekoa zen.

**Modelo F1.** Granada defensiva con espoleta WZ GR 31. El cuerpo es de fabricación francesa y/o rusa, aunque la espoleta es de origen polaco. Fue importada por la República. El cuerpo, en hierro fundido, se encuentra prefragmentado en 32 tacos, a razón de 4 alturas y 8 filas. En la parte inferior suele incorporar un tornillo para taponar el orificio de carga.

**Modelo Bilbao.** Granada defensiva con espoleta WZ GR 31. El cuerpo es de fabricación vasca y la espoleta polaca. El cuerpo, construido en hierro fundido, se encuentra prefragmentado en 32 tacos y es de forma simétrica, ya que tanto la base como el cuello son iguales. Se ha comprobado que un gran número de estos cuerpos fueron fabricados en la localidad de Derio, próxima a Lemoatx. Como curiosidad, puede afirmarse que muy probablemente los primeros combates donde se empleó este modelo de granada fueron los de Lemoatx, ya que no se han hallado restos de ella en combates anteriores, mientras que en este lugar es muy numerosa.

**Modelo Pera Asturiana.** Granada defensiva de fabricación artesanal y funcionamiento a mecha, asociada siempre a las tropas asturianas. El cuerpo, en hierro, es fusiforme y presenta una prefragmentación de 25 tacos, grandes y a veces poco marcados. En su extremo más ancho posee un tapón de hierro para la carga, con un agujero en el centro del mismo destinado a la mecha, la cual se une mediante una rosca al cuerpo. En su otro extremo dispone de un agujero que queda tapado con un cilindro de madera. El sistema de fuego consiste en una mecha simple, y su carga suele ser de pólvora negra. En Lemoatx ha sido localizado un ejemplar.

**OTÓ.** Granada ofensiva de fabricación italiana, aunque no solamente usada por tropas de dicha nacionalidad, ya que se trata de material que formó parte de la ayuda italiana. Fabricada en aluminio, funciona mediante un sistema de impacto que se activa al retirar un pequeño seguro dotado de una lengüeta.

## 4.4. MORTEROS

El mortero es un arma de ánima lisa que permite disparar granadas a baja velocidad y con un ángulo muy elevado, o lo que es lo mismo, dispara una granada que alcanza su máxima altura describiendo una ligera parábola muy pronunciada para después caer "en picado" sobre el objetivo. Esto la convierte en un arma ideal para atacar atrincheramientos.

El mortero de sistema Valero, puede ser considerado "la artillería vasca" por antonomasia, ya que al haber sido ampliamente fabricado en el País Vasco con anterioridad a la guerra, concretamente en la fábrica de Esperanza & Cia, se disponía de la herramienta y la mano de obra especializada necesaria para seguir produciéndolos durante la contienda.

El contraataque llevado a cabo por la *Sexta Brigada Vasca* el día 3 de junio de 1937, en el que consiguió recuperar las posiciones perdidas de Lemoatx, hizo uso de hasta 21 morteros de sistema Valero Mod. 33 de 81 mm.

### 4.4.1. GRANADAS DE MORTERO

**Granada de mortero sistema Valero modelo 1932 de 50 mm.** Fabricada en hierro con algunos elementos de latón, el cuerpo ovoide se divide en dos partes que se unen mediante una rosca donde se coloca la banda de conducción de latón. También dispone de una cola estabilizadora con seis aletas, en el extremo de la cual se introduce el cartucho propulsor, del calibre 14 mm.

**Granada de mortero sistema Valero modelo 1933 de 81 mm.** Idéntica a su hermana pequeña de 50 mm, pero con un peso de algo más de 4 kilos. El cartucho propulsor era del calibre 16 mm.

Brixia morteroaren granada, 45 mm-koa. Italiarrek bando altxatuari emandako laguntza-materialen artean dago; izan ere, Italiako armadaren ohiko granada zen infanteriari laguntzeko mortero arinetan.

Granada de mortero Brixia de 45 mm. Formó parte de la ayuda italiana al bando sublevado ya que era reglamentaria en el Ejército Italiano como mortero ligero de acompañamiento de infantería.



Valero 50 mm morteroa / Mortero Valero 50 mm (Mauro Saravia).



Valero 81 mm morteroa / Mortero Valero 81 mm (Mauro Saravia).



Brixia 45 mm italiar morteroa / Mortero Brixia 45 mm italiano (Mauro Saravia).

#### 4.5. ARTILLERIA (KANOIAK ETA OBUSAK)

Kanoiak "tiro tenkatua" darabilen arma da; hots, angelu horizontal txikiagoko jaurtiketa egiten du, eta, horrenbestez, etsaien kontzentrazioen edo posizioen aurkako zuzeneko jaurtiketak egiteko erabili ohi dira. Hori dela eta, beharrezkoa izan ohi da etsaia begi-bistan izatea. Kanoi edo hodi luzeagoa du, eta munizioak, oro har, latorrizko zorroak ditu, eta proiektzio-karga barnean.

